







500009358

ZRV
3391

SAN JOSEPEREN

ILHABETHEA

EDO

MARTCHOA CONXECRATUA SAN JOSEPE
Patriarkha Ioriosari

haren arartotasun botherexuaz ardiesteco
behar ditugun laguntzac bizian eta he-
riotzeco orenean.


*Guziac Jesusi Mariatz,
Guziac Mariari Jesusentzat,
San Josepe Ioriosaz.*



BAYONAN

LASSERRE, Yaun Aphezpicuaren imprimatzailea
baithan, Orbeco carrican, 20,

—
1872



PREMIAZCO ABISUA

Iracurtzaile debotari

Andre-dena Mariaren ilhabete-
co deboziona baxter gehienetarat
hedatua da; deboziona horren bi-
dez jadanic hainbertze grazia,
zerutic jausten dela ikhusteac,
eman diote gogorat san Joseperen
alderat debotac direnei, bertze
ilhabethe bat osoa conxecratzeco
saindu guziz lorios horren oho-
retan. Hortaraco hautatu izan da
Martchoco ilhabethea, zeren Eli-
zac hil hunen hemeretziari zele-
bratzen baitu saindu horren bes-
ta. Liburu chume hau egitean,

ene chedea da, Jesu Cristoren aita ordeari dohacon bezala, martchoco deboziona hunen escual herietan hedatzen laguntzea. Izanen othe da nihor erranen due-
 nic : zertaco ilhabethe oso bateco deboziona san Joseperen ohoretan? Zertaco? Zeren deus ez beitzacote agradagarriagoric Jesusi eta Mariari, santa Margarita Cortonecoari Salbatzaileac berac erran dioen bezala (1); zeren erran baititake san Josepez, san Bernatec Mariaz dioena : *De Mariâ numquam satis*; « Mariaz secular sobera. » Zeren denbora gaitzetan aurkhitzen beicare, eta behar berezi bat beituugu Mariaren eta Joseperen laguntza izaiteco; azkenecotz, zeren, iduri guzien arabera, hurbil beitago mende urus hura, zeintan Maria Jain-

(1) *Boll.* cap. xxii.

soaren Ama, eta Josepe, haren aingeruzco esposa, eta Jesu Cristoren aita ordea, behar beitira izan ohoratuac eta lorificatuac Elizan, orai artean egundeino izan diren beino gehiago.

Emen gonbidatuac dira Mariaren zerbitzari leyal guziac bere egin ahalaz hedatzen hartzeras Joseperen alderaco debozio-nea; hunec hazi eta arthatu deraucu gure Salbatzailea, mila zerbitzu bihurtu diozca Maria gure Ama guziz onari; hau da Jaincoac guretzat zaucana erresurx bat bezala, Elizaren eta girichtinotasunaren contra altchatuac diren nahasdura eta eraunxia izigarrietan, bai eta bere gure alderaco amodioaren eta misericordiaren frogaric hunkigarriena bezala. Norc izanen du? eta ochala izaiten balu norbeitec, boz bat aski hazcarra orotarac adi arazteco,

izpiritu sainduarekin: *Ite ad Joseph, salus nostra in manu tua est.* « Zohazte Josepe ganat, gure salbamendua haren escuetan dago. »

Izan beite bethicotz laudatuac Jesusen, Mariaren eta Joseperen izen sacratuac.

Jesus, Maria eta Josepe, izan zaitzte gure socorria, egun, gure bizico egun guzietan, eta bereziki heriotzeco orenean.

Maria saindua eta san Josepe, othoitz zazue Jesus, zuen seme Jaincoan, egin dezadan grazia azkeneraino ongian irauteco.

JAINCOAC EMAN DIOZCAN

PRIBILIO DIFERENTAC

SAN JOSEPERI

—

1º Deboki othoitz eginen diotenae, izanen dira lagunduac zeruaz garbitasun sainduaren begiratzeco, eta garhartzeco senxuetaco tentazioneac.

2º Ardiexico dituzte grazia bereziac bekhatutic atheratzeco.

3º Ardiexico dute Birjina guziz sainduaren alderaco debozione egiazcoa.

4º Eginen dute heriotze on eta zorionezco bat, eta lagunduac izanen dira azken memento hartan debrua-
ren contra.

5º Begiratuac izanen dira, on bada heyen arimentzat, gorphutzeco erita-

sunelaric, eta aurkhituco dute solei-
mendua bere penetan.

*Zesareco Aita Amedeo, Indexeco
Congregazione sacratuco conxeila-
riac egin duen Birjina Maria Sain-
duaren bizian. (Obra aprobata.)*

SAN JOSEPERI

CONXECRATUA ZAYON MARTCHOCO ILHABETHEAN

EGITECO PRATICAC

Jesusi eta Mariari nahiz egin zer-
beit agradagarriric, arima Jainco-
tiarrec conxecratzen dute martchoco
ilhabethe osoa san Joseperen oho-
reco; beitakite Jaincoaz hautatua
izan dela Mariaren aingeruzco Es-
postzat eta gizonen Salbatzailearen
Aita ordetzat.

Debozione hau graziaric baliose-

nen ithurburua da. Jaincoac ezin deusic errefusa dezake ilhabethe oso batez galdegiten zayonetic saindu baten arartecotasunaz, zeinari nahi izan beitu obeditu hainbertze urthez, lur-raren gainean ereman duen bizian; eta zeina ezarri beitu Mariarekin bere ganic hurbilena zeruco erresuman.

San Joseperen ilhabethea deboki eremaiteco segi zaitzu behereco practica hauc :

1º Bezperatic hartzazu gogoan zer grazia nahi duzun ardiexi Jaincoaganic, saindu hunen arartecotasunez, huni conxecratuac zaizecon egubetan; ofri zaitzu chede hortara zure othoitz eta eginbide guziac.

2º Egun guziez, baldin zure egi-tecoec denbora uz'en badatzute, egi-zu zure meditazionea, liburu huntan egun bakhotcheco ezarria den bezala; edo bederen iracur zazu zure iracurtze izpiritualtzat bezala.

3º Izazu zure khanbaran san Joseperen potreta, zeinaren aintzinean erranen beituzu, egunean behin bederen, arraxetan, Elizac induljentziaz aberastuac dituen othoitzetarik bat.

4º Aipha zaitzu egunean ardura hain gozoac diren izen hauc : *Jesus, Maria* eta *Josepe*. Ekharria izan zaite comunione sainduaren egitera, zure cofesoraren nahiarekin, astean behin, *astezkenetan*; bederen, comuniazazu *behin* ilhabethe huntan. Ahal baduzu, entzun zazu meza egun guziez, eskerrac bihurtzeco Jaincoac san Joseperi eman diozcan fagore eta pribilio guziez, eta hunen arartecotasunaz zuhoroniri egin daitzun on eta grazia bereziaz.

5º Ilhabethe huntan egizu, zure ahalaren arabera, amuina bat haur bati, ama bati eta gizon zahar bati, familia sainduaren ohoretan, zeinac

jasan izan beitu beharraren eta po-
breziaren miseria guziaz. Egunean
irabazten dituzun induljentziac emoi-
tzute Purgatorioetaco arimei, eta be-
reziki debozioneric gehiena izan du-
tenei *Jesus, Maria eta Josepentzat.*

9º Finean, ilhabethe eder hau akha-
batzean, hartzazu chedea san Jose-
peren ohoratzeco zure bizi guzian ;
conxecra zaitzu zure gorphutzeco eta
arimaco intres guziaz ; othoitz zazu
egin daitzun ongi guziaz gakha eta
zigilusta ditzan, ardiesten dautzula-
ric grazia zure azken haxa uzteco Je-
susen, Mariaren eta bere escuetara.

Guziac Jesusentzat Mariaz,
Guziac Mariari Jesusentzat,
San Josepe loriosaz.

OTHOITZAC

SAN JOSEPEREH ILHABETHECO EXERZIZIOETAN

Exerzizioaren hastean.

JESUS, Maria eta Josepe, emaiterik gabe, darozkitzuet ene bihotza, ene izpiritu eta ene bizia (1).

- AGUR, Josepe, graziaz bethea Jesus eta Maria dira zurekin; benedictua zare gizon guzien artean eta benedictua da Jesus, zure esportarbiaren fruitua. San Josepe, Jesusen aita ordea eta Birjina Maria dohaxuaren esposa, egizu othoitz guzietan bekhatoreentzat orai eta gure heriotzeco orenean. Hala-biz.

Othoitz hunen ondotic erran ditazke san Joseperen lithaniac.

Hemen iracur zazu eguneco meditazioa, ondotic dituen istorio irekin eta praticarekin.

(1) Ehun egunen indulgentzia. Pio VII.

Exerzizioaren akhabantzian.

ORHOIT zaite, o ararteco lorios eta guziz maitagarria; san Josepe, zure zerbitzari leyal, santa Theresaren lekhuotasunac dioenaren arabera, ez dela egun deino aditu erraiten: zuretzat egiazco deboziona izan du tenetarie bat, eta zure laguntza confidentziarekin galdatu duenic, izan dela bere galdea errefusatua izan zayonic. Bihotza beihea hoin esperantza gozoaz, heldu natzaitzu o Mariaren espos guziz gaya, ihes egi ten dut zure oinetara, eta naizen bezelaco bekhatorea, galdegiten derautzut zure arartecotasuna! Ez dezozula beharria hux ene othoitzari; o zu Jesusen aitaren izen loriosa ekharri duzuna, beinan adi zazu fagorezki, eta presenta zozu enetzat zure Semea deithua nahi izatu denari. Hala-biz.

JESUS, Maria eta Josepe, emaiten

darozkitzuet ene bihotza eta ene arima.

JESUS, Maria eta Josepe, lagun nezazu ene hagonian.

JESUS, Maria eta Josepe, hiltzean, ene arima descaxuan ethor bedizuen galtzarrera. Hala-biz (1).

Baldin elizan egiten badira, publicoki biltzarrean, exercizio izpiritual hauc, canta ditake behereco himnoa, hastean; eta akhabantzian san Joseperen lithaniac erranen dira.

HIMNOA SAN JOSEPEREN OHORETAN (2)

Quicumque sanus vivere,
Cursumque vitæ claudere

(1) Hiru bihotz alchatze horiei emana du Pio zazpigerrenac *ehun egunen indulgentzia*, baxhotchari, egiten direlaric bekhatus bihotzeco urrikiarekin. (*Decreta Aphirilaren 28. 1807.*) Aplica daitezke purgatorioco arimei.

(2) Urthe baten indulgentzia erraiten den aldi baxhotcheco. Aplica daiteke Purg. arimentzat. (Ikhus *Racolta.*)

In fine lætus expetit,
Opem Josephi postulet.

Hic sponsus almæ Virginis,
Paterque Jesu creditus,
Justus, fidelis, integer,
Quid poseit orans impetrat.

Quicumque, etc.

Feno jacentem Parvulum
Adorat, et post exulem
Solatur; inde perditum
Quærit dolens, et invenit.

Quicumque, etc.

Mundi supremus artifex
Ejus laborè pascitur,
Summi Parentis Filius
Obedit illi subditus.

Quicumque, etc.

Adesse, morti proximus,
Cum Matre Jesum conspicit,
Et inter ipsos jubilans
Dulci sopore solvitur.

Quicumque, etc.

Gloria Patri, et Filio, et Spiritui Sancto.
Sicut erat in principio et nunc et semper
et in sæcula sæculorum. Amen.

Quicumque, etc.

Antifona. Ecce fidelis servus et
prudens quem constituit dominus
super familiam suam.

ŷ. Ora pro nobis, beate Pater Joseph; R. Ut digni efficiamur promissionibus Christi.

OREMUS.

Deus qui ineffabili providentia beatum Joseph, sanctissimæ Genitricis tuæ sponsum eligere dignatus es, præsta, quæsumus, ut quem protectorem veneramus in terris, intercessorem habere mereamur in cœlis, qui vivis et regnas in sæcula sæculorum, Amen.

LITHANIAC

SAN JOSEPE LORIOSAREN OHORATZECO.

Jauna, urrical gaizkitzu.

Jesu-Cristo, urrical gaizkitzu.

Jauna, urrical gaizkitzu.

Jesu-Cristo, adi gaitzatzu.

Jesu-Cristo, entzun gaitzatzu.

Jainco Aita zeruetan zaudea, urrical gaitzatzu.

Jainco Seme, munduaren Erostaile, urrical gaitzatzu.

Jainco Izpiritu Saindua, urrical gaitzatzu.
Trinitate saindu, Jainco bakhar bat za-
rena, urrical gaitzatzu.

Maria saindua, Jaincoaren ama, san Jo-
seperen esposa, egizu othoitz guretzat.

San Josepe, Aita zerucoaren iduria, eta
haren Seme bakharraren aita ordea,

San Josepe, Mariaren espos garbia,

San Josepe, Dabiten semea, Patriarkhen
fedearen eta berthuten premua,

San Josepe, hogoi eta hamar urthez be-
gien aintzinean izan duzuna Jesus, per-
fectzione guzien Jaincozco modela,

San Josepe, gizon justu, chinple, zuzen
eta Jaincoaren bihotzecoa,

San Josepe, obedientziaric lasterrena-
ren, humilenaren eta perfetenaren
modela,

San Josepe, gizionez mespetchatua, bai-
nan handia Jaincoaren begietan, Ain-
geruez errespetatua eta amiratu,

San Josepe, bizi bat ereman duzuna
chinplea, ilhuna eta nekhatua po-
brezian,

San Josepe, bizi barnecorraren model
perfeta,

San Josepe, zeinaren bizia Jesu Cristore-
kin izan beita gordea Jainco beithan,

San Josepe, hain denbora luzez eta hain
familierki ikhusi beituzu zure begiz
eta hunkitu escus biziaren Berboa,

Egizu othoitz guretzat.

Egizu othoitz guretzat.

San Josepe, zeinac zure obedientziaz,
zure izerdiz eta zure lanaz salbatu bei-
tuzu eta hazi Creat'zaile eta Salbatzai-
learen bizia,

San Josepe, hain eroria izan zarena Iz-
piritu Sainduaren eginei eta erranei eta
haren graziaren inspirazione guziei,

San Josepe, zeinari canpoco egitecoec ez
beitiote gutitu behin ere barneco bildu-
tasuna, eta Jaincoaren presentziaren
alderaco atentziona,

San Josepe, hitzez bekhaturic egin ez
duen gizon perfet hura zarena,

San Josepe, ez miraculuric, ez irakhas-
penic egin ez duzuna, baina gizon
guzien eta mende guzietaco irakhaspe-
na zarena zure amodioaz ichiltasuna-
rentzat,

San Josepe, zeinaren bizia continoco go-
goeta bat Jaincoaz izan dena,

San Josepe, Jesu-Cristori bat egina amo-
dioric garbienaz, borthitzenaz eta sa-
murrenaz,

San Josepe, Jesus Jaunaren besoetan
hil zarena,

San Josepe, Jaincoaren etheco ontha-
sunen aintzindari, eta haren tresoren
phartitzaile zarena,

San Josepe perfectzioneraco jaudura
duten arimen gidaria, adichkidea eta
laguntzailea,

Egizu ohoitz guretzat.

Egizu ohoitz guretzat.

San Josepe, girichtino guzien aita, flacoen defendatzailea, afliituen conxolatzailea, penitenten ihes lekhoa, ororen esperantzaz, egizu othoitz guretzat.

San Josepe, Elicā catholicoaren Patroina, egizu othoitz guretzat.

Zure haurtasun sainduaz, eta zure bizi gordeaz, entzun gaitzatzu Jesus Jauna.

Zure Ama sainduaren birjinitate guziz garbiaz, garbi gaitzatzu, Jesus Jauna.

San Joseperen justiziaz eta leyaltasunaz, begira gaitzatzu, Jesus Jauna.

Jaincoaren Bildoxa, munduco bekhatuac khentzen dituzuna, barkha diezaguzu.

Jaincoaren Bildoxa, munduco bekhatuac khentzen dituzuna, entzun gaitzatzu, Jauna

Jaincoaren Bildoxa, munduco bekhatuac khentzen dituzuna, urricai gaizkitzu, Jauna.

Berxua. San Josepe Elicāren patroin loriosa, egizu othoitz guretzat.

Arrapostua. Izan gaitezentzat gai Jesu-Cristoren agintzetan partalier izaiteco.

OTHOITZA.

Eue Jaincoa, zure probidentzia miragarriaren bidez, hautatu duzuna

san Josepe zure Ama guziz saindua-
ren espostzat, emaguzu grazia lurra-
ren gainean ohoratuz gure ararteco
bezala, sendi dizagun zeruan haren
botherearen ondorio zori onezcoac.
Hala-biz.



MARTCHOA

SAN JOSEPEREN ILHABETHEA

LEHEN EGUNA.

Jesus gure lehen Buruzagia eta lehen modela, san Joseperi bihurtu dioen ohorean.

I. PHONDUA. Jaincoaren Seme, gure Salbatzailearen bizi guzia da exemplubat perfeta, eta Jaincozco modela imitatzeco emana zaucuna (1). Bada, hori hola denaz geroz, dezagun ikhus utzidacun exemplua imitatzeco san Joseperi dohacon ohorearen gaincan. Lehen da gizonetarie, saindu huni ohore eman dioena. Bere Aita eternalac lurrean bere ordaintzat ezarri zioenaren

(1) Exemplum dedi vobis ut quemadmodum ego feci, ita et vos faciatis
(*Joanes. 3.*)

phondutic, Jesu-Cristoc behatu zioen bere Aitari bezala (1) eta bihurtu ziozan homayac, hain errespeta garriac, non ezin perfetagoric bihurtuco baitzioen, izan balu ere naturalezaz bere egiazco aita. San Luken ebanjelioac, Jesu-Cristoren bizi moldea erakhus-tean, nolacoa izan zen, haurretic eta hogoi eta hamar urtheac artean, hiru hitz hautan egiten du istorio guzia : *heyen azpico zagon* (2). Nabiz san Lu-kec bazakiken bertze asco gauza mira-garri Jesu-Cristoz, Birgina Mariae era-khaxiae, ez du deus bertzeric errai-ten, erakhusterat emaiteco, iduriz, Jesu-Cristoren egiteco berezia izan dela Birgina guziz sainduari eta san Jose-peri obeditzea, eta heyen borondaterat eroria egoitea. Zer ohorea, zer loria san Joseperentzat ! denbora berean, zer erakhaspena guretzat !

II. PHONDUA. Gohazin beraz Nazare-theco etche hartara izpirituz, han har

(1) Dedit illi Deus nomen et auctori-tate) in Patris. (S. J. Damascenus.)

(2) Erat subditus illis (v. 51.)

ditzagun aingeruac berac estonatzen dituzten eracaspnac; eta ikhus ditçagun atentzionerekin Jainco guziz gora denaren Semeac san Joseperi bihurtzen diozcan homayac eta obedientzia, bere Aitari bezala. Zer gauza mirexgarria, ez behin, bainan bai mila aldiz, ikhustea zeru lurren creatzaileac obeditzen dioela san Joseperi (1) lekhucootasun hori emana da Birgina guziz sainduaz santa Bricbitari, erraiten zioelarie : Ene Seme Jaincoa hain zen obedientia, non, san Josepec ahotic atheratu bezen laster : Jesus egin behar da hulaco edo halaco gauza, egiten beitzuen berehala (2). Orobat diote san Basilioc, san Justinec, san Jero-mec eta san Bonabenturac bere obra batzuetan : « Aita ordeac erraiten zioe-
« nean : *ekhartzu mailua edo bertze*
« *zerbeit zurguitzaco tresnetarie ; sega*

(1) Sub quo curvantur, qui portant orbem. (Job. ix. 13.)

(2) Sic filius meus obediens erat, ut cum Joseph casu diceret : Fac hoc, vel illud, statim ipse faciebat. (Lib. 1, Revel. cap. 28.)

« zazu zur hori, edo bil zaitzu botigaco
« ezpalac, berehala obeditzen zuen. »
Oraino gehiago dena, dio Gersonec :
Etcheco zerbitzuric eta lanic aphaltene-
tan hartzen zen ; phizten zuen sua, ja-
tecoa preparatzen, chahutzen bacherac,
bazohan urketa, etchea bera garbitze-
raino aphaltzen zen (1). Nor da San
Joseperen alderat hoinbertze erres-
petu duena? Gohazin izpirituz zerue-
tan gora, dezagun ikhus han, bere
tronuareu gainean, inobreco ainge-
ruen osteaz inguratua, guziec loriazco
ikhara batekin adoratzen eta zerbi-
tzatzen dutela (2), horra zoin den san
Joseperi, lurrean, hainbertze erres-
petu, amodio eta obedientzia ekharri-
dioena. Zer exemplua ! nolaco debo-
ziona ez dugu behar izan saindu handi
haren alderat !

(1) *Sæpe focum, crebroque cibum parat officiosus... Vasa lavat, bajulat undam de fonte propinquo... nunc domum scopit (in Joseph dist.).*

(2) *Millia millium ministrabant ei, et decem centena millia assistebant ei. (Dan. 7.)*

Othoitza.

San Josepe, Jesusen aita ordea, bartzan zaitut egun ene aitatzat, heldu naiz abuspez zure oinetan emaitera, zuri bihurtzeko, zure seme orde Jaincoarekin, aita bati zor zaizcon errespetua, amodioa eta ohorea. Errezibinezazu zure haurren nonbreco ; zaude, egundanic ene biziaren azken haxeraino, ene abocata eta ene arartecoa. Hala-biz.

Pratica.

Obedi zaitzu zure aita amac, eta zure buruzagi guziac. Jesusec ohoratu duen bezala San Josepe, bere aita ordea, haur guziei exenplua uzteco nola behar dituzten ohoratu bere burbasoac. (*Origene, hom. 20 in Luc.*)

Exemplua.

Girichtino guziec behar dute izan debozione berezi bat San Joseperen alderat. Gomendio hori egin zioen Jesu Cristoc berac Cortoneco Margarita Sainduari : « Ene haurra, erran zioen, ene « nahia da ez dezazun utz, egunic ira-

« gaitera eman gabe zerbeit errespe-
« tuzco, laudoriozco eta amodiozco
« seinale ene ama Birginari eta San
« Josepe ene aita ordeari.» (Ap. Boll.
22 febr.) Aita amec bereziki galdegi-
teco dute bere haurrentzat Saindu bon-
di horren laguntza, zeinac, Jaincoaren
Seme gizon eginaren haurtasunean,
huntaz izan duen artharen bidez, iduri
beitu cargatua dela particularzki haur
chumeen gainean atzarria egoitera.
Huna horren froga segidaco exenplua:
mila sei ehun eta hogoi eta hameican,
ideki zen Bezuba deitzen den mendian
leze bat izigarria, zeintaric atheratu
beitzen mina urthuricaco tulubio bat
sugarra zariona, zeinac hartu beitzu-
tuen ingurunaco bazter guziac, eta be-
reziki *tour du grec* deithu biria. Bazen
hiri hartan emazteki bat Camilla deit-
zen zena, zeinac beitzuen debozione
berezi bat San Joseperen alderat. Suzco
eraunxiari ihes egiteco, hartzen du be-
soetan bere iloba, haur chume bat,
Josepe deitzen zena, eta emaiten da
lasterrari; bainan sugarrac ingurat-
zera dohala ikhusiric, igaiten da ixaso-

ari contra zagon harroca baten gaine-
ra. Han baraturic erreac ziren, eta
ithoac, jauzi egiten bazuten hain go-
radanic ixasoarat. Hoin memento her-
xian, oiñu egitea dio San Joseperi,
duelariac khar handirekin : *Saindu do-
haxua, izazu artha zeronec ene iloba
maiteaz*. Othoitz horiegín eta uzten du
duban haurra, aurdikitzen du bere bu-
rua ixas lezerat berac nola ez dakiela,
aurkhitzen da leihorrean eta minic
hartu gabe. Bainan orhoituz bere ilo-
baz, zorotua bezala zabilan ixas bazter-
rean ; penxatzen zuen harroca gainean
errea ahal zela, noiz ere aditzen beitu
oiñu bat, bere izenaz deitzen duena ;
bazter guzietarat behatzen du, eta
horra non ikhusten duen bere iloba
maitea, lasterca heldu zayola aire arrai
batekin caresatzera. O ene Jaincoa !
dio Camillac, besarcutzen duelariac
haurra ; norc begiratu zaitu erretze-
tic, ene maitea ? San Josepec, erraiten
dio haurrac irhiz dagolaric ; zuc utzi
nauzunean, San Josepec, zuc othoiztu
bezala, hartu nu escutic eta hunat
ekharri, batere irrichcuric gabe. Ema-

zteki debotac eskerrac bihurtu ziozcan bozcariozco nigarrekin, Saindu Iorios eta botherexu harri, zeren bi miraculuen bidez conxerbatu zituen izaba eta iloba.

Zer ez du beraz eginen guretzat San Josepe boterexu eta miragarriac, gu eta gure ahaideac begiratzeco ifernuco su eternaletic, baldin emaiten badugu haren baithan confientzia bera.

Bihotz altchatzea.

San Josepe, ardiex diezadazu Jaincoa ganic ilhabethe huntan (N.) bulaco grazia.

J. M. J.

BIGARREN EGUNA.

Maria, Birjina guziz Saindua, gure Ama eta gure bigarren modela San Josepe, bere esposari, bihurtu dioen ohorean.

1. PHONDUA. Testament zabarrean ikhusten dugu, misteriozco amex ba-

lean, Josepe, Jacobe Patriarkharen haur gazteac ikhusi zuela bere burua adoratzan iguzkiaz, ilhargiaz eta hameica izarrez (1); amex horrec zioena hala gerthatu zangon, noiz eta ere, Echiptoco erresuman, erregeren ondotic, buruzagien artean lehen herroncarra alchatua izan beitzen. Bere aita, iguzkiaren figura, eta bere hameica aneyac, hameica izarren itchurac, ethorri zainzcon bere errespetzco homayenbihurtzera. Bainan non zen ama, ilhargiaren figura? Jadanic hila zen, eta beraz, ezin othoratu zuen, Jacobec bezala, haur zorionezco hura.

Jaincoaren decretetan bertze Josepe bat zen seinalatua, eta munduac bertze emazteki bat idurikitzen zuen zeruticaco itchurapen harrec izaiteco bere conplitze osoa. Huna Jaincozco iguzkia, eta ilhargi misteriozcoa hari die-nac Joseperi bihurtzen, bere Buruzagiari bezala, errespetzco ohore suerte

(1) Vidi per somnium quasi solem et lunam et stellas undecim adorare me. (Gen. 27.)

guziac ; eta segurki erran daitake Profeta batekin : *Iguzkia eta ilhargia baratu dira haren etchean* (1). Nazaretheco etche pobrean, Jesus eta Maria bethi errespetuz betheac, bethi obedientac izan dira Joseperen kheinuric mendrenera : aintzineco meditazionean ikhusi dogu nolacoa agertu den Jesusen egiteco moldean San Joseperen alderat ; dugun ikhus orai Mariarena nolacoa izan den. Artharic chehenarekin bethe izan diozca emazte berthutosac bere senhar onari zor diozcan eginbide guziac. Zer obedientzia, zer errespetua ez diozca ekharri esposetan den sainduenac esposetan daitaken berthutosenari eta sainduenari ! Bazakien, Birjina miragarri harrec, Aita eternalac bere semea Joseperi confiatu zioen bezala, lurrean aita orde baliatzeco, orobat bera ere ezarri zuela saindu beraren gidamenaren azpico ; hartaco ere behatzen zioen bere esposari bere aitari bezala, eta zerbitzatzan zuen osoki haren azpico izan balitz bezala.

(1) Hab. c. 3.

Guzietara prest dago Joseperen erra-
nera : Josepec nahi du joan daoin har-
rekin Bethelemera . Maria lothzen da
berehala bideari; erraiten dio hardezala
haurra eta dohan barrekin Echiptorat,
Mariat hartzen du haurra besoetan eta
phartitzen da; Josepe badago zazpi
urthe paganoen artean. Mariac ez dio
hitz bat ere erraiten; Josepec manat-
zen du Echiptotic phartitzea, Judeara
bihurtzeco, Maria jarrikitzen zayo hu-
milki eta batere arraucuratu gabe, ez
du jelsiarie ere zeren ceruac Joseperi
eman dioen preferentzia, eta huni
igorri dioen aingerua bere manuen
emaiteco. Bada, zer erran noiz eta ere
ikhusi baitzuen Jaincoaren Semea bera
errespetatzen bere aita bezala, zerbit-
zitzen bere nausia bezala, eta entzuten
bere erakhastailea bezala. Ez da hitzie
erakhasterat aski eman dezakenic
exenplu horrec, Maria Birjinaren bi-
hotzean, nola emendatu zituen san
Joseperen alderat jadanic berac zituen
estimua, errespetua eta amodioa; gau-
za guzietan jartzen zangon hobeki sehi
bat bezala ezin ez espos bezala : pre-

paratzen zihozcan behar zituen guziac, zerbitzatu zuen mahainean, berac errebelatu dioen bezala santa Bricitari (1) eta bertze lekhu batean erraiten deraucu : *humiliatzen nintzen zerbitzuric aphalenac egiteraino.*

H. PHONDUA. Holacoa izan da Jaincoaren ama miragarriac lurraren gainean Salbatzailearen aita ordeari bihurtu dioen ohorea. Bainan, hortaz bertze alde, zerutic beretic, eta loriaz distirandagon bere tronuaren gainetic, aphaldu da, erran baditake, continatzeraino bere homayac, gonbidatuz lehiarekin girichtinoac, errespeta dezoten bere espos garbia (2). Haren manuz, Herman premontreac sanjatu zuen bere izena Joseperen izenera (3). Harrec manaturic oraino, Naplesen, esclabo moro

(1) Non dedignabar parare ac ministrare quæ erant necessaria Joseph, et mihi ipsi. Rev. l. vii. c. 35.

(2) Nos allicit diva virgo ut sponsum ejus veneremur (Hieron. Guadalup. in c. 2. Luc.)

(3) In ejus vitâ, cap. 6.

batec hartu zuen batheyoan izena Josepe (1). Harrec berac, ezagutzaz, santa Theresac Joseperi izan arazi zioen loriarentzat, nahi izan zuen jauxi bere tronu goratic, saildu haren saristatzeco, emaiten dioelatic present bat guziz aberaxa eta baliosa (*in ejus vitâ, cap. 6*).

Orobat, Birgina sailduac ideki zuen zerua santa Gertruderen begietara, huni erakhusteco zoin den handia haren espos sailduaren tronua inguratzen duen loria. Erran zioen, bertze alde, Joseperen izen choilaren aiphamenera, zeruco dohaxu guzic errespeturekin burua aphaltzen dutela, harri ohore emaiteco (2). Nolacoa ez da beraz behar izan gure deboziona Josepe loriosaren alderat?

Othoitza

Patriarkha loriosa, abuspez emaiten naiz, ni ere, errespeturic handienarekin zure tronua oinetan. Orai be-

(1) Surius. (17 april).

(2) Revel. l. iv. c. 12

retic bat egiten naiz Birjina sainduarekin eta zeruco dohaxu guziekin, heyc bezala zure ohoratzeco. Conxecratzen naitzazu naizen gucia ; izazu nitaz arthene bizon eta bereziki ene heriotzeco orenean, zeruan zure laudatzeco gaitan nadin eternitate guzian.

Pratica

Imita zaitzu Jesusen eta Birgila Sainduaren exenpluac san Joseperi bihurtu diozcoten ohorean, eta cherkha zazu Jesu-Cristo imitatze lorios hortaz. *Nahi baduzu Jesus causitu*, dio Origenec, *bilha zazu Josepekin eta Mariarekin.* (*hom. 18. in Luc.*) Izazu kharaban saindu handi horren potreta. San Franxesec etzuen bere brebiarioan san Joseperen potreta baicen.

Exenplua

Lurraren gainean ez da san Joseperen egiazco iduria duen Potretic. Segidaco exenplua baliatuco da denbora berean saindu haren alderaco confidentzia gure baithan sor arazteco, eta haren beitharteaz eta tretuez idea bat

guri emaiteco. Evenplu hau frogatua izan da eta ezagutua egiazcoarentzat.

Lionen, ursulinen priorea, deithua aingeruen *Joana*, eritu zen lanjeroski. Gorphutzeco sendimendu guziez gabe-tua, azken haxaren emaitera zohalaric, ikhusi zuen san Josepe, bethi danic bere laguntza bereziaz fagoratzen zuena, ekhartzen zioela escas zuen socorria. Oi! cer ikhuspen agradagar-ria! haren khanbara jarri zen casic zeru baten pare; ikhusi zuen agertzen hedoi argi arin bat, zeinaren escuinean beitzagon gizon gazte eder bat ile luze eta hori batekin, zaucalaric escuan argi bat begiac liluratzen zitena bere arrayo churi dirdirantez: hura zen ha-ren aingeru begiralea. Bertze aldetic ikhusi zuen san Josepe, Patriarkha lo-riosa, zeinaren beithartea iguzkia bera beino distirantagoa baitzen, eta haren majestatea naturac dakbarsken ederta-sun guziez goragocoa. Bere adin eder-dera heldu gizon baten airea zuen; haren ileac distirantac ziren, izan gabe churiac. Sainduac behatu zioen majes-tatez eta eztitasunez bethericaco be-

giez : eriaren ohera hurbildu zen, pausatatu zioen escua oinhazeric eta minic handiena zuen lekhuari, eta zeruticaco licur bat harat ichuriric, perfeki sendatu zuen. Athera zen ohetic, eta joan zen miricuaren aitzinera ; hunec hiltzat zaucan jadanic, berac aithortu duen bezala. Miraculuac etziren horietan baratu ; ezen, serora harrec, miraculuzki sendatua, senditu zuen bazuela unitasun bat sainduac licuraz gantzatu ziren tokian ; chukhatu zuen alderdi hura, eta ohartu zen unitasun harrec bazuela usain on bat, ezin gehiago agradagarria, zeina lotzen beitzangoten medailei, potretei eta arrosarioei, umidura hura hunkitzen zutenean. Bertze hainitz miraculuzco sendatze obratzen zuen oraino, zeinez ez baita hemen aiphu beldurrez luzegi izan. (*vid. Paulum de Berry. c. 12.*)

Bihotz altchatzea

Jesus, Maria eta Josepe, emaiten darozkitzuet ene bihotza, ene izpiritua eta ene bizia

J. M. J.

HIRURGARREN EGUNA.

San Josepe hautatua izan da Maria Birjinaren Espostzat, zeren Saindutasunean gehienic beitzen haren idurico.

I. PHONDUA. *Maria jadanic izpiritu sainduaren Esposa zen, berthuleric gorenez bethea, noiz eta ere Trinitate adoragarriac nahi izan beitzioen eman bertze esposbat, lurraren gainean, haren Birjinitatearen lekhuco segur eta goardatzaile leyal izaiteco, eta Izpiritu sainduaren berthutez contzebitu behar zuen Seme Jaincoaren aita orde baliatze-co. Espos dohaxu hura da San Josepe. Birjina sainduac hamalau urthe zituen orduan, uste communaren arabera (1), eta aphezec comeni zela jujatu zuten tenplotic iragan zadin bere aitaren elcherat, zeren uste izan beitzuten ezcontzeco*

(1) Vide Bened. xiv. l. 2, de fest. c. 2.)

adinean aurkhitzen zela (1). **Hori** adita zueneco, **Birjinic**, ordu artean egundaino entzun etzen exerpluaz, errefusatu zituen ezconzeco phartituric hoberenac, eta agertu zioten aphezei aspaldidanic egina zuen botua, bethierico garbitasunaren begiratzeco, lehen denboretaric errana den bezala. **Niseneco San Gregorioren arabera** (Orat. de Hum. Christi general.). **Norc erran dezake nolacoa izan zen** -Aphezen mirescuntza aditzearekin gauza bat berria eta hoin espantitzeco; eta nolacoa etzen izan heyen duda ez jakinez zer egin? aldebatetic, ikhuzten zuten etzezaketela escon araz, bethiereco **Birjinitatearen botua dela causa**; eta bertze aldetic, pentxatzen zuten etzangotela zilhegi, legen arabera, senhar bat gabe uztea. **Zer egin zuten beraz enbrazu horian?** hartu zuten phartitua, (ez zeruco argiric gabe,) emaiteco **Birjina** espostzat haren ahaidetaric bati zeina izan baitzitaken haren **Birjinitatearen**

(1) Ut domum adulta reverteretur, et nuptiis secundum morem generis, et ætatis maturitatem operam daret. (S. Jerom.)

zaintzaleric fidelena. Gelditzen zen orai-
no jakiteco nor zitaken hoin merezi-
mendu arraroco gizona, eta bertze alde,
Jaincoac berac berezia zukena, hain
Birjina saindua espostzat eta laguntzat
izaiteco. Guziac abisu huntaco izan
ziren: othoiztuko zutela Jaincoa; berac
zerbeit miraculuzco seinalez erakhux
zezan bere borondatea, San Germanec
marcatu deraucun beçala. (Orat. de Virg.
oblacione.)

Aphezac, dio San Jeromec (Lib. de
ortu virg.) temploan elgarrenganat bil-
duac, kharxuki othoitzean zauden den-
boran, aphez handiac ekhar arazi zituen
Mariaren ahaidetarie hamabi; eta
galde hori kharrekin egiten zioen den-
boran Jaincoari, aditu zen aldaretic
boz bat zeinac baitzioen goraki: hau-
tatu behar zutela Birjinaren espostzat
haina hura, zeinaren makhila, aldarea-
ren gainean pausatua, loratuco beitzen,
eta zeinaren Buruaren gainean pausa-
tuko beitzen uso bat zerutic jauxia. Hori
da presiski gerthatu zangona san Jose-
peri, zeina beitzen ethorkizunez **Iabiten**
familiaric.

Zer laudorio handigorie egin daiteke San Josepez, erraitea beino zeruac hautatu duela Maria, Jaincoaren amaren espostzat? Zer behar ginuke gehiago gure baithan sustatzeco saindu lorios horren alderaco debozionea?

II. Ahal bezen batean, behar laiteke cherkhatu, beren bizicotz elgarrentzat jartzen diren senhar emazteac, izan ditāñ caraterez eta omorez elgarren iduricoac. Bada, Jaincoac hola egin zuen Mariaren eta Joseperen ezcontzan : sortzez eta fortunaz, perfekhi higuac ziren, biac erregen arrazatic, eta biac pobreac, elgarren omoreac ere iduricoac ziuzten, eta baldin Maria. Jaincoaren ama izaiteco creatua, gradoz sainduago bazen, ez da dudatic Joseperen Saindutasuna harrenetic hurbilena zela, hautatua zenaz geroz Aita eternalaz lurrean bere Seme gizon eginaren aita orde baliatzeco. Nahi badugu merezitu Mariaren eta Joseperen amodioa, ahalaz euxeia gaiten, gure bizi moldeaz, heyen idurico izaitera, eta segurki ardiexico dugu heyen arar-

tecolasuna eta heyen amodioa. Ez gaiten urrun ibil heyec eman exenpluetaric, zorigaitzetan egin garen bezala orai artean : hec saindutasuna bera ziren, eta gu bizioa bera; hec berthutez betheac, eta gu gaichtakeria guzien bilduma. Hulaco biziaren ondotic nola iduric dezakegu heyen laguntzaren izaittea gure hagonian eta gure heriotzeco orenean. Ongi eman dezagun beraz go-goari zer zaucun geldiizen egiteco.

Othoitza.

Birjina Saindua, ene ama ona, eta zu san Josepe, ene bihotzeco aita! Ene erresoluzioea hartua ja. Badakit ongi hiltzecotz, ongi behar naizela bizi. Behar naiz beraz biziz kharbiatu, nahi badut heriotzean izan zuen laguntza baliosa. Bainan nola erreu-i? Zuec hartuz ene modeltzat eta imitatuz zuen bizi saindu eta berthutosa. Zuec zarete Jesu Cristo, zuen semcaren eta zuen nausiaren copia perfetac. Zuen exempluac segituz, segur naiz hurbilduco naizela haren eta zuen ganat. Hortacotz, zuen laguntzaren beharra badut;

egizue, ardura bizian gogoz zuekin crabiliz, aurkhi nadin zuekin ene heriotzeco orenean, eta eman dezadan azken haxa zuen escuetara diodalaric *Jesus, Maria eta Josepe, emaiten darozkitzuet ene bihotza eta ene arima.*

Pratica.

Ihes egiozu bekhatuari eta bekhatuco ocasioneari, bethi jarric zaite berthuteari, eta bereziki Birjina sainduac eta san Josepec gehienic maitatu dituztenei : humilitateari eta garbitasunari, ardura aipha zaitzu eta bereziki zure tentazionetan izen sacratu hauc : *Jesus, Maria eta Josepe.*

Exenplua.

Aita Gaspard, deithuraz *Poon*, minimen ordreco fraideac, bethi mihian zituen *Jesus, Maria eta Joseperen* izenac; bihotzean zauzcan continoki. Hasten eta akhabatzen zituen bethi bere pederieu guziac izen adoragarri horietaz. Heriotzeco mementoan, nahi izan zuen bere ingurunetan zituen aneya fraideec erran zitzaten harrekin aldizca jain-

cozco izen horieci, horiez egiteco. zioen, soinu gozo eta agradagarri bat, eta ezlitzei hagoniaren khirestasuna, eta haren heriotzea baliosagoa bilhacatze-co. Hala izan ere zuen, ardiexi zuen desiratzen zuena : descaxu handian eman zuen azken haxa aiphatzen zituelarici hiru izen horieci. Holacoa da idurici ditaken fruitua, izan ondoan usantza edo habitura bat hoin laudagarria, eta debozione bat hoin errespetagarria eta hoin saindua.

Bihotz altchatzea.

Jesus, Maria eta Josepe, izan zaitezte ene bihotzaren begi atzaile ene bizian.

J. M. J.

LAUGARREN EGUNA.

San Joseperen gainean conplitu izan da Isaias profetaren errana.

I. PHONDUA. Dezagun ikhus nola izan den bethea Isaiaren profezia san

Joseperen alderat, egina zen hainitz mende lehenago, emanen zayo liburua herxia, letrac ezagutzen dituen gizon bati: huna nola aditzen duten profezia hori san Chrisostomec, eta san Gregorio (Hom. in Isaiam, c. 29). Profeta saindu batec ikhusi zuen liburu bat herxia, alde baterat eta bertzerat zabilana; iracurtzerat emaiteco batean bati, bertzean berzeari. Bainan etzen aurkitzen nihor zakienic iracurtzen, edo iracurzezakenic. Batec ihardesten zuen: ez dezaket iracur, ez ditut ezen ezagutzen letrac, *nescio litteras*; bertzeac zioen: ez dezaket iracur, zeren herxia beita liburua, *signatus est enim*. Azkenecotz, aurkhitu zuten gizon bat zeinari eman baitzioten liburua. Zer ditake liburu misterios hura, eta hain perfeki zigiluz bezala herxia? zer bada berzeric, dio san Chrisostomec, baizen ere Maria notha gabe contzebitua? eta nortaz da emana liburua? aphezez; dudaric gabe; eta nori othe da emana? Joseperi, *cuinam viro?* *Joseph fabro*. Horrec eran nahi du san Josepe dela gizon bat omen handicoa eta extraor-

dinarioa, eta halacoric egundeino ordu artean izan etzena. Zer pribilioc berechten du bada bertze gizon gucietaric? bere birginitateac, garbi eta notharic gabe begiratuac. Testament zaharreco bertze saindu guziac, edo etziren birginac, edo baldin nihorizan bada hala Josepez bertzeric, etzen hala izan, Jaincoari conxecratu zelacotz botuzco birjinitateaz, edo senditu gabe guducaric garbitasun sainduaren gainean. « *Josepe choilac*, erran zioen Birjina sainduac santa Brichtari, *Josepe choilac*, ni esposzat hartu gabe, jakin zuen *Izpiritu saindua ganic*, conxecratua nioela *Jaincoari botuz ene birjinitatea*, eta notharic gabecoa nintzela, bai ene penxamenduetan, bai ene hitzetan bai eta ene obretan. Hortaracotz espos hartu ninduen, *intentzione eta chede choilarekin ene zerbitzari izaiteco eta bere Erreginari bezala niri behatzeco. Horrela nakien nihoronec ere, izpiritu sainduac argituric ene birjinitate loriosa egonen zela osoki perfeta. Jaincozko berthute secretu batez, nahiz izanen nintzen gizon hilcor baten *Esposa*. » Zonbat ez*

da beraz egia, San Josepe, garbitasunez, Birjina sainduaren idurico zela.

II. PHONDUA. Ongi beha dezogun zonbat estimatzen eta ohoratzen duen Jaincoac Birjinitatea. Hunen bidez, emazteki chimple bat alchatua izan da Jaincoaren ama izaiteco ohore ezin gehiagoric goragocora; eta gizon chimple bat izan du alchatua Jaincoaren amaren espos izaiteco dignitate guziz gorāra. Contzebi dezagun ongi Izpiritu sainduac erran hunen egia: arima bat garbia balio eta prezio guziez gorogocoa dela, eta harri deusic ezin comparatua dela, *continentis animæ non est digna ponderatio.*

Nola behatu diozu orai artean berthute horri? zer estimu eginduzu hortaz? zer artha hartu duzu horren begiratzeco, eta baldin egina baduzu botu saindua berthute eder horren gainean, leyal egon othe zaizco bethi? lore miragarri horren churitasuna ez othe da histoa zure baithan, eta hostoac berac ez othe dituzu utzi ihartzerat? zer zorthē dago zuretzat heriotzeco

orenean? Mariac et Josepec maite dute, escriptura sainduaren arabera, lore churi horren usain ona, eta aborritzen dute ordainez. batac nola bertzeac, contraco bizioaren urrin gaichto nardagarria. Nahi baduzu heycu laguntza heriotzean, artharekin bergiratzerat egizu lore maitagarri horren churitasuna, hoin usain onecoa eta hoin delicatua.

Othoitza.

Jaincoaren ama Birjinaren espos loriosa, hautatzen zaitut egun ene Castitatearen begirailetzat. Helas! ardiex diezadazu amodio lehiatu bat bertute zerutar horrentzat, eta indazu contraco bizioarentzat aborrimendu bat handia; lagun nezazu garbitasunaren gaineco guduketan; lagun nezazue continoki, zuc eta zure Espos sainduac, zeina beita amodio ederraren eta garbitasunaren ama; lagun nezazue ene bizian eta heriotzeco mementoan.

Pratica.

Hartzaitzu moyenac oro garbi izaiteco; bereziki goardia emozute zure

senxuei; zaude seguratuá occasionei ihesa, mortificazionea zure jaunduretan, othoítza, sacramenduen hantatzea, artha tentazionetan guducazeco eta bihotza alchatzeco Jaincoari, horiec dira garbitasunaren begiraileac.

Oihu egiozu ardura san Joseperi, eta bereziki tentazionetan. Saindu horri oihu eginic libratu ziren bi haur gazte miraculuzki, garbitasunaren galtzeco irriehcutic, dioen bezala aita Barric. (Obra chume batean, c. 13.)

Exenplua.

Aita Barric ekhartzen du exenplu hau liburubatean (c. 10). Serora osoki jaincotiarbat hartua zen tentazioneric muthirienez bereziki bere meditazionean izpiritua bildu nahi zuenean: hainbertzetaraino nahasten eta trublutzen zangon barnea, non bihotzac, muthiriki eta biolenki guducan jarria, escas egiten beitzioen, eta enultasun handi batera erortzen beitzen, curaya galdua, eta seguratuá bezala ezin ardixico zuela seculan izpirituco libertate preziatu hura, zeina beita Jaincoaren

haurrentzat, bizi huntan, zeruraco bahi eta berme baliosa. Arimaco ahidura hetan, bazohan ihes Birjina saindua ganat bere ama guziz maitea ganat bezala, zerbeit descaxuzgozatzeco eraunxia gogor eta muthuri hetan: *Bar, Birjina saindua*. erraiten zioen, *ez badautazu zeronec nahi eman grazia hori, bederen emaidazu gogora, ene arima tristeziaz eroriaren barnean, zeruan gehienic maite dituzun sainduetaric bat, eta zeinaren ganat oihu egin beitezaket confidentzia oso batekin, haren bidez ardiez diezadanzat hainbertze lehiarekin desirutzen dudan grazia*. Othoitz hori egin dueneco, senditu zuen bere bihotza bozcarioric gozoepeen sartzen eta izpirituco begiez ikhusi zuen san Josepe, Birjina Mariaz gehienic maitatua, bere espos calitateaz, eta bere bertute miragarriez, zeinec ezartzen beitate gai, arima guzien aita eta conxolatzaila izaiteco. *Memento berean jarri zen hain saindu boterexuaren arartecotasunaren azpian, zaina bere proteccionearen indarra, jadanic, frogatzeric emaitetic he'du beitzangon, athera ara-*

ziz bere barneco pena, ahidura eta tristezia gucielaric; eta baldin guduca berriric emaiten bazioten tentazionec, largatzen zen berehala san Joseperen baithan ezarria zuen confientziara, eta bakea sartzen zangon bihotzean, loria-ric eta gozotasunic handiena izan araz iz Jaincoarekitaco batasunean.

Horra nolaco erakhaspena emaiten deraucun Aingeruen erreginac : gure tentazionetan ihes egin dezagula san Josepe ganat.

Bihotz altchatzea.

Jesus, Maria eta Josepe saindu nezazue ene bizian.

J. M. S.

BORTZGARREN EGUNA

Zonbat benediczione ichuri diren zerutic Mariaren eta Joseperen ezcontzaren gainerat.

I. PHONDUA. Ikus dezagun eta ongi har gogoan zoin abundantac ahal

zitazken Jaincoac zerutic saindutasu-
nean hain gora ziren esposen escont-
zara eman zituen benediczioneac.
Baldin Maria graziaz bethea bazen,
bere amaren errayetan notha gabe
contzibitua izantzen phundutic, no-
lacoa etzen izan behar beyen emen-
dazionea Erreguina pare gabeco haren
baitan, noiz eta ere hurbiltzen hari
beitzongon ordua graziaren autorra
contzebitzeco, jadanic perfekki prepa-
ratua, bere Aita zeruan duenaren ama
bilbacatzeco. Zer idurpen etzen behar
Jainco Aitaren eta Ama miresteco
haren artean. *Ezen aita eternalac*, se-
guratzen duen bezala Maria Magda-
lena Sainduac bere errebelazionetari-
batean, *aita eternalac, bethidanic eta*
bethi dakharkelari bere seme Berboa,
*egin dio Mariari grazia guziz miragar-
ria contzebitzeco berbo bera, gizontasuna*
dakharkela. . . hortic eman nahiz bere
creaturari bere amodio mugarri gabe-
coaren frogac. Bada, Aita eternala beita
denbora berean Aita eta Birjina, oro-
bat Maria aurkhitzen da, denbora be-
rean Birjina, eta seme harren Ama.

Othe daiteke iduri bat egiazcoagoric? halaber, zer iduri perfeta etzen behar izan Mariaren eta Joseperen artean, Aita eternalaren eta Josepe beraren artean, zeina zeruaz hautatua beitzen Jainco aitaren ordain lurrean baliatze-co? San Josepec errezibitu dituen grazia nasayetan, miragárriena zen barren bibotza. Sutan eman zuen Jaincozco amodioa: ez da creaturetan bat izan, ez zeruan, ez lurrean, salbu Maria Birjina, doñatua izan denic hoin amodio samurraz, Jaincoaren semearen alderat. Horra Jaincoaz benedicatu escontzaren ondorioa.

II PRONDUA. Bainan, o Jainco handia! ala arraroki aurkhitzen baita egungo escontzetan horrelaco benedizionea! galdegin behar bidean izpiritu Sainduaren argiac, ez da chede edo idea jaudura mundunoric baizen segitzen ez da gero estonatu behar baldin egun oroz deithoratzeco badira nolaco escontzen ondorio gaichtoac, eta zoinen uztarria eta carga izigarria ezin jasanezcoac, baitira hainbertze

senharrentzat eta emaztentzat ! Zu, arima Jaincotiarra, baldin hautatu baduzu Jaincoa zure espostzat, etzaitezela behin ere bara eskerrac amodiozki emaitetic egin dautzun ongi handiaz; zaude leya! eta ihardex zozu Izpiritu sainduac egin datzun graziari; caritatearen kharra ez bedi nihoiz iraungi zure bibotzean ; Jaunaren grazia ez da behin ere nagi eta alfer egon behar ariman, eta harren alderaco amodioa bethi bebar da izan bizia. Dohaxua da erran dezakena Apostoluarekin, bereziki heriotzeco orenean : *Jaincoaren grazia ez da agorra izan ene baithan.* Egia othe da hori erranen ahal dukela oren hartan ? hortaraco abiazaite, bederen orai danic, birjina prudentec egin zuten bezala, caritatearen olio zure untzia bethetzen, etzaitezentzat esposeco salaz campo geldi, birjina alferac guelditu ziren bezala. Azken memento hartan tresoric ezin bilduco duzu zerucotzat.

Othoitza.

Ene Jainco Jauna ! zonbat grazia ez

ditut errezibitu zu ganic, leyal zure alderat, egon nadintzat ene estatuan ! bainan zonbat eskergabetasun ez duzu izan ene aldetic ! barkhatuco othe dautazut ene Jainco guziz misericordiosa ? Badakit ez nukela merezi ; bizkitartean badut esperantza urricalduco zaizkidala Jesus ona ! Zure Amaren eta zure Aita ordearen galdera deuzic ezin errefusatuco duzu : ihes egiten dut heyen arartecotasunera. Plitz zazu ene bihotzean Mariac eta Josepec zuretzat zuten amodio Jaincozco hartaric phindar bat ; harrec garbituco nau notha guzietaric, eta gai ezarrico bizitze eternalari dohazcon aberastasunen ardiesteco.

Pratica.

Atzar aras dezagun gure baithan Jaincoaren grazia eta Jaincoac deithu gaituen estatuan zerbitza dezagun leyalki eta pazientziarekin, egin zuten bezala Mariac eta Josepec. Maria bere espos sainduarekin bakeric gozoenean eta inozentziaric handienez bizi izan zirenelgarrekin, dio cartagenec. (Hom. 4. B. M.)

Bisita zaitzu ardura Birjina eta san Josepe, heyen bidez ardiesteco zure estatuco egin biden ongi bethetzeco grazia, bai eta ere heyen laguntza heriotzeco orenean.

Exenplua.

Benizeco aitoren seme gazte batec bazuen costuma egun guziez bisitatzeco san Joseperen potret bat thinduz egina murru baten gainean; saindu hura agertu zitzayon, heriotzeco orenean, eta argitu zuen hainbertzeta-raino bere bekhatuen gainean, non sarthubeitzen urrikizco sendimenduric bizienetan, eta egin beitzuen confesio bat, bere hoben guziac osoki agoatzen zituelaric. Aphezac absoluzioneco azken hitzac erraitearekia eman zuen azken haxa, eta saindu haren arartecotasunez salbatu zen, ustearen arabera. (*Bolan.*, bere tomaren, 4 phar., c. 10.) Istorio hunc ekharri behar gaitu debotac izaitera San Joseperen alderat.

Bihotz Alchatzea

Jesus, Maria eta Josepe, ene arimac lauda beitzizate ene bizi guzian.

J. M. J.

SEIGARREN EGUNA.

Maria eta Josepe espos sailduen
batasuna.

I. PHONDUA. Mariaren eta Joseperen borondateac hain elgarren iduricoac ziren, non erran beitzitaken etzutela bieci bihotz bat baizic, jadarieci elgarrekin adituac ziren begiratuco zutela bere edertasun osoan Jaincozco birjinitatearen lore miragarria : erreberitu zuten Jaincoaren aintzinean jadanic egina zuten botua : Ustea da ere heyen lehen solhasac izan zirela bakhotchac jadanic berechki Jaincoari egina zioen agintzaren gainean. Urus aditu ahal zuzkena Birjina guziz garbi harren elheac ! nolaco hitzcuntza Jaincozcoez ez ahal zen mintzatu ! zer humilitatea, zer ezlitasuna agertu ahal zuen San Joseperen alderat, harri erakhus-tean hoin erresoluzione saildua ! San Josepec, bere aldetic, nola laudatu ahal zuen bere chedeaz ! eta nola erakuxi ahal zioen zoin guti bere burua gai aurkhitzen zuen horen chedetan eta

haren zorthean partalier izaiteco! nolacoa etzen behar izan izpiritu zerutarren espantimendua, ikhusiz Maria-ren eta Joseperen garbitasuneco bertutea, heyen garbitasunaz goragocoa dela! nahiz aingeruac gorphutzic gabecoac diren, heyen elgarrentzateco amodioac ez du deus garbiagoric izan espos miragarri hauyenac izan duen baino; eta bi espos dohaxu hauyen bakea eta batasuna aingeruec elgarrekin datenen idari perfetecoa da.

II. PHONDUA. Arima Jaincotiarra, ongi emozu goardia, gizona gehienic tormentatzen duena eta batzen duena heriotzeco orenean, dira bere bizian bihotzari utzi diozean amodio likhixaren jaudura lobiac, helas! orduan egiten ditu debruac bere ahal goziac desesperazionean eror arazteco Bizian, errecki enganatzen du gizon lobia, bizio likhixaren ondorioac khentzen diozca begietaric, artharekin gordetzen diozca ifernueco tormenta izigarriac: ixutzen du. Bainan, heriotzeco mementoan, atacatzen du desesperazio-neaz; emaiten diozca bekhatoreari be-

gietarat bere bekhatu guziac, erakhuxiz alderic irigarrienetic, agertuz bere confesioetaco huxac, edo bekhatuac gordez, edo contrizione escasez, eta zorigaitz harentzat, baldin bihotza hartua badu amodio lohiaz! Zonbat exenplu izigarri ezdaucu istorioac emaiten horren gainean? Zer confientzia izan dezake, hiltzen hari denean holaco dohacabeac Mariaren eta Joseperen baithan, denaz geroz bera estalia bizio ahalgegarri hortaco bekhatu suerte guziez. O zu! zeinac gogoan hartzen beittituzu erreflexione hauc, nahi duzu seguratu Mariaren eta Joseperen ararte cotasuna? heyen bihotz garbien pare jarzaite: garbi zazu arima penitentziaren nigarrez, eta amodio likhixetic begirazu zazu zure bihotza: horrela eginez heriotzeco orenean ardiexico duzu heyen laguntza.

Othoitza.

O Espos garbi miragarriac, Maria eta Josepe, lehiarekin nahi zintozketet izan sustengutzat ene bagoniaco orenean; galdegiten dautzuot grazia be-

rezi hori, bizian, zuen bihotz garbiac
bot egin dituen Jaincozco amodio ez-
tiaren bidez. Urricalzaitezte ni bezalaco
dohacabeaz, zeinac zori gaitzetan utzi
beitu mila jaudura lobietarat bere bi-
hotza. Ardiex diezadazuet grazia gar-
bitua izaiteco likhiskeria guzietarie;
egizue aborri ditzadan amodio eta in-
clinazione zikbin guziac; orai artine-
coac oro nahi ditut borriatu urrikiz eta
penitentziaren nigarrez, nahas ez deza-
tençat ene arima beriotzean, eta izan
nadintzat gai, garbitasun saindua begi-
ratzen dutenei, seculan errefusatzeu ez
diozuen laguntza, ene hagoniaco me-
mentean ardiesteco. Hala-biz.

Pratica.

Izazu amodio handi bat garbitasun
sainduarentzat, aborri eta biguin zazu
bizio contrarioa, eta zaude bethi goar-
dian ez uzteco bihotza amodio lanje-
roserat serratzera, urrun zaite occasio-
netarie eta zaude atzarria zure sensuen
gainean.

Baldin gerthatzen bazatzu huxic egi-
tea berthute horren contra, guzien

gainenetic artha izazu zure cofesioa izan dadin atzekiaric gabecoa, osoa eta egiazcoa. Materia horrec egin arazten ditu sacrilioric gehienac.

Exenplua.

Curayastatzeco arima herabeac, ahalgeric gabe cofesatzeco bere hobenac, erori dienean zonbeit hux ahalgegarrietan, huna exenplu bat zerbitzatuco dena bai ahalgearen bentzutzeco, bai eta ihes egiteco San Joseperen arartecotasunera. Aita Berri hari zelaric San Joseperen ohoretan izkiribatcen, ethorri zangon presuna bat erraitera zer gerthatu zitzaion, uzten zioelaric zilhegui ezartzea bere izkiribuan (c. 2) presuna harrec, izan ondoan zorigaitza erortzeco castitatearen contraco bekhatuan, nahiz egina zuen birjinitatearen begiratzeco botua, ezin garbaitu zuen bere ahalgea. egin zuen huxaren agoatzeco cofesorari. Zonbait denboraz gorde zuen bere bekhatua, nahiz contzientziaco harrac oihu egiten cioen, eta burua guzia nahasia zuen. Azkenaz goiti, ezin gehiago egonez estatu har-

tan, hartu zuen erresoluzioea, bere
zori onetan, San Joseperen ararteco-
tasunera heltzeko, ardiestecotzat haren
bidez bere beldur eta ahalgearen ben-
tzutzeko grazia, eta bere bekhatuaren
aithortzeko alimua. Erran zuen bede-
ratzi egunez himno bat bere orazione-
arekin saildu harren ohoretan. Bede-
ratzi urruna etzuen hain laster akha-
batu, non aurkhitu beitzen curayaz
bethea bere ahalgearen garhartzeko.
Joan zen bere cofesoraren oinetara eta
erran ziozcan bere hux guziac, bel-
durric chunecua izan gabe, eta athe-
ratu zen cofesionalitic conxolazionez
bethea. Bere bizi guzian, merezitzeko
San Joseperen izaitea bere ararte-
cotzat, eta bere bihotzaren goardia-
letzat, etzen behin ere baratu haren
ohoratzetic, berekin zabilan haren po-
treta, balia zakiontzat, erredolabat
bezala, bere exai izpiritualen gudake-
tan. Seguratu da saildu lorios harrec
continoki lagundu due'a bere behar
minetan, eta egin diozcala graziatic
berezienac.

Ez dezagun falta guc ere San Jose-

peren ganat oihu egitea, bereziki garbitasun sainduaren contraco gauduketan.

Bihotz altchatzea.

O ene esperantza gozoa ene bizico guduketan, Jesus, Maria eta Josepe.

J. M. J.

-ZAZPIGARREN EGUNA.

Maria eta Josepe, bi esposen othoitzetaco batasuna, munduaren erospenarentzat.

I. PHONDUA Ikhos dezagun Maria eta Josepe bi espos saindu hauyen bihotzetaco batasuna; bata nola bertzea caritate beraz hartuac dira ikhustearekin munduaren estatu deithoragarria, eta dakitelaric niec Jesu-Cristoren ethortzeco denbora hurbildua dela, gizonen erosteco. Lehiarekin desiratcen zuten Jainco eternalaren Semea jaux zadin lehen bai lehen zerutic lurrera. Baldin lehen denbore-

taco Patriarkhec, baldin Profetec,
baldin arima Jaincotiarrec oihu egiten
bazuten bere caritatearen kharrean :
*Noiz aphalduco dituzu zeruac, eta
jauxico zare gu ganat.* Nolacoac etzi-
ren behar izan hortaraco Mariaren eta
Joseperen de-irac eta galdeac ? Evan-
jelioa erakhusten deraucu nolacoa izan
zen Simeon zaharraren bozcarioa,
Izpiritu Saindua ganie aditu zuenean
etzela hilen ikhusi gabe salbatzailea.
Izan zuenean zori ona Jaincozco haur
hura ikusteco bere besoetan, bere
bozcarioan, oihu egin zuen : *Orai,
utzico duzu, Jauna, batean hiltzera
zure zerbitzaria, ene begiec ikhusi du-
tenaz geroz, zure hitzaren arabera,
igorri daucuzun Salbatzailea.* Gauza
bereco zituen Ana profetesac tenploan
egiten zituen othoitzac, bere barurac
eta mortificazioneac. Bada, baldin ho-
laco desiratze biziac sustatzen bazituen
Jaincoac, bai gizon zahar baten bi-
hotzean, zeren behar zuen besoetan
hartu Jesus haurra, bai emazteki zahar
baten ariman, hautatua zelacoan Me-
siaren sortzearen berria populuari

emaiteco, cer erran daiteke Maria Birjinaren desira kharsuez, bakharra bere amatzat Jaincoac hartu nahi izan duena, eta Josepe Sainduaren gutizia lehiatuez, zeina zeruaz berezia izan beita Jesu-Cristoren Aita, haztaile eta goardiari izaiteco? Bihotz batzu ziren sutan zaudenac Jaincoaren eta lagun proximoaren amodioaz, eta etzen egundaino ikhusi, ez da ikhusico ere seculan heyen parecoric. Nolaroac etziren beraz behar izan heyen desirac eta lehia, ikhustearekin gizonac aurkhitzen ziren beharrezco eta miseriazco estatua, eta hartarie atheratze-cotzat zuten beharra libratzailearen izaiteco. Horrec ekhartzen zituen lehia bizi batekin oihu egitera, bere arbaso sainduetarie batec egiten zuen bezala: *Jauna laster egizu zure misericordiaz gure laguntzera. Zer lehia Maria eta Josepe baithan Mesias ethortzen ikhusteco! Zer bozcarioa etzuten izan aingeruac ekharri ziotenean berria Berbo eternala ethortzera zohala! Ez da izpirituric hori contzebi dezakenic, ez hitzcuntzaric erran dezakenic!*

II. Ongi gogoan har dezagun, eros-
taile bezala ethorri den Jesus hori
bera, ethorri behar dela juge calita-
tean. Bada, horren ethortzea gutizia-
tzen dutenetaric othe zare, ala ezda-
din ethor nabi luketenetaric? Zori
gaitz zuretzat, honela bada! adi zazu
zer dioen Jesu-Christoc: *Zaudete goi-
tean dauden zerbitzariac bezala, noiz
ethorrico zacoten ezteietaric bere nausia;*
*eta certaco? ethortzendenean eta joiten
duenean bortha, idec dezozuen berehala.*
Nausi hura, dio san Gregorioc, da
Jesu-Cristo, heldu denean bakhot-
chari bere jujamenduaren emaitera;
joiten du bortha eritasunaren tormen-
tez, eta horrela abertitzen gaitu herioa
ez dela urrun. Idekitzen diogu plaze-
rekin, baldin maiteki eta amodiorekin
errezibitzen badugu: ez luke ezin
ideki nahi bere jujeari, heriotzearen
beldur denac, dakienac meziprezatu
duela, bere baithan, nola bere ma-
nuetan, hain botherexua eta hain izi-
garria duen jujea. Khondatzeco duenac,
contrarat, bere obra onetan, zeinac
baitira esperantzaren zimendua, ide-

kitzen dio berehala plazerekin bortha bere jugeari, erran nahi da Jesu-Cristori, zeinac joiten beitió. Hori ikhus ten da hainitz sainduen bizian, zeinac, bere heriotzeco orenean, lorian beitzauden, hainbertze tentazionen ocasionea den gorphutz huntaric athe-ratzeaz, eta bethicotz izaiteaz Jesu-Cristo bere salbatzailearekin. Hemen serioski sar zaite zure baithan, eta goardia emazu nolacoac izanen diren zure sendimenduac oren latzgarri hartan. Egin othe duzu zure bekkatuen araberaco penitentziaric? baduzu izaiteco esperantza? desiratzen duzu, maite duzu ethor dadin zure jujea? nahi duzu bethicotz izan harrekin? juja zazu ethorkizunaz orai duzunetic.

Othoitza

Ene Jesus maitagarria, ene erostai-lea, ene bekkatuac nonbreric gabe-coac dira, eta hetaz egin dudan penitentzia deus eza beino gutiago da, ene obrec lazten nautc, eta ikharan ezartzen nau zure jujamendura agertu behar naizelaco orhoitzapenac. Zer

bada, utzico othe naiz deseparazione-
ra? Ez Jauna, zure misericordian
fidatzen naiz; eginen dut penitentzia,
eta correituco naiz, ongi prepara nadin
heriotze on batera. Zuen ganat heldu
naiz, zu Birjina notha gabecoa, eta zu,
San Josepe loriosa, Jesu-Cristoren
aita ordea, ardiex diezadazuet ene che-
detan fincatzeco grazia, ez nadin loxa-
tua izan ene jujearen aintzineran ager-
tzeco mementoan; desira dezadan,
contrarat oren hura bekhaturaco lan-
jeren akhabantza bezala, eta bethicotz
Jesusen amodioa seguratzeco bidea
bezala. Hala-biz.

Pratica.

Bizi gaiten bethi heriora prepara-
tuac, Jesu-Cristoc manatzen daucun
bezala bere Ebanjelioan: *Zaudete bethi
prest, zeren gizonaren Semea ethorrico
beita, gutienic uste duzuenean.* Beha
zazu San Joseperi zure aitari bezala,
eta hala ohora eta errespeta zazu.

Exenplua

Ahizpa Pudenziana zagnoni, Fran-

zizcanoen ordenaco serora guziz oho-
ragarriac bazuen San Joseperen alde-
rat debozione eta errespetu handi bat,
eta ardiexi zuen haren ganic grazia
bat, heriotzeco orenean, ezin gehiago
desiratzecoa. Saindu lorios hura ager-
tu zitzaion, eta bethe zuen conxolazio-
neric gozoenez bere bitziaren azken
mementoan. Hurbildu zen harenganat,
ekhartzen zioelarie bere besoetan
aingeruen bozcarioa eta Parabisuco
loria egiteu duena, erran nahi da,
Jesus haurra. Ez da hitzcuntzaric era-
kbux dezakenic nolaco zorionaz eta
plazerez hondatua bezala jarriziren
memento hartan Pudenzienaren izpi-
ritua eta bihotza Aski da erran dadin:
dolorezco eta penitentziaco etzantza-
ren gainean zagon eriaren zorionezco
bozcarioa, hain handia eta mirestecoa
zela, non hunkitu eta harrapatu beit
zituen haren inguruetan zauden se-
rora guzien bihotzac : guziac, berec
ezin erranezco lorietan aurkhitu ziren.
Aditzen zuten zerutar hitzcuntzetan,
batzuetan mintzo zela San Joseperi,
bertze batzuetan Jesus haurrari, es-

kerrac emaiten ziozcatelarie egitetie heldu zainzeon bisita ohoragarriaz, eta sendi arazten zioten bozcarioez.

Haren mobimenduetarie, eta haren beitharteac hartzen zuen loriazco airetie, jujatzeco zen errechki San Josepec, berekin ekharri zioen Jesus haurra, pausatu zuela eriaren besoetan, nahiz hortie serora dohaxu haren heriotzea berearen iduricoa ezarri; bera, oroc dakiten bezala, hil beitzen Nazaretheco etchean Jesus bere semearen besoetan. (*Rec. des Légendes franciscaines.*)

Bihotz altchatzea.

Jesus, Maria eta Josepe, ene mihiac lauda beitzizate ene bizi guzian.

J. M. J.

ZORTZIGARREN EGUNA

San Joseperen trublea, ikhusiz
Maria esperantzetan.

I. PHONDUA. Ikhusteco da San Josepec izan zuen trublea, ohartu zenean

esperantzetan zuela Birgina, bere es-
posa. Bada, presiki occasione hartan
egin zuen, hitz choil batez, Izpiritu
sainduac haren berthute miragarien
laudorioa, orduan ditziratu zutenaz
geroz argi berri eta eder batez; eta
San Josepec ere eman zituenaz geroz,
denbora berean, heyen frogaric han-
dienac eta segurenac. *Josepe justua
zelaric*: horra Izpiritu sainduac pau-
satzen duen zimendua, mintzatu gabe
erraitera dohanaz: *eta ez nahiz deso-
horatu, hartu zuen chedea igortzeco
secretuki*. Holacoa da hartzera zohan
bide miragarria hoin miresteco zen
gerthacarian. Bada, norc erranen de-
raucu, behar bezen ongi, hola egiteco
moldeac berekin zakharken berthuteen
handitasuna? Nihorc ezin egin dezake
hobeki, dudaric gabe, nola bere espo-
sac berac. Entzun dezagun beraz atent-
zionerekin eta errespeturekin, bera da
mintzatzera dohana, huna nola erre-
belatu zioen santa Brichitari, *Josepe,
zeinari ixan beinintzen confiatua, ikhu-
siz, Izpiritu Sainduaren berthutez cont-
zebitua nuen bezala, ene esperantzetan*

izaitea agertzen zela, estonamenduric handienez causitzen zen, bainan etzangon jen suspitcharic mendrena ene garbitasunaren gainean. Pisa beite ongi hitzcuntza habe : Josepe estonamenduric handienez causitzen zen. Latzdura saildu hori ezin ethor zakioken Berbo eternalaren Incarnacioneco misterioaren ezagatzatic bai-zen, hau zen ere arrazoina ez beitzangon jen suspitcharic Birjinaren garbitasunaren gainean, ageri den bezala Jaincozco esposaren segidaco hitzetaric : Orhoitzen zelaric, dio, Profeten erranaz : Jaincoaren Semea sorthuco zela birjina batetaric, etzen gai aurkhitzen holaco ama baten zerbitzatzeco; eta, aurkhitzen zelaric durduzaric handienez, ez jakinez zer egin, barneac etzuen uzten enekin egoitera, eta elzakien zer phartitu zuen hartzeco. Juja daiteke Joseperen fede handiaz hemen erakbusten duen humilitate miragarritic. Istant hartan, erreflecziõne egiten du, Jainco-Gizon egin baten majestate guziz goraren gainean, eta Jaincoaren ama bilhacatu birjinaren dignitate eta

gaitasun ezin gehiagocoaren gainean; bertze alde oraino bere buruaren aphaltasunari eta indignitateari behatzen diote, eta horra zertaco *lothu zangon ikhara saindu bat, eta etzuen gai causitu bere burua holaco ama baten zerbitzatzeco*. Bihotza osoki mugitua, berehala hartu zuen erresolutionea Mariaren ganic sephartzeco secretuki eta ichilic : *voluit occulte dimittere eam*. Eta segurki betheco zuen bere chodea, baldin jen izan ez balaco Aingerua debecatzerá : *Noli timere accipere Mariam conjugem tuam*. Gelditzen da eta badago obedientzia perfetarekin, baina bere ariman emaiten dio gogoari ez gehiago bere buruari behatzeco birjinaren esposari bezala, baina bai Jaincoaren amaren zerbitzari humilbat balitz bezala; hala egin zuen ere bere biziaren azken haxeraino. Birjinac berac segurutzen gaitu hortaz. Santa Brichitarekin aintzina solhasan zagolaric, erran zion : *Memento hartaric, Josepe ez da baratu ene zerbitzatzetic bere erregina soberanoa bezala, eta ni ere, ene aldetic, humiliatzen nin-*

tzangon zerbitzuric aphalenac bihurtzen niozealaric, erakhusterat emaiteco haren azpico izan nahi nuela. Modestiazco guduca ederra, ordu artean ez ezagatua munduan!

II. PHONDUA. Justuaren heriotze ona egin nahi duenac, behar du bizi justua egiten den bezala; bada hortaracotz behar dira praticatu girichtino berthuteac Zori gaitz oro ez dituenarentzat heriotzeco mementoan! Zer baliatuco zayo aberaziosari garbi izaitea? mendecariari izaitea emaile? urguilosac, colerosac, eta edozoin bertze bizioetarat emana denac zer probetchu duke bertze berthuteac izaitea? Zer baliatu zayote Ebanjelioco hamar birginei castitatea, zirenaz geroz prudentziaric gabe? Girichtino berthuteac, baldin perfetac badira, behar dira oro elgarrekin bilduac. Zombat arima ez dira galtzen maluruski, enganatuac berthutearen iduri choilaz. Hortaracotz, begiratu behar gare solido ezden confidentzia guzitic, eta, oraino denbora deno, examina gaiten eya gurekin

diren Ebanjelioco berthuteac oro, nahiz ez guziac grado berean; bi!duma hortaric da ageri berthutearen solidatasuna eta errealitatea. Gure berthuteac, zagun emana, ez badu atchikitzen, ez bada aurkhitzen bere ahizpa guziekin, ez da egiazcoa, falxua da, egin ahal guziac egin behar ditogu solidoac eta egiazcoac bilhaca arazteco : balia gaiten beraz hortaco denboraz eta Jaincoac emaiten dauzkigun graziez.

Othoitza.

Zure oinetan abuspez emana, eta algez gorritua, aithortzen dut, ô Jesus ezitia! ez dudala batere berthuteric, zuhoronec ikhusten duzun bezala. Nola beraz iduric dezaket aitzea zure ahotic, ene jujatzera ethortzen zarenean; zure zerbitzari justu eta leyalei eginen diozuten gonbidantza zori oneco hau : *Zato zerbitzari on eta leyala, sarzaita zure jaun soberanoaren lorian.* Helas! sobera baizen ez da egia iduri dudala bere nauziaren gauic errezibitu zuen thalendua balia arazi nahi izan etzuen zerbitzari alfer hura; hura

beino ore gaichtoago izan naiz, zerbitzatu naiz zuc eman graziez, zu ene bizioez ofenxatzeco. Merechi dut beraz hura beino garrazkiago punitua izaitea; bainan aita on bat zare, urricalmenduz bethea. Othoizten zaitut lurrean zure aita orde izan duzunaren merezimenduez, bai eta Birgina zure amarenez, barka dieza dazkitzu ene hoben guziac, nahi naiz egiazco berthuteari lothu, eta hortacotz hartzen ditut arartecotzat eta modeltzat Maria eta Josepe, hec imitaturic lurrean, partalier izan nadin heyen bethiereco lorian, Hala-biz.

Pratica.

Examina gaiten ongi, eta egun oroz artharekin, zoin berthute dugun escas hautarie : hiru dira teologalac : Fedea, Esperantza eta Caritatea; Badira lau moralac : Prudentzia, Indarra, Justizia eta Sobretasuna. Jesu-Cristoc gehienic gomendatu dauzcu bia, Eztitasuna eta Humilitatea. Ez dezagun begietarie gal Jesu-Cristoc, juje bezala, nola examinatuco dituen gure berthuteac berac.

Exenplua.

Baldin contzientziaren gidari zuhur baten hautatzea bai eta ez bada beharra bada berthuten ardiesteco, zer erranendugu San Joseperen gidamenera jartzen denaz, saindu handi huen arthara confiatuac direnaz geroz arima barnecor guziac, Jaincoac Nazaretheco etche sainduan Birjina Mariarekin, aingeru baten pare, ereman izan duen bizi gorde eta garbiaren saristatzeco. Hori erakhusterat emaiten deraucu segidaco exenpluac. Bazengizon gazte bat munduaren erdian jakin zuena bizitzen, uso garbi bat mendi hegoaldean edo oihanaren erdian bezala. Jesuista batec, errecontraz bezala, aurkhitu zuen; eta nola fraide harrec beitzaraman bizi bat osoki ispirituala; jujatu zuen gizon gazte haren solhasetarie Jaincoac aberastu zuela haren arima Izpiritu-Sainduaren dohainez eta graziez, halaco manera bereziaz eta mirestecoaz, non agoatu beitzuen etzuela egundeino causitu arima bat zeruaz fagoratuagoa, ez eta berthute

miragarriagoez beztitua eta birrigin-
dua. Fraide-hura haiobertzez estona-
tuagoa zen zenbatez ere gizon gaztea
baitzen estatu comunagocoa : sebi bat
zen, eta hala zagona hemezortzi urthe
hartan, behin ere izan gabe nausic
escolatzeco eta sustengatzeco bizi izpi-
ritualeco jakitatean : eta bizkitartean
mintzo zen materia hunen gainean
theologoric jakinxuena bezala. — Frai-
dea ausartatu zangon galdegitera eya
bazuen debozioneric San Joseperen
alderat : *Badu sei urthe*, ihardexi zioen
gizon gazteac, *Jaincoac berac gogorat
emanic, hautatua dudala ene ararteco
berezitzat*. Continatu zioen erraiten
gauzaric gorenac Joseperen sainduta-
sunaren gainean, segurutzen zioeloric
berthute barnecor eta gordeac maite
dituzten arimen egiazco gidaria eta
nausia dela. (*Berri, Jop. Deb.*)

Bihotz altchatzea.

Jesus, Maria eta Josepe, benedica
zazue ene arima bizi huntan.

J. M. J.

BEDERATZIGARREN EGUNA

San Josepe lotzen da bideari Mariarekin, Bethlemera joaiteco.

I. PHONDUA. Ikhus dezagun nolacoa izan ahal zen San Joseperen pena eta enbrazua, jakin zuenean Zesar Augustec eman zuen arrasta, zeinac obligatzen beitzuen bakhotcha joan zadin bere ethorkico herrira, bere izenaren emaitera. Bazakien Birgina, bere esposa, erditzeco egunotan zela. Errefleczioneac egiten zituen bai egiteco zuten bide luzearen gainean : baziren hogoi eta hamar lecoa iraganic : bai sasonaren garraztasunaren gainean : negu bihotza zen : bertze alde, bere pobreziarekin ahalic etzuten hoin piaya handiari lotzeco. Gisa batez nahi zukeyen Birjina saindua etchean utzi descaxuan, bainan nola utz bakharric estatu hartan ; eta, bertze alde, dolu handia izanen zuen ez aurkhitzea munduaren

Salbatzailearen sortzean, zeinaren ikhustea hainbertze lehiarekin desiratu beitzuten patriarkhec eta profetec, aurkhitzen zen casu hertchian, norc erran dezake nola zuken bihotza arrailatua? Bainan justuac ez du nihoitz galtzen curaya, alchatzen ditu begiac zeruetarat, handic argitua izaiteco; egiten du erreflecione obedientzia dela berthutea bertze guzien bermea; eta orhoitzen da, Escritura sainduen arabera, Mesias Bethelermen sortu behar dela, aski da, hartuco du berekin bere espos maitez, eta humilitateric eta errespetic handienarekin agertuco dio bere erresoluzionea. Birjina ezti eta maitagarria erortzen da bere esposaren borondatera, den mendreneco bortcharic gabe, sobera urusa estimatzen duelatic bere burua pharte harziaz piaya hortaco penetan, eta bere errai garbietan zakharken Jaincoaren manuaeren bethetzeaz. Bere pobrezian, egiten ditu phartitzeco preparuac, hartzen du linja pochi bat eta zonbeit mandilla, Bethelamera ethortzen denean, sortu behar den Jainco

haurraren thorochatzeco beharco dituenac. Bere paketa chumea harturic, lotzen dira bideari bi esposac, munduac zituen bi creatura perfetenac. O, ikhugari mirestecoa ! egin zinu en dudaric gabe zeruaren beraren espantimendua !

II. PHONDUA. Badugu guc ere piaya luze bat egiteco : hura da eternitatecoa. Phartitzeco manua (aski urusac bagare izaiteco) aphezaz emana izanen zaucu asken orenean, erraiten dautularic : Pharti zaite mundu hanturic, arima girichtinoa, *Proficiscere, anima christiana, de hoc mundo.*

Penxa dezagun orai nolaco sendimenduac dauden guretzat oren latzgarri hartan. Orduan gogoaraco zaicu halaco piayac ditben penac eta lanjerac. Iragan bizico bekhatu guziac ethorrico zazu memoriora, lazduraric izigarrienera arima aurdikitzeo. Debruec, gure bizian, gure baithan ezagutu dituzten flakezien arabera biolenki atakatueo dute gutaric bakhotcha heriotzeo orenean. Badu laster sei mila

urthe, dio san Ziprianec (1) debrua guducan hari dela gizonaren contra eta esperientzia luze batec erakhuxi dio colperic segorenen ekhartzen. Zorigaitz preparatua eta atzaria ez dagonarentzat. Jainco handia ! zonbat arima ez du iresten ! atzartasunekin bethi guducatoz gerlari abilac jar gaiten, bentzutuco dugan heriotzeco guduca ikharagarietan.

Loriaco khoroa ez da emaiten curayoski garbaizia ereman artean, guducatzen duenari baizen. Baldin guducatu eta bentzutu badugu bizian, Mariaren eta Joseperen laguntzarekin batean ; guducatuco eta bentzutuco dugu gare heriotzeco orenean

Othoitza

Bai ene Jainco Jauna, zure grazia sainduarekin batean, ekharria naiz borthizki guducatzera, tentazione guziei

(1) Sex millia annorum complentur: ex quo diabolus hominem impugnat. Omnia tentandi genera, atque deijciendi artes, usa ipso vetustatis edidicit.

ihardokitzera, continoki goardian egoi-
tera ene arimaren exayec enplegatuco
dituzten artifizioen contra. Ongi exa-
minatuco ditut ene flakeziac, ene jau-
durac bereziki, hauyec eman lezoke-
tanaz geroz ene exai cruelari harmaric
segurenac ene azken orenean. Jauna,
argi nezazu zeronec, ezagut ditzadan,
debruaren artifizio guziac, eta emadazut
indarra ene guduetan garhaizia eremai-
teco. Eta zuc, ene Jaincoaren Ama, zuc
Patriarkha loriosa, othoitz zazue zuen
Jainco Semea enetzat, grazia preziatu
hori eman dizadantzat bereziki dem-
boratic eternitateraco pasayan. Halabiz.

Pratica

Ez seculan egin amor tentazioneari,
bainan ihardoki dezogun curayarekin
bethi. Ez aithor seculan debruari erori
arazi zituela, bainan guduca zaite en-
heatu gabe, ardura gogoan, bai eta mi-
hian erabilatzu izen sacratu hauc :
Jesus, Maria eta Josepe.

Exenplua.

San Joseperen arartecotasuna guziz

botherexua da garbitasunaren contraco-
tentazionetan, zeinac beitura liluraga-
rienac eta lanjerosenac. Milaca ekhar
daitezke exenpluac, bainan hemen aski-
co da behereco hau, harua Carmeletaco
ordrearen historioan :

Perpignango comentuan, berthute
handico eta garbitasun berezi bateco
fraide bat, izan zen gau batez bortbizki
atacatua izpiritu gaichto lohiaz. Fraide
baren guducac debru lohianen contra
iraun zuen gau guzia. Tentazionea izigar-
rienetarie zuen : enplegatzen zituen
bere ahiduran, ahal zituzken moyen
izpiritualac oro ; azkenecotz garhaizia
ereman auen. eta Jaincoari eman zioz-
can eskerrac egin zioengraziaz. Bi hara-
munean, fraide garbi hura zohalarie
hirira bere comentuco buruzagiarekin,
aintzina ethorri zangoten aire guziz
errespetagarrico gizon bat, zeinac erran
beitzioen tentatua izan zen fraideari :
Aita, zertaco jasaiteco izan duzu gu-
dudan, eta aurkhitu lanjer hertchian
joan den gauan, etzare orhoitu San Jo-
sepez, eta ezduzu galdatu zure lagunt-
zera ? edo bederen zertaco ezduzu egin

othoitz bat haren ohoretan, lagun zaintzan amorea gatic eta defenda izan duzun tentazione muhirian? Fraidea, trublatoa, ikhusteaz haren bihotzeco secretua ezagutua zela, nihori deusic erran gabe, ihardestera zohan; baina aire errespetagarrico gizona ixasi zangoten betbetan. Orduan, conpremitu zuen errechki gizon errespetagarric hura etzaitekela betzeric izan San Josepe bera baizen, zemaac lakhet baitu oihu egin dezogun eta galda zogun bere laguntza ezta, bereziki aurkhitzen garenean irrichuan garbitasun sainduaren colpatzeco, berthutea zemaac egiten baitu san Joseperen carater berezia. (*Chron. carmel.*, 1. 4. lib. 18.)

Bihotz altchatzea

Jesus, Maria eta Josepe, egizue garbigon nadin bizi guzian.

J. M. J.

HAMARGARREN EGUNA

Josepe eta Maria Bethlemen

I. PHONDUA. Ikhus dezagun San Joseperen enbrazua bide luze eta nekharri baten ondoan, ethorri zenean bere espos maitearekin Bethlemera, eta ezin aurkhitu zuenean, ez ostatu bat, ez etche bat non sar hiri hartan. Penxa dezagun nolaco bihotz mina ahal zuen, ikhusten zuenean ezin zezakela izan atherpe bat gauaren pasatzeco Jaincoaren amarentzat, zeinari hurbildua beitzangon erditzeco mementoa.

Helas! norc erran bihotz on eta guziz samur haren dolorea eta pena zonbatetarainocoac zaitesken! Zonbat urhax, zonbat ibiltze, bere ahaidetan, bere adichkidetan, ostatuetan, ez ahal zuen egin, causitzeco bederen toki pochi bat, gauaren contra segurean emaiteco bere espos maitea eta hunec erraietan zakharken Jainco haurra! Bainan Joseperen enxeyu guziac alfer-

retan izan ziren. Ostatu publicoetan aurkhitu zuten tokia luculariec, aberaxec, ohoinec bai eta gaschtaguin suerte guziec, hainan ez hetan ez bere abaidetan munduaren Nausiac ezin izan zuen atherperic chumeena. *Et sui eum non receperunt.* Zer bihotz nusiac Joseperentzat! Hala berecoac ziren Maria-rentzat. Bi espos sainduac osoki daude Jaincoaren borondatera, murmurazioneric eta pleinuric gabe ezarzen dira p̄obidentziaren nahira. Arraxean ur-runtzen dira hiri esker gabecotic, eta badohazi atherpe baten cherkha ar-razoinameuduric gabe diren animala-tara, zein atherpe errefusatua beitzayote Jaincoaren idurico creatuac diren gizonez.

II. PHONDUA. Ongi gogoan har dezagun nola Jaincoaren Seme guizon egina, mundura ethortzean, sortzen den haren Jaincozco calitatei eta haren sortze loriosari zohazcon ohoreez, gizonen phartetic, gabetua; nihorc ez errezibitu nahia, eta bere ahaideec berec ezagutu nahi ez duten bezala;

eta hori, guretzat meretzeko eta pre-
paratzeko egoitza bat zeruan gure he-
riotzeco orenetan.

Gure lurreko piayaren azken oren
hura ethorrico zancu bakhotchari, sar-
thuco gare eternitatean. Nola izanen
othe gare errezibituac? Gure bizico
azken mementoan oihu eginen diotegu
Jesusi, Mariari eta Joseperi; bainen
zer izanen dugu idurikitzeo heyen ga-
nic, baldin Bethlemeco jende bihotz
gogorecuen idurico izan bagare pobre
eta beharretan zirenen alderat? ez
badiotegu eman ez laguntzaric, ez ogi
pochi bat, ez beztitzeco arropa bat, ez
atherpe bat. Zembat aldiz, behar bada,
ez diogu herxi Jesu-Cristori berari gure
bihotzeco sarkibidea, bere egoitza han
egin nahi zuen denboran, eta hori,
idekitzen giniotelaric urguiluari, ba-
nitateari, sensucarazco plazerei, be-
khatuari eta debruari. Exai barbaro
horiec causitu dute lekhu gure bihotz-
zetan, eta Jesusentzat, Mariarentzat eta
Joseperentzat etzen tokiric: *Non erat
eis locus in diversorio*. Helas! penxa
dezagun ongi garen estatuari, eta se-

rioski penxa dezagun azken zortheari. Zori gaitz, baldin bihotza hartua badugu hola exayez, eta ez badu Jesu-Cristoc erreginatzen han, nausi soberano bezala bere graziarekin! Eman gaiten heriotzeco orenean nahi ginitazken estatuan, guc uste beino hurbilago dugu, behar bada, memento hura. Ez dezagun denboraric gal, izan gaiten ekharriac bethi prest goaiten egoitera: *Dispone domui tuæ.*

Othoitza

O ene Jaincoa! baldin orai herio solpea emaiten bazinaut, nola causi nindake? Ikhusten ditut, ene baithan, bekhatuac, haurretic hunat, nombrieric gabe eta suerte guzietacoac, eta ez dut egundeino behar bezalaco penitentziaric egin. Zer duket beraz idurikitze-co, baizen ere sententziaric garratzena eta izigarriena. Helas! Jauna ez nezazula ekhar merezi nuken bezala. Bai, ene Salbalzaile oia, emadazut penitentzia egiteco nahia eta denbora. Grazia hori galdegiten derantzut, Mariac eta harren Espos sainduac, zure

sortzeco mementoan, zu bere besoetara errezibitzean, izan zuten bozcarioaren izenean.

Pratica

Egitzu penitentiari dohazcon fruituac, erosiz denbora eta bekhatuac zure amoinez. (*Peccata tua elemosinis redime. Dan. 4.*)

Exenplua

Iracurtzen da Frantziscanoen istorioetan, aboztuaren 21^a Joana Rodrigues, ahizpa ohoragarria, zohalaric, emazteki batekin piaya batean, zerua estali zen hedoi beltzez; Joanaren laguna, beldurra sarthua, ikharan zagoalaric, betbetan seguratua izan zen presuna batez, zeina ontasunic handienarekin ofritu beitzangoten laguntzat, agintzen ziotelarik, orducoaz, uriae etziotela eginen bidegaberik Nahiz zopherna bat egin zuen ikharagarria, etziren halaric ere busti batere, espanituac zaudelarik gauza hortaz, ahizpa Rodrigues ohartu zen San Josepe zutela bere gidari, zeina hartua beitzuen bere

ararteco bereziztat. Solasean egon zangoten emazteki debot hekiei zeruco gauzez, eta joan zen heyekin hec behar ziren lekhouraino, eta han ixausi zangoten chimista bezala. Zer ez da izanen gure zori ona, baldin San Jose-pec gidatzen bagaitu bizico azken mugaraino! Pasionen biolentziac ez gaitu garhaituco; helduco gare tabernacle eternaletarat eta han errozibituac izanen-gare.

Bihotz altchatzea

Jesus, Maria eta Josepe, zaudete ene lagun eta gidari desterruco toki huntan.

J. M J.

HAMEICAGARREN EGUNA.

Josepe, Maria eta Jesus haurra othelacoan.

I. PHONDUA. Ikhusterat egin dezagun nolacoac ziren San Joseperen sendimenduac zori onezco gau hartan, zeintan lekhuco izan beitzen Bethlemeco esta-

blian, munduaren Salbatzaile, Jesus haurraren sortzean. Bere espos Birjinarekin, gogoeta sainduetan bezala, meditazionean sartua zagon, noiz ere Jainco haurteho sortuaren marrachek atheratu beitzuten bere extasetic.

Jainco handia! zer ikhugarrria Joseperentzat! ahuspez jartzen da errespeturie handienarekin, errezibitzen du Jainco haurteho bihacatua Birjinaren escuetarie, adoratzendu, caesaric samurrenac egiten diozea. Zer bihotzeazero sendimenduac Mariaren eta Joseperen artean, hoin memento gozoan! Josepec arkhitzen du bere modela ama miresteo haren baithan, eta ezagutzen ditu errecki zoin handiac dituen bere eginbideac. Zoinac artha gehiago izanen zuen bezala hari ziren munduaren Nausi soberanoarentzat.

Contzebi zagan, ahal badugu, bozcariozco eta dolorezco nahasteca hura, ikhustearekin Jainco haurtehoa, zeinac, zakharkelarie bere beitharteco airean Jaincotasunaren seinale loriosac, nahi izan beitzuen bizkitartean, bertze gizonen haurrac bezala, sortu sofri-

carioen erdian, jasaiten zituolarie Adamen bekhatuaren ondorioac, hotza, dolorea, buluzgorria izaitea. Nihore ezin seculan ongi sendituco du zer sendimendu izan zuten Mariac eta Josepec, ikhustearekin Jainco eternalaren Semea, nolaco estatu humiliagarrian ezararazi duen bere amodioac, gizonen sagoretan Guri dohaucu ahal bezen batean, meditatzea misterio espantagarri hori, eta ongi barna bihotzean sartzerat hartzea, Maria eta Josepec zituzten amodiozco sendimenduac bere zerutar haurarentzat, zeina beitzen, denbora berean, heyen Semea, heyen Aita eta heyen Jaincoa.

II. PHONDUA. Serioski eman dezogun gogoari, baldin horrelaco meditazio-neac ez bagaitu flacoki baizic bunkitcen, ongi estatu tristean gure arima aurkhitzen delaco seinalea dela. Jainco baten mugarri gabeco amodioa, bere mayestate soberanoaren handitasuna gorde arazten dioena; sor arazten duena gizonen azken haur erremusena bezala, nigarretan, sofricarioen erdian,

lasto pusca baten gainean, handie sustatcen gaituelaric bere amodiora, emanec exenplutzat bere ama sainduac, eta Josepe, bere aita ordeac, ekhartzen zioten; horrelaco amodio bat Jaincoaren aldetic ez othe da askico gure bihotzen barrapatceco eta gu erakhartzeco Jaincoaren maitatzera erresalburic gabe, nahastecaric gabe eta kharsuki? Nola idurikitzeo dut laguntzaric den mendrena Maria eta Josepe ganic, ez badut heyekin phar-teric Jesu-Cristorentzat duten amodio suhartean? Ikhus ditzagun, lehen aldico, lurraren gainean, biru bihotzec bat baizic ez egiten, nahi badugu gurea bat izan dadin zeruan heyekin, imita ditzagun ahal bezen ongi gure bizi guzian.

Othoitza

Ez beikit secular gertha, o ene Jesus eztia! Maria, ene ama ona, Birjinetan den garbiena; San Josepe, ene abocat botherexua, ez, secular ez beikit gertha ene bihotza izan dadin hartua zuei comeni etzatzuen amodioaz.

Zuen escuetan ezartzen dut zuentzat baizic bizi behar ez den bihotz hau. Errezibi zazue, eta bethicotz bat egin zuen bihotzekin! Imita beititza ahal bezen perfeki amodioan, bozcarioan, pazientzian, sufricarioetan, erresinazionean, obediencia. Hortaracotz, zure graziaren beharretan naiz, o ene Jaincoa! Haur adoragarria, zu zare grazien ithurburua, errefusa othe dezakezu, galdegiten badatzugu zure amaz eta zure aita ordeaz? Ez, ez da errefusic beldurtzeco, hec bezalaco arartecoen izaiteco zori ona denean. Iguzu beraz grazia berezi hori Mariaren eta Joseperen izenean. Ongi egin horren esker onetan benedicatuco zaitugu eta maitatuco gure azken haxeraino. Hala-biz.

Pratica.

Ahal bezen herxiki junta dezagun gure bihotza Jesusean, Mariaren eta Joseperen bihotzekin. Ardura ihes egin dezagun familia sacratu, Jesus, Maria eta Josepe gana, bihotz alchatze laburrez.

Exenplua

Aita capuchinen istorioac ekhar-
tzen du Pistoeco Jerome fraide ohora-
garria, phartitu ondoan Errumatic bere
aneyá batekin Candiara joaiteco Aita
Sainduaren manoz errebelatu zela
gauaz Beniseco ingurunetan; biac bi-
deco onhaduraz borthizki akhituac,
eman ziren belhaunica, eta galdegin
zuten Jesus, Maria eta Joseperen la-
guntça; Jerome fraideac bazuen debo-
zione handi bat familia sainduaren-
tzat, eta othoiztu zituen lagun zitzaten
hain behar herxian. Ikhusi zuten hain-
bertcenarekin argi handi bat; abiatu
ziren alde hartarat, eta bide labor ba-
ten ondoan laster causitu zuten etche
tipi bat hiru presuna choilekio, gizon
zahar bat, emazteki bat eta haur gazte
bat: hirurac ezin gehiago ederrac. Er-
rezibituac izan ziren eta arthatuac ezin
erran bezen ongi caritateric handiena-
rekin. Bihamunean jaiki zirelaric bi-
deari lotzeco, anrkhitu ziren sorho
baten erdian, eta behatuz alde baterat
eta bertzerat, ezin deusic ikhusi zuten

hain ongi errezibituac izan ziren otche-
tie; hortie jujatu zuten heyen errezi-
bitzaileac behar zirela izan Jesus, Ma-
ria eta Josepe. Etzioten faltatu esker-
ren biburtzea hoin fagore miragarria-
rentzat. Zer socorri ez da idurikitze-
co hiru presuna zerutar horietaric ?

Bihotz Alchatzea

Jesus, Maria eta Josepe zaudete be-
thi enekin ene laguntze-co.

J. M. J.

HAMABIGARREN EGUNA.

Artzainac badohazi Bethlemengo
establiara.

I. PHONDUA. Ikhus dezagun Birjina
sainduaren eta san Joseperen bozca-
rioa, ethorri zaincotenean artzainac,
abertituac aingeruez sorthu zela mun-
duaren Salbatzailea, eta zohazin ikhus-
tera eta adoratzera Jainco haurtcho
bilbacatua. Caritatez, sutan zauden

bihotzec behar izan zioten, dudarie gabe, egin axeinezco ongi ethorria artzain chinple, bainan ongui debotac ziren hekiei. Lehiarekin erakhuxi ahal zioten Jesus haurra, torochatua, etzana lasto pusca baten gainean, arimale batzu bilduac zauden establia batean. Bertze alde, nore egin dezake idea bat gizon chinple heyen estonamenduaz, amodioaz, eman zituzten errespetuzco, dobozionezco, adorazionezco seinaleez ikhustearekin Jainco haurtcho bilhacatua? Marca hec hain ziren zinezcoac eta hunkigarriac, non, ebangelistaren arabera, Birjina sainduaren atenzionea merezitu beitzaten (1) eta oraino gehiago dena, bizi izan zeno, bethi go-goan zauzkitzan, eta heyen gainean egiten zituen bere meditazioneric gozoenac. Gordeac zauzkitzan bere arima ederraren barnean; gero, denboran, agerzeco arima leyalen erakhaspeneco eta edificazioneco. San Joseperen bihotzeco sendimenduac, Mariarenac

(1) Maria autem conservabat omnia verba hæc, conferens in corde suo. (Luc, c. 3.)

bezalacoac ziren, guzietan imitatzen zuen modelie perfetena bezala. Horrela ikhusi zuten biec bethetzen Michee profetaren errana (c. 4.) aingeruac agertuco zainzcotela, gau hartan, arthaldearen inguruetan zain zauden artzainei : *Conferens in corde suo*. Mariaren eta Joseperen bihotzac gehiago sutan jartzen ziren, eta loriatzen ziren, penxatzean artzainac ikhusi zituztela adoratzen munduaren Creatzailea lasto pusea baten gainean.

11. PHONDUA. Ongi eman dezagun gogoan nolacoac etziren behar izan artzain urus heyen loria eta estonamendua, bere buruac ikhustean Jesusen, Mariaren eta Joseperen erdian! Hobeki gauza hori jujatzeco, goardi eman dezagun zer lehiarekin khondatzen zioten mundu guziari ikhustetic heldu zirena! Ebanjelioaren arabera, mintzitzen zituzten jende guzietarat iragan arazten zuten bere espantimendua. Zer zoriona beyentzat eausitu izaitea, nahiz denbera gutientzat, hain familia sainduaren artean! Zer orthoitzapen

urusa bere bizi guzian! orthoitzapen zori onezcoa konzolazionez bethe ahal zituena bere heriotzeco orenean!

Nolacoa izanen da gure zorthea memento ikharogarri hartan? Artzainen zoriona handia zen, egia da, ikhustea eta adoratzea Jesus haurra; baina hec beino urusagoac gare, dugunaz geroz haren errezibitzeco zoriona comunione sainduan; eta baldin grazia egiten badaucu, errezibituco dugu, biatico bezala, mundu triste huntaricate ratzean. Goardia eman dezagun, heriotzeco orenean ez dezagun izan erregreta, bizian errezibitua izaitiaz comunioneac errespeeturic, amodioric eta preparazioneric gabe. Prepara gaiten bethi comunionearen egitera, azken aldicotz, biatico balitz bezala: hortacotz, galdegin dezotegun beren laguntza Mariari eta Joseperi, heyeu escuetaric errezibitu behar baginu bezala gure Salbatzailea, eta berec emaiten balaucute bezala artzain leyal hekiei.

Othoitza.

Ene Jesus maitea! ez naizenaz geroz

ni heldu naizena zure ganat, zure adoratzera, bainan zu zarenaz geroz, contrarat, heldu zarena ene bihotzerat; egidazu grazia garbitzeco bihotz hau hemen zure egoitza egin beino lehen, izan dadin zuretzat egoitza bat gaiagoa eta agradagarriagoa Bethlemceco establia beino. Emadazut fede bat artzain saindu heyen fedearekin higuala dena, fede bat atzar arazten duena ene esperantza, eta sustatzen duena ene caritatea, berthuteac bai eta ez bada beharrac direnac zure ongi errezibitzeco ene bizian, eta bereziki ene heriotzeco inementoan. Birjina guziz saindua San Josepe loriosa! ardiex diezadazut, zeronec, grazia preziatu hori, ardiexi zinioten bezala artzain sainduei. Hala-biz.

Pratica.

Egiozu ardura Birjina sainduari bihotz altchaltze hau: bizi huntaco deterrutic lekhora, ardiex diezadazut Jesusen ikhusteco zori ona. Gauza bera galdegiozu San Joseperi.

Exenplua.

Iracurtzen da san Felix, caputchina-

ren bizian; hiltzen hari zelaric probezia-
ric bandiena marcatzen zuen ohe baten
gainean, atacatu zuela debruac, agert-
zen zitzayolaric bere eguiazco figuran.
Ahopaldic ixusienac erraiten ziozcan
eta egiten erreportchuric bizienac, zioe-
laric errelachatu zela hainbertze
urthez bizi penitenta ereman ondoan
zenaz geroz etzana ohearen gainean;
hori egin zuen ez delicatasunez, bainar
obedientziaz, hala manatu beitzioen eri-
arthatzaileac. Bizkitartean harritua
izialduraz jauzi egin zuen ohetic, behin
beino gehiagoetan, eri-arthatzaileac.
portchatzen beitzuen bethi oherat bi-
hurtzera. Azkenccotz, horrelaco gu-
ducaren ondotic, agertu zangon zeruco
Erregina, zaucalaric bere besoetan Jesus
haurra, zeina eman beitzioen escuetara.
Orduan fraide zahar saindu hura can-
situ zen conxolazioneric gozoenaz
bethea eta zeinbeit instanten ondoan,
lagundua Mariaz eta Josepez, iragan
zen lurretic dohaxuen egoitzarat. Ez
badugu holaco fagoreric idurikitze-
co, bederen eremabic bizi saindu bat, es-
perantza izan. dezakegu Birjinaren eta

San Joseperen laguntza etzaucula faltatuco, debotac bagare heyen alderat.

Bihotz aitchatzea.

O bizi huntaco esperantza, Jesus, Maria eta Josepe!

J. M. J.

HAMAHIRUGARREN EGUNA

San Josepec izan zuen bihotz-
mina Salbatzailearen Zirconzi-
ziona ikhustean.

I. PHONDUA. Serioski erabil dezagun gogoan zoin bihotz min khirexa senditu ahal zuen San Josepec, Jesus haur-rari eta haren amari, lekhuco bezala, zirconzizionaec jasan arazi zioten dolore eta penen bichtan ! San Joseperen arimac senditzen zituen tormenta hec Jesusentzat eta Mariarentzat zuen amodio handiaren ededurara ; baina norc ezagut dezake amodio haren handitasuna : Jesusen aita ordeca zen, eta Maria Jesusen amaren esposa, haurraren eta

amaren dolore minec arrailatu behar zioten beraz bere bihotza. Eta hau, hainbertzenaz egiago da, zenbatenaz gehiago segurtatzen beite, zonbeit elizaco aitec eta eliza gizon argituec Josepe bera izan zela zirconcizione dolorezcoaren ministroa, eta hortan Abrahamen itchura hartu zuela, zeinac, Jaincoaren manuz zirconcizatu beitzuen bere seme Isaac (1). *Nec ipsius ministri contemnendum est testimonium, hic est Joseph.* San Joseperen penac bi ziagoac behar ziren izan Abrahamenac beiuo, zeren, Jesus beitzen izaite guzien Creatzailea, eta Aita Eternalaz Joseperen arthari confiatua, seme bat bere aitari bezala.

Horra zer idearen arabera behar dugun jujatu Patriarkha handiaron beite miragarriez.

II. PHONDUA. Gu, Jaincoaren idurira eginac garen creaturac, gu garc

(1) Si non erit caro, Joseph quem circumcidebat. (Ephem syriem. Serm. Transfi. Dom. S. Bernad. serm. circum.)

causatu ditugunac familia sainduaren
dolore khirexac gure bekhatuez. Je-
susec, Jainco haurrac ichuri dituen
nigarrac eta odola, Mariac eta Josepec
beren begiz ikhusi duten sarraski do-
lorezcoa; horiec oroc erraiten derau-
cute goraki zonbat gosta zaizcoten gure
bekhatuac. Ikhuste deithoragarri hor-
ren ondotic, nolacoac dira gure penxa-
menduac, nolacoac gure erresoluzio-
neac? Idurikigo othe dugu heriotzeco
mementoa gure hobenen higuintzeco,
eta nigar egiteco gure bekhatuez?
Hori hola balitz, barbaro batzu gini-
tazke Jesusen alderat, eta geronen al-
derat egiazco erhoac eta zoroac. Bar-
baroac Jesusen alderat, zeren, zuzen
ez den bezala, bera uzten beikinuke
cruelki gure hobenentzat sofricarie-
tan, bere sortzetic beretic, hartu ga-
bebetaric pharte haren nigarretan, pe-
nitentziazco bizi bat eremaiten dugu-
laric, eta utziz urrikiac eta peniten-
tzia azken oreneco. Zoroac gure alde-
rat, erhoki khondatuz gure botherean
ez den graziaren gainean. Ez othe da-
kigu bada ez dela gutaric jenen nigar

egin nahi izaitea, biziaren azkeneco mementoan, eta hortacotz beharco dugula Jainco haur barren grazia? Bebar bada uste dugu errechki ardiexico dugula grazia berezi hura heriotzeco orenean Mariaren eta Joseperen arartecotasunez, bainen hunen izaiteco bidea othe da gure bizi moldea, gure gogortasuna? Arartecotasun haren merezitzeco moyena da, eta bakharra, gure bekhatuen bichtan, gure nigarren nahestacatzea Jesusec circonzizionean ichuri duen odolarekin; eta heyen beren juntatzea Birjina Sainduac eta San Jesepe, patriarkha loriosac ordu berean egin zizuten nigarrekin. Horrela ardiexico dugu Mariaren eta Joseperen arartecotasunaz, mundu huntaric atheratu beino lehen, grazia hain desiragarri hura, zeinac garbituco beicaitu gure bekhatuen nothetarie, guretzat sacrificatua izan den bildoxaren odol preziatuaren berthutez: eta azkenecotz, partalier jarri ondoan, bizi huntan, creatura zerutar heyen pena, dolore eta khirestasunetan, izanen dugu heyekin pharte loria eternalean.

Othoitza.

O ene bihotza ala gogorra behaiz eta sendimendu gabecoa! Noiz arto bada ikardokico dioc penitentzia egi-terat hertchatzen hauen Izpiritu Sain-duari? Herioaren segac pica zezakee istant guziez hire biziaren haria, eta gutienic idurikitzen duyan mementoan. Ene erresoluzioea izan bedi lasterro eta iraupenecoa. *Et dixi, nunc cœpi.* Bai hartua dut erresoluzioea, nahi dut, egun danic, buluzia izan ene baithan ona ez den guziataric, eta ene Jesus bihotzeco maitearen gogoaraco ez den orotaric. Nahi bezen bat gosta dakidan holaco etreberritzea ene bizi moldean, nahi bezen khirexa izandadin horrelaco sacrificioa, ez da seculan Jesus haurrac zirconzizioean izan zuen zauria bezen bat izanen; ez eta ere Mariac eta Josepec jasan zuten dolorearen parecoa. Orai beretic abia nadila beraz ene zori on eta ene salbamendu eternalarentzat hoin beharra den sanjamenduari lotzen! Hala-biz.

Pratica.

Lacha dezagun gure bihotza, lurreco creatura guzietaric eta jos gaiten osoki gure Creatzaileari. Gauza guzietan mortifica gaiten, eta ez dezoguten eman, ez utz, gure senuer satisfaccio-neric den mendrena: atzartasunich handiena atchic dezagun gure senu gucien gainean.

Exenplua.

Boreziusec, dio, hamabortz ehun eta lauetan hogoi eta batean, Jaincoaren zerbitzari kharxu bat, Bigebanaco Alexis, caputchinen ordenaco aneya laicoa, hiltzeco mementoan aurkitzen zelaric othoiztu zituela bere aneyac argi multzo bat phitz zezatela. Zertaco, galdegin zioten? zeren, ihardexi zuen, laster ene soberauoa, Birjina guziz Saindua eta haren esposa San Josepe, behar beitira hemen agertu; eta onhestateac galdegiten beitu, dudaric gabe, errezibituac izan ditan ongi-ethorri handian, eta izan daiteken errespeturic berezienarekio. Etzen hainlaster baratu mintzatzetic, non errezibitu

beitzuen bisita lorios hura. Oihuz abiatu zangoten erraiten: *Horra zeruco Erregina San Joseperekin; ene aitac eman zaitezte belhaunica, eta errezibi zaitzue dohacoten ohorearekin.* Hori erran eta, ezteki eman zuen azken haxa, martchoaren hemeretzian, bere ararteco, San Joseperen besta egunean. Sari gozoa, izan zuen debozionarentzat Saindu miragarri harren alderat, zeina ongi imitatu beitzuen bere mortificazionez bere bizi guzian, eta, zeinaz lagundua, altchatua izan beitzen dohaxuen egoitzara.

Bihotz altchatzea

Jesus, Maria eta Josepe emadazuel penitentziazco izpiritua ene bizi guzicolz.

J. M. J.

HAMAL AUGARREN EGUNA

San Joseperen bozcarioa, errege Magoac ethortzearekin.

I. **PRONDUA.** Nolacoa etzen behar izan San Joseperen axegina ikbustea-

rekin heldu zaizcola, familia saindua-
ren buruzagiaren gana bezala, Errege
magoac, iguzki atheratze aldeco prin-
tze saindu hec, gidatuac, bertze orduz
Balaamec errana zen izarraz, galdegi-
ten dutolaric Jesus hauraren adora-
tzea! Penxatzeco da naturalki errezi-
bitu ahal zituela bere toki pobre eta
humilean, eta presentatu zituela Bir-
jina guziz loriosari eta Israelgo Errege
berriki sortuari : *Intraverunt domum
ubi erat puer.* Errege hec, ahuspez
ezarri ziren eta adoratu zuten Jainco
hautcho bilbacatu hura : *Et prociden-
tes adoraverunt eum.* Ideki zizuten bere
tresorac, eta ofritu ziozcaten miste-
riozco presentac, urrea, isenxua eta
mirra : *Et apertis thesauris suis, obtu-
lerunt ei munera : aurum, thus et myr-
rham.* Misteriozco gauza hauyen bich-
tan, nore erran dezake nolacoac zi-
tazken Jesusen Amaren eta haren aita
ordearen loria eta alegantzia ; bertze
hitzuntzaric behar laiteke asmatu,
behar bezala erraiteco nolacoac ziren
Mariat eta Josepec bihurtu ziozten
eskerrac Aita eternalari, zeren jadanic

horrela abiatu zen lorificatzen Berbo, bere Jainco Semea. Nore eman dezake oraino idca bat zoin gozoki eta maiteki soberano debot heyec eta Mariae eta Josepec elgarrekin erabili zituzketen beren solhasac?

II. Ongi har dezagun gogoan errege saindo hec adonatu ondoan Jesu-Cristo, eta harri ofritu ondoan bere presentac, nola izan ziren abertituac Jaincoaz beraz etzitola bide beraz bihurren erresumetarac. Obeditu zuten eta hartu bertze bide bat : *Per aliam viam reversi sunt in regionem suam.* « Ma-
« goen bihurtze hori bere herrietarat
« bide berri batetarie, da gauzabat
« mirexgarria, san Gregorio, aita
« sainduaren arabera. obedituz Jain-
« coaren abertimenduari, printze
« heyec erakhesten derauzcate gure
« eginbideac. Gure erresuma zerua
« da, harat joatea, ethorri gare bide
« beraz, debeatua zaucu. Urrundu
« gare sor lekhotic gure urguiluz,
« gure desobedientziac, lurreco izai-
« teentzat dugun estecamenduaz, eta

« hunkitzea debeatua zangun eta jan
« dugun fruituaz; bainan, orai, bi-
« huntu behar gare nigarren bidez,
« obedientziaz. ikhusten diren gauzen
« mesprezioaz, eta haragiaren gutiziei
« contra eginez. »

Bihurtuco gare beraz gure egiazco erresumarat bertze bide batez. Bide hui lotzeco, behar dugu beldurrekin eta errespaturekin gogorat erakharri gure hobenen nonbro izigarria, eta azken jujamenduaren garraztasuna. Oraino gure jujeac idurikitzen gaitu penitentziara, borra ditzagun beraz gure bekhatuac gure nigarrez, denbora deno, ez dezagun gal gogotic jujea hurbiltzen hari zaucula. (*Homelia 10.*)

Othoitza

Juje soberano eta garratza, zeina agertzen beitzare egun bildox ezti baten idurian eta haur maitagarri baten iteburan. Othoizten zaitut eta galdegiten dautzut zure laguntza puchanta, Maria, ene ama onaren, eta Josepe, ene abocataren eta ene aitaren besoetan zaudeno, Barkha dietzadaitzu ene

bekhatuac, ene jujatzera ethorri beino
lehen; higuintzen ditut eta aborritzen
ene arimaco khirextasun guziarekin;
hartzen dot chede zina guziez egiteco
cofesio bat humila eta osoa. Birjina
Saindua, San Josepe dohaxua! ardiex
diezadazuet Jainco haur haren ganic
Errege Magoei eman ziozcaten bene-
dizione hetaric zerbeit, balia dakidan
zeruco erresumara heltzeco. Hala-biz.

Pratica.

Dembora deno, biziz alda gaiten,
nekez aldatzen da biziaren azken me-
mentoan.

Exenplua.

San Bichinteho Ferrirec, eta bertze
zeinbeit izkiribatzailec khondatzen
dute Balenzeco marchant batec usaya
zuela. urthe guziez, Eguberri egunean,
gonbidatzeco bere mahainera pobre
zahar bat, eta emazteki pobre bat bere
haura bulharrean zuena, ezagutzen izan
balu bezala hiru pobre hetan, Jesus,
Maria eta Josepe, berekin mahainean
zituela.

Marchant caritatos hura agertuz ango-

ten, hil ondoan, Jaincoaren beldurtasunean bizi ziren zombait presuna Jaincotiarrei, zeinac othoitzean beitzauden harentzat; erran zioten, berioztzeco mementoan, jen zaingola Jesus, Maria eta Josepe bisita egitera eta gonbidatzera segi zitzaan, ziotelarie: hire bizian erreziti gaituyanaz gueroz, hiru pobren presunan, hire etchean, ethorri gaituc hunara hirurac hire errezibitzeco gurean. Hitz labur, bainan ongi conxoiagarri haujen ondoan, ereman zuten haren arima eternitateco zorionerat.

Dohaxu marchanta, perfezcionean jakin zueua, ongi baliatzeco moldean, trabailatzen lurraren gainean. *Negotiamini, dum venio.* Trabaila gaiten guhoroni ere orobat, gure nausi soberauea jenen zaucun artean, gure egintza guziez khondu galdegitera, artha hori eternitatecotz baliatuco zaucu.

Bihotz altchatzea.

Jesus, Maria eta Josepe, emaiten dautzuet ene bihotza, ene izpiritua eta ene bizia.

J. M. J.

HAMABORTZGARREN EGUNA.

Mariac eta Josepec presentatzen dute Jesus haurra tenploan.

I. PHONDUA. Ikhus dezagun zonbat berthute miragarri erakhusten duten Mariac eta Josepec, Jesus haurra tenploan presentatzearekin, han iragaiten diren gauza guzietan! Ebanjelio Sainduac erraiten deraucu : *Moisen legeac galdegiten zituen garbitzeco egunac bethe ziren ondoan, ereman zuten Jesus haurra Jerusalemera, Jaunari presentatzeco.* Ez Maria, ez Josepe, etziren obligatuac lege haren begiratzera, zeren Jainco haurra bera beitzen lege haren autorra, eta zeren Birjinac ez beitzuen, ez contzebitu, ez mundura eman haurra, bertze amec egiten duten bezala; biskitartean bi arima osoki garbi lieyec nahi dute, elgarren baime-nean, bethe arras perfekie legea.

Zer humilitatezco eta obedientziazco exeuplu ez daucu emaiten Birjina guziz sainduac, agertuz gizonen begietan,

izan balitz bezala, arruntean bertze emaztekiac diren bezen guti garbi eta hee bezala notatua? Ebanjelioac dio oraino ofritu zutela haur sortuaren-izat, *bi uso tortoroil edo bi usocume*. Legeac manatzen zuen bildox baten ofritzea, pobrec choilki zuten zilhegi ordainez emaita bi uso tortoil edo bi usocume. Bada, baldia Mariac eta Josepec ez bazuten ofritu bildox bat (*Salbu heyen ofrendan aurkhitzen den misterioa*) hori da froga clara pobreac zirela. Bainan ez othe zizuten izan present aberaxac Errege Magoetaric? Etzangoten deusic gelditzen, guziac phartitu zizuten pobrei. Zer pobreziac eta caritatezco exenplua gu guzien-tzat!

II. PHONDUA. Nolacoac dira gure penxamenduac holaco exenpluen bich-tan? Aurkhitzen othe ditugu gure bai- than becthute miragarri horiec : obe-dientzia, humilitatea, pobrezia lagun proximoaren alderaco amodioa? Cher-kha eta ongi examina ditzagun gure bihotzeco ekharritasunac, denbora

deno, eta ez dezagun iduric juje handia khondu galdegitera ethorrico zaucun orena. Behar bada gure bihotza josia dago lur huni : ez dugu amodioric ez Jaincoarentzat ez lagun proximoarentzat, guzia gure buruaz hartua, ez dugu begi colpe bat ere emaiten lagunaren beharrac eta miseriac ikhusteco : urricalmenduric gabecoa da gure bihotza pobrearen alderat. Ah! baldin hori lrata bada, zer zortec idurikitzen gaitu heriotzeco mementoan eta jujamenduco egun latzgarrian? *Ez da misericordiaric batere izanen, bere lagun proximoarentzat urricalmendurie izan ez duenarentzat.*

Othoitza

Ene Jesus ona! Begira nezazu gabe-tua izaitetic, heriotzeco orenean, hoin beharrac diren berthotez. Obedienta nahi naiz izan, bereziki ene aita izpiri-tualaren alderat, bozcarioetan izan na-diu egun batez, garhaizia eremanic ene salbamenduco exayen gainean. Nahi naiz izan humil, zure idurico izan na-diu, zure graziaren ardiesteco, eta zu-

re lorian partalier izaiteco. Nabi dut maitatu pobrezia, nabi naiz izan pobre egiazki izpirituz eta bihotzez, zeruco erresumaren merezitzeco, zeronec agindu duzun bezala. Nabi naiz izan urricalmenduxua beharretan direnen alderat, izan dezadan neronec ere misericordia zure ganic jujamenduco egunean. Eta zuc Birjina Sandua, zuc, San Josepe! Ardiex diezadazuet grazia beztitua izaiteco berthute eder horiez, horiec eremanen naute bizitze bethierecora. Hala-biz.

Pratica

Egin ditzagun ahal guziac meditazetic heldu garen berthute horien ardiesteco, eta obretan emaiteco. Conxerac gaizcoten osoki eta bethicotz'Jesusi, Mariari eta Joseperi, othoizten ditugularic ahal bezen humilki aberax gaitzaten aiphazetic heldu garen berthute horiez.

Exenplua.

Santa Theresac bere fondazionetaco hogoi eta hamahirugerren capituluan,

ekhartzen du ama Birjinaren zerurat
igaiteco egunean, aurkhitzen zelaric
aita Dominicanoen elizan, iduritu zit-
zayoila estaltzen zutela capa ezin ge-
hiagoki churia eta distiranta zen ba-
tez. Lehen mementoan, etzakien norc
emaiten zioen; bainan laster ohartu zen
Birjina saindua zuela bere escuinean,
eta san Josepe haren esposa, bere ezker-
rean, zeinec beztitzen beitzuten capa
eder hartaz, adi araziz denbora berean
bere bekhatu guziataric garbitua ze'a
perfeki. Hala beztitua izan zenean,
senditu zuen bozcario bat ezin erran
bezen handia, eta iduri zangon ama
Birjinac zerratzen ziozcala bere escuac,
erakhusterat emaiteco zuen plazeraz
zeren couxecratu zen san Josepe bere
esposaren zerbitzucó. Zeruco Erregi-
nac erran zioen galda zezakela nahi
zuen guzia bere comentuarentzat, eta
bere agintzaren bahitzat eman zioen
harri bat balio handitacoa. Iduritzen
zangon oraino lephoa inguratua zuela
urrezco colier batez, zeintaric beitzu-
gon gurutzcefica at dilindan prezio
handicoa. Hautaric lekhora, bi espos

saindu hec igan ziren zeruetarat, uzlen zutelarie Sainduaren arima hondatua loriarie garbienean, eta Jaincozco amodioaren kharrac sutan emana bezala.

Nolacoa ez laiteke gure zoriona, baldin zombait eliza bisitatzean, ikhusten bagina hola garbituac gure bekhatuetic, eta beztituac berthutez. Ez du holaco miraculu beharrie, aski da ardiex dezagun grazia bera ichilic eta senditu gabe; bada hori iduric dezakegu, Mariaren eta san Joseperen arartecotasun botherexuaren bidez.

Bihotz altchatzea.

Jesus, Maria eta Josepe, izan zaitezte ene socorri, ene bizi guzian.

J. M. J.

HAMASEIGARREN EGUNA.

Mariac eta Josepec Aita eternalari Jesus haurraz egiten dioten ofrenda temploan.

I. PHONDEA. Ikhus dezagun eta gozari eman ongi nola Mariac eta Jo-

sepec ofritzen dioten Aita eternalari Jesus haurra. Bildoz maitagarri eta bitima inozent hura! ofrenda harrec ixaasi ditu, ordu artean, tenploan eginac izan ziren guziac; hura zen bakharra, ezti zezakena Jaincoac zuen colera gizonen contra, harrec bakhar-ric bake zitzazken gizonac Jaincoare-kin. Ofrenda guzietan, badira bi gauza seinalatzeco: emaitza eta emailearen sentimendua. Emaitzaz dohan bezen-batean, bertze zer ofri zoketen Aita eternalari, agradagarriago izan zezo-kenic prezio guzien gaineco bitima haren ofrenda beino? Bertze bitimac hala nola aratchac eta ahariac, etzaizcon agradatzen Jaincoari, baizic ere haren itzala eta itchura bezala zielacotz. Horra beraz ethorria egun handi hora hainbertze denbora hartan idurikia ze-na, profetez, eta bereziki, Agchea pro-fetaz aspaldidanic errana eta agiodua; eguna sainduen Saindua, Jaincoaren Semea hera, gurea bezalaco haragi hil-corraz jauntzia, ofritzen baitzayo bera bere Aita Jaincoari bitimatzat mun-duaren salbamenduco.

Bainan ozerua ! zer samurtasunekin, zer amodiorekin etzitzayon ofritu ! gizonaren lenguyac ezdu hitzcuotzaric horren erraiteco. Aski da erraitea samurtasun eta amodio heye merezimendu infinitua zutela. Horri eratchie zozu Mariaren eta Joseperen amodio guziz samurra, zeinec beitzaucaten lurrean Aita eternalaren lekhoa. Ala agradagarria eta preziatua ahal beitzen ofrenda sandu hura ! aingeruac berac espantituac zauden ; etzaitezken bara mirestetic bai halaco bitimaren prezio infinitua, bai Jesusen, Mariaren eta Joseperen mugarrigabeco amodioa. Bortchatuac ziren aithortzerat Jainco soberanoaren oinetara bere homayac ekhararazten ziozcaten amodioa, etzela gorenetic ere, iduri flaco bat baizen hiru Jaincozco bihotz hec sutan zauden amodioaren aintzinean.

II PHONDUA. Eta gu, nahi bezen leyalac garen, nolacoac dira gura sendimenduac hoin miresteco den ikhugarriaren bichtan ? izan gaiten, bederen, betheac estonamenduz eta loriaz

Jesu-Cristoren aintzinean, zeren dagon lurrean continoki bere burua ofritceco bere Aitari gure aldaretaco sacrificio sainduan; bertze guziac ezeztatzen dituen sacrificio huni juntatzen dituzte guretzat Mariac eta Josepec, gure elizetan erraiten diren meza bakhotechean, bere orthoitzen eta bere desiren ofrenda; han batean ezartzen dituzte guretzat beren laudorio sainduac eta bere balio guziez gaineco esker onac, Zer ahaluea guretzat egoitea meza sainduan errespetic gabe, izpiritu bariatu batekin, bihotza hormatua, eta hartua mesprezioric baizen merezi ez duten gauzez! hoin gaizki ekharriac garenaz geroz aldareco sacramentu handiaren alderat, idurikitzeo othe dugu, gure azken orenean, Jesus eman dakigun biatico sainduaz? ez othe dugu beldur izaiteco, memento latzgarri hartan, gure contzientziac egiten daizcula erreporchuric saminenac, zeren hoin hotz eta amodio gabe izan garen hunen alderat; bere aldetic, contrarat, gure bizian, eman daizcun ondoan bere amodioaren marca bere-

ziac, utzialdi guziez, communionen sainduan bere Jaincozco sustantzian partaierizaiterat. Zorigaitz, zorigaitz ikharagaria bainarentzat, zeinae ekharri baitu aldareco sacramendu sainduaren alderat bihotz bat cobrezcoa; bai, zorigaitz harrentzat bere biziaren azken mementoan. *Cor durum male habebit in novissimo,*

Othoitza.

Ene Jesus ezta, enetzat amodioz, aphez, b tima eta sacrificio bilhacatua; zu ganat tira zazu osoki ene bihotza! egizu zure amodioaren continoco bittima bat izan dadin; junta zazu zure arekin, Maria, zure amarenarekin, eta amodioac zure aita egin duen Josepenarekin. Hélas! barkha dietzadatzu ene hoben guziac, bereziki mezaco sacrificioan eta comunionetan egindituzkedanae; hautaz bereziki galdegiten dautzut barkhamendu, zeren egin ditazken munstrokeriaric handienae baitiro. Egizu, ene Jainco Jauu ona, ez nadin, ez troblatua, ez descurayatua izan ene heriotzeco orenean! hartzen

dat erresoluzione fermua hemendic harat zuri ofritzeco, sacrificio saindu hortan, bihotz bat urrikiz zaurthua, bihotz bat herviki batasunean ezarria zurearekin, Mariarenarekin eta Josepenarekin. Ochala iraun dezan erresoluzione hunec ene bizi guzian mezan aurkhitzen naizenean, atzar araz zazu zeronec ene fedea, susta zazu ene bihotza, emoitzu zure amodioaren khar guziaz, gai jar nadin zure Aita Jaincoari ofritzeco, zeruan, laudoriozco eta esker onezco sacrificio bat agradagarri izanen zayona eternitatean.

Pratica.

Jesus, Maria eta Josepe imitatzeco ofrizezu Aita eternalari, meza sainduan, bihotz bat amodioz sutan dagona eta errespetuz bethea; egizu gauza bera zure comunietan.

Exenplua.

Errana da aita jesuista Piarres Coton debotaz, zeinaren orhoitzapena omen handitan beitago Frantzian, bazuela miragarritzco khar bat san Joseperen oho-

ratzeco, eta enplegatu zituela bere ahal guziaz, saildu haren alderaco debozionea hedatzeco, zeinaren izena beitzuen bethi bere ahoan, bere solasetan, bere pedericuetan. Bainan gehienic seinatzecoa egin zuena, izan zen Frantzian egitea eliza bat san Joseperi conxeratua, han manera berezi batez ohoratua izan zadin, eta ofri zitan mezaco sacrificioac. Orduan lehen aldico, Frantziac ikhusi zuen eliza bat san Joseperi conxeratua, saildu haren ohoreco. Jesuista debot harrec izan zuen zoriona hiltzeco san Joseperen egunean, zeinac, diotenaren arabera, aintzinetic erakhuxi beitzoen bere hil eguna; bertze alde seguratzende, bere azken eritasunean, agertu zitzaioela Birjina saildua, eta errantzioela heriotzean haren laguntzera ethorria zela ezagutzaz, saristatzeco haren espos loriosari ekharri zioen amodioa. Eliza bat egin ez dezakenac, errespetu dezake bederen Eliza, han sar daitake errespeturekin, han egon daitake debozionerekin, merezi duten bezala han iragaiten diren misterio

miragarriec, horrela imitatzen direla-
ric Maria eta Josepe, nahi bada, egun-
batez, sarthu eternitateco temploan
non erreginatzen beitu loriaco eta ma-
yestateco Jaincoac.

Bihotz altchatzea

Jesus, Maria eta Josepe, egizue izan
nadin humil eta errespetuz bethea me-
zaco sacrificioan eta ene comunioetan

J. M. J.

HAMAZAZPIGARREN EGUNA

San Josepec izan zuen bihotz mi-
na, aditu zuenean Simeon za-
har Sainduaren profezia.

I. PHONDUA. Ikhus dezagun eta sendi-
ahal badugu, san Josepec zoin dolore
bizia izan zuen aditu zuenean Simeon
zahar Sainduac erren zioena. Maria
haren espos saindua bera, hartua izan
zen doloreric khirexenaz, jakin zuenean
zombat erran gaitz, zombat pena eta
perxecuzione izanen zuen jasaiteco

haur maite harrec, egun batez, behar zenaz geroz izan, Simeonen profezia-
ren arabera, ascoren caltetan, nahiz
bere faltaz izanen ziren galduac, gal-
duco zirenac.

Hunara arteraino, Mariaren dolorean
begico bera zen Joseperentzat; bai-
nan espos samur hunc aditu zuenean
ezpata zorrotz batec zilhatu behar
zuela Mariaren bihotza, dolorea arre-
doblatu zangon, bere espos maiteari
ekhartzen zioen mugarri gabeco amo-
dioa zela causa: bi harma zorrotzez
bezala, betan izan zuen pasatua bere
bihotza. Baina nore contzebi ditzazke
holaco dolorea, nore egun dezake
idea bat justua holaco bihotz minez?
Zeruan choilki dugu conprenituco, bal-
din Jaincoac bere graziaz han erre-
zibitzen bagaitu. Ikhur dezakegu biz-
kitartean holaco khirestasunac zirela
san Joseperentzat dolorezco martirio
bat; eta baldin bihotz min horiec ez
bazioten heriotzea eman, zeren Jain-
cozco indar batec sustengatu beitzuen
eta atehiki beitzioen bizia.

II. PHONDUA. Bada, orai ikhus deza-
gun gure bihotzaren hotztasuna eta go-
gortasuna, iracurtu ditugu edo aditu
hainitz aldiz gauza hauc Ebanjelio
sainduetan; ikhusi ditugu, gure begiez
bezala, conplituac Simeon profetaren
erranac; curritu ditugu gure Salbat-
zaileac bere pasionearen aintzinean
eta pasionearen segidan jasaiteco izan
dituen sofricario izigarriac, eta haren
arima sarraskitan ezarri dituzten tor-
mentac gurutzearen gainean. Izan othe
gare behin ere horietaz biziki hunki-
tuac? Egin othe dugu egundeino choit-
ki nigar inhar bat egiazco doluz edo
urricalmenduz? Ez badugu egin, non
da beraz gure amodioa Jesusentzat
eta haren Ama sainduarentzat? At-
chiki ditugu gure nigarrae hil zaizcun
ahaideentzat, behar bada gure pasio-
neen begicoentzat, edo bizitze ahul
huataco izaite eta onthasunen galtze
banoarentzat; eta gelditu gare sor-
hayo, sendimenduric gabe, gure Sal-
batzaile adoragarriaren heriotze dor-
phe eta cruelaz mintzatu zaucunean;
erran daucutenean guretzat zuen amo-

dio sobraniozcoa dela causa, bizia eman duela gurutzearen gainean; ez acholatuac bezala gelditu gare, sorhayotuac entzutean harren Ama sainduaren zorthe dolorezcoa, bere Seme maitea hiltzen hari zangonaren gurutzearen oinetan, bere bihotza mila ezpata colpe zorrotzez sarraskitan ezarria. Ez da deus compara daitekenic hólaco munstrokeriari.

Othoitza

Jainco handia! o ene Jaincoa! Jesus, Salbatzaile maitagarria, enetzat hainbertze sofritu duzuna, eta hil zarena gurutze baten gainean, zer ihardex dezoketel ene contzientziac egiten daitan, hoin zuzenac eta hoin saminaac, diren erreportehuei? Nolacoac daitezke ene esperantzac, ene azken orenean, noiz eta ere zure ministroac, ene curayastatzen, presentatuco beitauc gurutzelicabat? Ah! baldin orai artean ene begiac agorrac egon badira zure dolorezco zaurien eta heriotzearen gainean, egun abiatzen naiz khireski nigar egiten; ochala! Ez balira

ene nigarrac seculan agortzen ! Zure amodioac eta ene bekhatuec egin daitzuten zauri horiec, izan beite ene ariman hain barna eta hain minki sarthuac, non ez baitira behin ere handic atheraco ! Ene heriotzea hainitz eztiagoa izanen da, eta ene salbamendua seguratuagoa. O Maria ! o Josepe ! zilha zazué zeronec, arima hau sendimendu gabecoa eta gogortua, zilha zazuén bihotzac hain cruelki sarraskitan ezarri zituzten dolore berez, entzun zinituztenean zuen Seme Jaincoaren ethorkizuneco sofricarioac ; egizue ez nadin bizi neroni ere dolorez eta amodioz baizen, eta eman dezadan ene azken haxa zuen escuetara ! Hala-biz.

Pratica.

Ardura erabil zazu gogoan Jesu Cristoren Pasionea, Birjina Sainduaren imitatze-co, zeinac bethi gogoan beitzauzean bere Seme Jaincoaren sofricarioac, santa Bricitari errandioen bezala « haren bihotza zilhatu zuen « ezpata ez dela behin ere handic « atheratu. » Egizu maiz gurutzearen bidea, estazioneac.

Exenplua

Birjina Saindua agertu zangon egun batez san Josepe, bere esposarekin, ahizpa Anna Rodrigues, serora frantzizcanoari, eta errecomendatu zuen bere Seme Jaincoari. San Josepec escaini zioen plat bat bi jateco suerte zauzana, bat ezin gehiago ezia, eta bertzea osoki khirexa, eta erran zioen : *Hautazan, ene haurra, bi jateco horietaric bat, hartzan gehienic hire gostuco dunnana.* Serora debotac hartu zuen khirexa zena. San Josepec erakhesten zioelarie orduan gurutze bat guziz ederra, bainan hainitz pisua, erran zioen : *ene haurra, baliosena hautatu dun; hemeudic harat gurutzea bethi hirckin izanen dun; khirestasunac etzain faltatuco behin ere; bozcaria hadi bizkitartean, ezen horrela hainitz agradagarri jarrico haiz Jaunaren begietan.* Erakhaspen ederra eta handia ekhartzen deraucuna san Josepec zerutic lurrera; zorion Jesusc bezala bere bizia sofricarioetan deramanarentzat, izanen da ezen partalier haren bethiereco lorian.

Bihotz altchatzea.

Jesus, Maria eta Josepe, maita araz
dietzadazue humiliacioneac, mortifi-
cacioneac eta sofricarioac.

J. M. J.

HEMEZORTZIGARREN EGUNA

San Joseperen bihurtzea Nazare-
thera bere esposarekin eta Jesus
haurrarekin.

I. PHONDUA. Ikhus dezagun nola, le-
geac manatzen zuena compliu ondoan,
espos saïnduac bihurtu ziren Nazareth,
bere herrira. Norc imachina dezake on-
gi nolacoa izan zen bi anima eder heyen
bozcarioa, ekharri zutenean bere abai-
den erdira biziaren autorra! Norc erran
dezake halaber nolacoa izan zen heyen
pena, ikhusiz haur maite hura, berriro
sorthoa, bide luze bateco akhidurara
pharatua, sasoin gogor batean, eta es-
cas guzien erdian, piaya urrun bati
lothuac direnec gebienic behar lituz-

keten gauzez ere gabetua ! Zonbat bihotz alchatze zerurat ez ahal zuten egin ! Zonbat pena hartu ahal zuten arthatzeco bere haur maite bezen maitagarria ? Zeinac lehia gehiago izan hari ziren, haurra soinean ekhartzeco zori ona izaiteco, haurra beharrie chumeenetan arthatzeco ; gogotic emanen zuten bere bizia huni escasic den mendrea, bere abalaz, ez uzteco. Ez da bihotzean Jaincozco amodioaren phindar bat baizic behar, ongi conprenitzeco bi bihotz samur heyen amodiozco sendimenduac.

II. PHONDUA. Mariac eta Josepec lehiarekin ekhartzenduten denboran Jesus bere besoetan, loth gaiten heyen urhaxei, eta-galda dezoguten grazia preziatua heyekin pharte hartzeco Jesus haurrari ekhartzendioten arthagozo eta Jaincozcoan, ez deraucute errefusatuco ; baina bethi cod zionetan izanen da pharte hartuco dugula heyen penetan, biziki pena izanen dugula munduan haur maitagarri harri egiten diren ofenxez, zeinac ez baitu

hainbertze sofritzen baizic ere gure begiratzeco zori gaitz eternaletic. Bertzelaz zer itchur egin ginezake hoin conpemia saindu eta Jaincozcoaren erdian. Gozaten dira Jesusez, deus egiagoric; baina biziki dira afflictuac ikhustez sofritzen. Nahi ginitazke gu ere gozatu haren presentzia loriagarriaz, deus ere ohora-garriagoric ez sainduagoric desira hori beino: baina egia othe da sofritzen dugula ikhusten dituguncan bekhatoreac haren laidostatzen? ez othe gare geroni zonbeit aldiz izan hekien nonbreco? crudelitate izigarria! Bizkitartean gelditzen zaucu oraino ahala egin hobenen errepartzeco: hura da ordainez orai iberkhatzea lagun proximoaren gibelatzea haren ofenxatetic, edo gure abertimenduez, edo gure exenplo onez, gure erakhaspenz eta desirez. Hoinbertzez gehiago gare obligatuac, zenbatez geronec ofenxatu baitugu Jainco baur hura maizago. Ez dezagun iduric gure azken orena, bethetzeco eginbide bat hain sacratua eta hoin ezitia. Orhoitgaiten hori dela moyena, eta bakharra,

descanxurekin eta eztiki gure azken haxa emaiteco Jesus, Maria eta Joseperen begietan.

Othoitza.

Conpeinia ezti balios eta maitagarria! Bideant Jaincozcoac! San Joseperen besta loriosaren bezpera huntan, errezibi gaitzazue zuen batasunean. Baldin izan badugu zorigaitza zuen besoetan dakharkezuen Jainco haur horren laidostatze-co, buna non garen zuen oinetan ahuspez gure huxez nigar egiteco eta heyen borratze-co. Jesus ezti, gu gare, belas! zure sofricarioen causa, bainan heldu gare horietan pharte hartzera! urricalmenduz, ez gaitzatzula casa zure aintzinetic : *Nē projicias me a facie tua*. nahi zaitugu segitu calbarioraino; nahi dugu khar-rayatu zure gurutzea zurekin batean, nahi gare hil zurekin erregretez, eta amodioz. Garen bezalaco cruelac; ez aski geronec ofenxatzeaz, bertzez ere ardura ofenxa arazi zaitugu: nahi dugu erreparatu gure egin molde ahalgegarria, egin ahal guziac eginez etzetzaten

seculan gebiago ofenxa, hortaco, zure graziaren beharretan gare, galdegiten derautzuga Maria, zure amaren, eta Josepe, zure aita ordearen arartecotasunez. Hala-biz.

Pratica

Dezagun egin penitentzia gure bekhatuez, eta khar handi bat ekhar dezagun hertzeren gibelatzeco Jaincoaren ofenxatzetic. Ardura egin dezagun Jaincoar othoitz hau : Jauna egidazu grazia bizitze garbi baten eremaiteco. partalier izan nadin zure eternitateco lorian ikhusten dudalaric Jesus zure Semea eta ene Salbatzailea.

Exenplua

Herman dohaxua, Premontren ordenaco fraidea, maibatua izan zen Birjina Sainduaz, hainbeitzetaraino, non hauatu beitzuen bere esposat, eta sanjatu beitzioen bere izena Joseperen izenera.

Espos berri hunec ardura othoizte zuen Mariaren lehen esposa, galdegitezioelari bere berthute nobleu imitat

zaile leyal bilhaca zezala. Birjina, nahiz egin espos berri huni san Joseperi egiten ziozcan fagoretaric zerbeit, emaiten zioen maiz besoetara Jesus haurra, egin zezon amorea gatic san Josepec aitaren den hoberenaren calitatean egiten ziozean caresa hetaric zonbait. Zer ikhusgarri gozoa hain Birjina Sainduaren begientzat! axeginekin ikhusten zuen Josepe berri huntan, Izpiritu Sainduac, bere birjinitatearen ohoriarentzat eta bere Seme adoragarriaren begiratzailatzat, eman zioen esposaren modela eta imitatzaile perfeta.

San Josepec etzuen plazer gutiagorekin ikhusten bere berthuten model perfeta fraide saindu hau baithan, zeina hain debota beitzuen bere alderat, eta zeinac ekhartzen baitzuen izen bera, eta bethetzen ministerio bera.

Fraide dohaxu harrec merezitu zuen, bere biziaren saindutasunaz, heriotze bat hain estia nola baliosa.

Ez gare segurki gai Maria izaiteco espostzat, ez agerian besarcatzeco Jesus, haren Jainco haurra, Josepe berri harrec bezala; bainan izan gai-

tezke haren haurrac, eta besarca deza-
kegu samurki Jesu-Cristo gure aldare-
taco sacramendu sainduan. Baldingure
comunione guziac sainduki eginac ba-
dira gozatuco gare, faltatuco ezden
bezala, Jainco amodioz bethearen be-
sarcate izpiritualcz, eta errezibituco
gaitu bere zeruco erresuman.

Bihotz altchatzea

Jesus, Maria eta Josepe, emaiten
daitzuet ene bihotza, ene izpiritua eta
bizia.

J. M. J.

HEMERETZIGARREN EGUNA

SAN JOSEPEREN BESTA

San Josepe Jesus haurraren Begi-
railea eta hunen zeruco tresoren
zaintzailea.

I. PHONDUA. Ikhus dezagun, hoin lo-
riosa den egun huntan, zeinac zerua eta
lurra ezartzen beitu bozcarioetan, san
Joseperi Jaincoac confiatzen dioen de-

pot preziatua, begira dezan amoreagatic bai beretzat, bai mundu guziarentzat. Depot sacratu hura zen Jesus, eta hunen baithan zerratuac ziren zeruco tresorac. Aintzineco meditazio-nean ikhusi dugun bezala, Josepce ekharri zuen bere herrira eta bere etchera, bere Ama sainduarekin.

« Bainan ongi aduzeco zoin zen Be-
« giraile leyal hura, erhoit hadi, »
zioen san Bernatec. « berize orduz
« Echiptorat saldu Patriarkna handi
« hartaz; eta jakin zac Birjinaren Es-
« posa etzela choilki haren izenaren
« premua, bainan bai oraino haren
« castitatearen, haren inozentziaren
« eta grazien premua; ezen leheneco
« Josepe hura, saldua eta eremana
« Echiptorat bere aneyen jelo-siaz, Jesu-
« Christo salduaren figura zen. Josepe
« berriac, Herodesen jelo-siari espaca-
« tzeco, ereman zuen Jesus Echipto-
« rat. Lehenbizico Josepce, leyaltasu-
« nic handiena bere nausiaren alderat
« atchikirie, zaindu zuen bere garbita-
« suna; bigerren Josepce, ezagutuz
« Birjina Saindua bere andre sobera-

« noa bezala, bere Jaun eta Jainco-
 « aren ama, erakhusterat eman zuen
 « hunen alderat delicatasunic bere
 « ziena, eta garbitasunic eta fidelita-
 « teric mirestecoena. Lehenac errezi-
 « bitu zuen zerutic amex misteriosen
 « endelgua, bigerrenac merezitu zuen
 « Jaincoaren beraren segretuac ezagu-
 « tzea eta hetan partalier jartzea ; ba-
 « tec conxerbatu zuen ogia, ez beretzat
 « ehoilki, bainan bai populu guzia-
 « rentzat, bertzeac ikhusi zuen con-
 « fiatua beraren arthari zeruco ogi
 « bizia, hain ongi beretzat, nola mun-
 « du guziarentzat (1). » Oraino erre-
 marcatzeco da leheneco Josepe hura
 zela, dembora berean ogiaren zain-
 tzalea eta phartitzailea, hortacotz ere
 errege Pharaonec ihardesten zioten
 bere beharrean haren ganat zohazin
 guziei : *Ite ad Joseph, ite ad Joseph :*
 Zohazte Josepen ganat. zohazte Josepen
 ganat. Halaber Josepe bigerrena, lehe-

(1) Iste panem vivum e cœlo servandum accepit, tam sibi quam toto mundo. (Hom. sub. mis. est.)

naz figuratua, botherez bethea da bere Nausiaren aintzinean, zeina beita Jaincoa bera, eta zeinac iduri beitu erraiten diotela beharrac hertchatzen dituen guziei : *Ite ad Joseph, ite ad Joseph*; Zohazte Josepen ganat, izazue haren baihan confientziarie handiena.

H. PHONDUA. Egia denaz geroz san Josepec, casic nausi balitz bezala, emaiten dituela zerueo tresoretarie, zer ezin egizen du haren loriacotz conxerata den egun handi huntan, egun huntan, zeintan zeruac eta lurrae zelebrazten beituze haren berthuteac eta haren trionfa? Pharaonec ohoratu zuen leheneco Josepe, ezarririe gazien Nausi, salbu bere tronuaren : *Uno tantum regni solio te precedam*. Igan arazi zuen carrosa ederrenetarie baten gainera, erregetasuneco seinaleez beztitua; hala curri arazi ziozean bere erresumaco biri eta lekhu printzipalenac, mundu guziac ohore eta ezagut zezatentzat, bere ondotic, erresumaco lehena bezala, eta bere onthasun guzien phartitzale soberanoa bezala, zer ohore

zer errespetu eta confientzia etzioten izan arazi, populuaren aldeic, ohorezco ponpa handi horiee? Hola berbera, egun huntan, bigarren Joseperen loria agertzen da bere edertasun guzian; distiratzan du argirie loriagarrienaz zeruetan, eta, hemen behere huntan, fedea erakusten deraucu, hedoi arin baten itzalpetic bezala, loria haren edertasuna. Izpiritu dohaxuec miresten dute eta ohoratzen, berec, saindu hunen majestatea eta puchantzia. Eta gu, luraren gainean garelacotz, egonen othe gare ohoreric bihurtu gare hoin saindu handiari? Urrunbedi guganic horrelaco lachakeria! Junta ditzagun gure boz flacoac Aingeruen eta dohaxu guzien alegrantziaco cantuei; benedica dezagun Jaincoa zeren hoin handizki ohoratu duen san Josepe zeruan eta lurrean; gure confientzia hunen alderat izan bedi mugarric gabecoa, gohaizcon gure beharren erakusterat, eta galda ditzogun ixuki escas ditugun grazia guziac, errecki eman, edo ardiex dietzazkegunac. Gauden segura-

tuac, leheneco. Josepec bezen ongi, hobeki ez bada ere, errezibitueo di-tuela gure galdeac, ezduela deusic er-refusatueo; bainan conxolatuco gai-tuela, eta behar guzicz hornitueo gai-tuela salbamendueo bidean.

Othoitza

Ene Aita eta ene Jauna, bethiereco onthasunen zaintzailea eta heyen phar-titzailea, zugauat heldu naiz, ene othoitz humilez zuri galdegitera lagun nezazun zure loriaco conxecratua deu egun huntan! Baldin Jaincoac berac erraiten badaut : *Ite ad Joseph*, zeren zure escuetan ezarri beittu bere grazia baliosac niri phartitzeco, zer dut beraz beldortzeco? Ene aita ordeazare, ene nausia, ere ongiegilea! Zure escuetan ezartzen ditut ene izanac eta ene bizia. Izan zaite ene egun guzietaco socorria eta bereziki ene azken egunecoa. Ene azken hitzac izan beite izen adoragarri hauc : *Jesus, Maria eta Josepe*, eta ene arima trankilki ethor bedi zuen escue-tara. Hala-biz.

Pratica.

Izan dezagun confientzia handia san Joseperen arartecotasunean eta haren besta zelebra dezagun ahal bezenbat debozionerekin.

Exenplua.

Aita Joanes Allosac ekhartzen du, san Josepen alderaco amodioaz eginduen obran, aitoren seme batec, osoki debota zena saindu hunen alderat, urte guziez zelebratzen zuela saindu hunen besta egiazco deboziorie kharxu batekin.

Aitoren seme harec bazituen hiru seme urte bakhotchean hiltzen zangon hetarie bat, san Josepe egunean. Gizon debot hura ezia gehiago afflictua zaren, eta heldur zen, hirugerren urthean, gal zezan hirugerren haurra. Hartu zuen obedea besta hartaco eguna iragaiteco, bere etchetic urrun, bere chagribaren arintzeco hezala. Bidean zohalarie, eta guzia hartua bere penez, altchatzen ditu bere begiac, bustiac nigarrez, eta behatzen du arbola baten

gainerat, deusez penxatu gabe, eta ikhusten ditu bi gizon gazte arbolatic dilindan daudela urkhatuac. Ordu berean agertzen zayo Aingeru bat, erraiten dioena : Ikhusten ditue ongi bi gizon gazte horiec? Bada jakin zac hire bi hurrec, zeinen galtzeaz hoinbertze nigar egiten beituac, zorthe bera izanen zutela, luzekiago bizi izan balira ; bainan zeren duyan debozione handi bat san Joseperentzat, berac ardiexi dauc Jaincoa ganic bil ditan gazteric, ez dezazuentzat ez lie, ez hire familiac izan holaco dezohore bat, eta berei ere seguratzeco bizitze eternala, haurtasunean hilec.

Zelebrazac beraz holaco saindu baten besta hire ordenarioan ; eta jakin zac gelditzen zauyan hirugarren haurra izanen dela Aphezpicu, eta luzeki bizico dela. Horrela gerthatu zen, Aingeruac erran bezala. Ortic ezagun du malurric handiena zela iduri zuen caltea, zela contrarat grazietan den preziatuena. Har dezagun hortie ongi go-goan : behar dugula coufientzietan du handiena hartu san Josepe baituan,

iduritua gatic ere ez gaituela entzuten, eta nahiz ez dugun errezibitzen, senditzen den bezala, graziaric.

Bihotz Alchatzea

Jesus, Maria eta Josepe, emaiten daitzut ene bihotza, ene izpiritua eta ene bizia.

J. M. J.

HOGOIGARREN EGUNA

San Joseperen fede chinplea eta bizia, segitzean Aingeruaren abertimendua, ihes Echiptorat joaiteco.

I. PHONDUA. Ikhus dezagun nola, bi espos sailduac bihurtu direnean Nazarethera, bere haur preziatuarekin, Aingerubat agertzen zayon amaxetan san Joseperi eta erran dioen : Altcha hadi, eta hartzac haurra bere amarekin, ihes egin zac Echiptorat, eta ago han, nic berriz abertitu artino; ezen Herodesec cherkhatuco dic haurra hil-

izeco : *Futurum est enim ut Herodes quærat puerum ad perdendum eum.* Norc erran dezaké zer truble eta nabasturetan ezarri ahal zuen manu horrec Josepec zuen bezalaco bihotz samurra? Norc duke idea bat justua Máriac izan zuen bihotz minaz, bere esposac pharlete egin zioen^{an} zeruco enbachadorearen mezuaz? Zer afliczione khirexa, dio san Crisostomec, holaco manu batego ezahal zioen eman Ama saindu hari? *Ihes egin zan utziric hire ahai-deac, eta habil jende arrotzerat; urrun hadi templo saindutic, eta habil debruec profanatu lekhuetarat.* Zer bihotz arrailagarriagoric izan daiteke secular, nola ama izaitea, eta bortchatua ihes egitera bere haurra besoetan? Ikhus zazu hemen, dotor berarekin, san Joseperen fede hazearra, zeina, aditzearekin ihes joaitea bai eta ez bada beharra zela, biziaren autorrac etzezan herio colpea errezibi, ez beitzen batere escandalisatua izan holaco manu batez; haren bihotzac etzuen dudaric den mendrena izan, eta etzuen erreflexioneric batere egin, iduriz, Jaincoaren

agintzei hain contracoa zen manuairen gainean. Etzioen galdatu ere Aingeruari noiz bihurtuco zen. (*Neque reversionis tempus curiosus inquirat*, hom. 8. 5. Math.) Bainan iratzartu bezen laster, ez du peuxatzen zeruco manuen bethea baizen, adoratzan zituelaric hamilki; abertitzen du bere espos saildua, eta hartzen duelaric Jainco haurra bere besoetan, lotzen da berehala bideari.

II PHONDUA. Non aurkhitzen da egungo egunean, mundu huntan, holaco fede bat? Fede chiuplea, bizia, humila, fermua eta obretan emana. Holaco fedea da presiski Ebanjelioac gutaric galdegiten duena, eta zeinaren exenplu hunkigarria emaiten beitaucusan Josepec. Bainan, *helas!* zombat presona bere burua enganatzan dute-nac, ustez ezagutzen dutela Jaincoa, eta zeinec ukhatzen beitate bere obrez eta bere egintzez! Zeinec sinhesten beitate gauza bat eta berize bat egiten! *Confitentur se nosse Deum, factis autem negant.* Ez dute fede lilhil bat baizen, casie lokhartua, fede bat bere beitharic

erortzen dena. Izan othe ditake sin-
 hestea badela Jainco bat majestate in-
 finitucoa, orotan aurkhitzen dela, ter-
 riblea bere mendecuetan, eta holaco
 sinhestearen ondotic, laidostatzea bere
 beithartera? Sinhestea Jaincoaren ju-
 jamenduaren garratzasuna, eta bizi-
 tzea han bebin ere agertu behar ez
 balitz bezala, bere egintzez khondu bi-
 hurtzera; sinhestea badela ifernu bat,
 eta ez balitz bezala, bizioari emana
 egoitea; zer da beraz holaco fedea?
Fides demonum, Debruen fedea. Bai-
 nan ez, enganatzen naiz, ezen debrnac
 berac ikharatzen dira : *Credunt et
 contremiscunt*, dio Jaundoni Jacobee.
 Examina dezagun hemen gure fedea,
 eta ikhus dezagun eya Mariaren eta
 Joseperen fedea bezalacoa den, Eban-
 jelio sainduaren araberacoa. Bertzela
 zer baliatuco zaueu gure fedea, baizic
 ere gure condenatzeco? Eliza, herio-
 tzeco mementoan diren arimac Jain-
 coari gomendatzean, federa doha be-
 thi, eta aphezac, Elizaren izenean, er-
 raiten dio Jaincoari : Jauna etzaitezela
 orhoit arima hunen bekhatu iraganez,

ne memineris iniquitatum ejus antiquorum; eta Jaincoaren bihotza hobek hunkitzeco, eratchikitzen du : nahiz arima hunec bekhatu egin duen, ez du bederen ukhatu Aita, Semea eta Izpiritu Saindua, bainan sinhexi du eta bere Jaincoarentzat kharxu izan da, guziac creatu dituen Jaincoarentzat, eta zeina leyalki adonatu beitu (1). Zer bilbacatuco da arima hura, baldin hartaz erraiten dena, gezurra bada?

Othoitza.

Trinitate adoragarria, Aita, Semea eta Izpiritu Saindua, ene bihotz guziaz abal dezakedan federic bizienaz adonatzon zaitut, othoizten zaitut, fermuki sinhesten ditudalarie zure Elizari erakbuxi diozcatzun egia guziac. Helas! egizu sinheste hortan iraun dezadan bizi guzian, eta ene fedearen araberacoac izan ditan ene obra guziac. Emadazut

(1 *Licet enim peccaverit, tamen Patrem, et Filium, et Spiritum Sanctum non negavit, sed credidit, et zelum Dei in se habuit, et Deum qui fecit omnia fideliter adoravit.* (In ord. cont. an.)

grazia hori Birjina Sainduaren eta san Joseperen merezimenduen berthutez, zeinen fedea hain agradagarria izan beita zure begietan, eta zeinen exenpluec merezi baitute ene phartetic imitazioneric seriosena. Lagundua hoin grazia baliozaz ibilico naiz heyen hatz loriosen gainean, eta helduco naiz hec heldu diuen zori oneco egoitzara, non ikhusten beitira begiz hemen lurrean sinhexi diren egia eternalac. Hala-biz.

Pratica.

Ditzagun erregela gure egintza guziac fedearen gainean, eta ez gure pasionen arabera. Ekhar dezagun gurekin san Joseperen imachina bat; erran dezagun zonbeit aldiz *Sinhesten dut* haren oho-retan, eta othoitz dezagun partalier ezar gaitzan bere fedearen argi bizietan.

Exenplua.

Erran dugu jadanic san Franxes Salescoac etzuela atchikitzen bere bre-biarioan bertze imachinaric baizen ere san Joseperena; eratchikico dugu he-men amodioric samurrenarekin mintzo

dela hartaz bere liburuetan, ofrituz
saindu hari, bere ararteco bakharrari
bezala, egin dituen obrac Jaincoaren
amodioaren gainean, eta bautatuz Pa-
triarkha lorios harena nahi zela izan
osoki. Nahi izan zuen, bertze alde, fon-
dazetic heldu zen orde berriac izan
zezan saindu handi hura bere aingeru
ararteco-laguntzaile bezala, eta hontan
sarthuco ziren presuna guziet har ze-
zaten harentzat debozione bat egiazcoa
eta bereziena. Lehena izan zen alchatu
zioena eliza bat Annezico hirian. Az-
kenaz goiti, nahiz utzi bethicotz Ma-
riaren espos sainduaren alderat ekhari-
zen zuen amodioaren seinalea, ezarri
zuen bere ordeco birjina nobizen gida-
menarentzat egin zituen erregeletan,
hartu behar zutela saindu miragarri
hura bere gidari berezitzat contepla-
zioneco bidean, eta horrela helduco
zirela usain ona darion mendi hartara,
zeinac emaiten beitu isenxua, eta zein-
tarat gonbidatzen beitu Salbatzaileac
berac bere espos maiteac. Segi zazu
holaco exenplua, eta prezioztat izanen
duzu zure zoriona.

Bihotz altchatzea.

Jesus, Maria eta Josepe emaiten daitzuet ene bihotza, ene izpiritua eta ene bizia.

J. M. J.

HOGOI ETA BATGARREN EGUNA.

Jesus badohate ihes Echiptorat
Mariac eta Josepec.

I. PHONDUA. Ikhus dezagun nola Josepec, errezibitu duen gau berean, aingeruaren phartez, manuaihes egiteco Echiptorat, Jesus haurraren espaca arazteco bere exayen escuetaric; hartzen du betbetan phartitua lotzeco bideari Birjina sainduarekin. Negua zen; bazuten, abantzu ehun eta berrogoi lecoa egiteco, autorrec diotenaren arabera. (*Vid Barrad I. C. 8.*) behar zuten beraz bederen hogoi eta hamar egun bideco. Bideaz den bezenbatean, Bonabenturaren arabera, gaichtoa zen, lar-

re-bidea, salbai bidechca : *Viam sil-
vestrem, obscuram. asperam et inhabi-
tatam.* Pobrezia eta berantzeco lau-
jerrac etzioten uzten denbora, beharric
gehiena zuketen gauzen hartzeco. Ho-
riec guziac gatic ere, espos saindu hec,
osoki zaudelarie probidentziara, phar-
titzen dira pruinki eta errefleczioneric
egin gabe escas dituzten gauzen gai-
nean; bedurtzen dutena da cholki lu-
zamenic gutiena caltecor izan dadin
heyen haur maitearentzat. Zer berthu-
tea! Nolaco bihotzac! Zer bitarte her-
xia! Haurra maitagarriago zen egun
deino munduac ordu artean ikhusi zi-
tuen guziac beino; etzuen zonbeit egun
baizic sorthua zela; merezi z tuen me-
neyatze eta delicatasun guziac; bizki-
tarteac haren bilha dabilta, eta, hori,
haren hiltzeco; haren desterruco le-
khua, marcatua da herri urrunetan,
Echiptoco lurrae dira, gizon salbai,
gogor eta barbaroen herriac : zeruac
confiatzen du bere aita ordearen eta
Maria bere amaren arthari, eta batec
nola bertzeac ezdute beretzat bere po-
brezia eta bere bihotz mina baizic :

Mariac eta Josepec, ez dute, dio Piarres Chrisologo sainduac, ez muthilic ez nezicatoric heren zerbitzuc; berac dira nausiac eta zerbitzariac. Behar othe da herriz ere erran? Horien guzien gatie, lotzen dira bideari, zeruac galdegiten dituen lekura joateco. Jaincoac erran dezake choilki, den bezala, zer senditu zuen Joseperen bihotz samurrac, ikhusiz Birjina gazte eta maitagarri bat, hamabortz urtheren ingurruna zuena, bere haurraz cargatua, eta ihesi emana exai injustu eta gogor batzuen barbarioaz. Ez dezagun gogotic gal nor diren hoinbertze penen erdian aurkhitzen direnac : bata da aingeruen eta zeru lurren Erregina, eta bertzea haren espos garbia, Jaincoaren Semearen aita ordea.

II. PHONDUA. Nor da gutarie egundeino arkhitu dena hoin manu garratz eta doloragarriez hesturan ezarria? izan othe dugu egundeino halacoric? adit-zeco, obedientzia hori, erresinazione hori, herstura hori, guziz dira miragarriac; Mariac eta Josepec horien execu-

plaza eman deraucute, erran othe deza-
kegu egundeino segitu dugula? bainan,
bederen segitzeco gogoa othe duga
ocasionea heldu zaucunean?

O! nola behar ginitazken gorritu
galde huntan! ala zuzenki alarmatuco
baicaitu horiotzeco orenean! Badira
mementoac zeinetan iduritzen beitzacu
ekharriac ginitazkela Jaincoarentzat
gauzari handienen egitera, eta jasai-
tera martirioa bera. Horrela burlatzen
da debrua gutaz, eman ez penxatzera
badugula indarra eta curaya, gudu-
caric eta gerthacarinic borthitzenetan,
bura egiteco eta jazartzeco, ocasio-
neac urrun direlaric oraino; bainan
gudu eta gerla leyen mementoa bur-
biltzen da bai, ez gare gehiago flake-
ziaric eta lachekeriaric baizen. Eta!
nola ginuke berthuteric aski, uzteco
gure etcheac, sofritzeco desterratua
izaitea Jesusen amorea gatic. Mariac
eta Josepec bezala, jasaiteco miseria,
afrontuac, hainbertze nekhe eta pena;
guc, zeinec ez beitugu aski gure ari-
maren salbamendua mehatchatzen du-
ten lanjerei ihes egiteco; zeinec ez

beitezakegu jasan escasic den mendrena, murmuratu gabe, hasarratu gabe? Deus ezda bizkitartean comunagoric ilusione hori beino.

Ez dezagun iduric ethor dadin herioa, guri erakhustera zer garen, eta nolaco den gure flakezia. Nahi dugu frogatu gure berthutea eta gure egiazco indarra? Nahi dogu enganatu gure exai cruela? Besarea dezagun bihotz onez Jaunac, egun guziez, presentatzen deraucun gurutzea; ikhus zazu etzarella indarretan haren kharrayatzeco, non etzaituen berac laguntzen bere graziaz, zeintan behar beittuzu ezarri zure confientzia guzia, eta zure esperantza osoa.

Othoitza

Jainco handia! tribulazionearen suaz garbitzen eta perfetago bilbacatzen dituzuna gehienic maite dituzun arimac, ala gaizki ihardexi beittotet zue ene gainean zinituen chede caritatosci! mezprechatu ditut zure manuac, errefusatu dautzut eman daitatzedan gurutzeen kharrayatzea, zeinac bizkitar-

tean hain arinac beitziren eta ene indarren araberacoac. Eta uste izan dot, o ene Jesus ona! zeinac hainbertze sofritu beitzu enetzat amodioz, uste izan dot ekharria naizela sofritzera desterrua, hestura, afliczioneac, bai eta heriotzea bera. Helas! barkha diezadazu orai artean nuen ilusionea, eta emadazu behar dudan grazia zure gurutzeari estecatze-co, jar nadin zure, Mariaren eta Joseperen penetan, zuen imitatzaile, eta goza nadin egunbatez zuen loriaz zuen tabernacle eternaletan. Hala-biz.

Pratica.

Errezibi ditzagun bozcarioekin, Jaincoaren escuetarie, igorrico daizcun tribulazione guziac; eta kharreya ditzagun pro erresinazione perfetarekin erran ditzagun zazpi *Gure Aita* eta *Agur Maria*, san Joseperen ohoretan, hunen bidez ardiesteco gurutzearen alderaco amodioa eta Jaunaren borondateari saieduki jarraikitze-co zoriona.

Exenplua.

Errana da Jesuisten ordenaco, Aita

Luis Lalleman errespeta garriac, bazuela bizitze barnecor edo izpiritualarentzat amodio bat guziz handia, eta hartu zuela san Josepe bere modelatzat, izan zezan bethi begien aintzinean exenplu bat perfecta. Horec merezitu zioen dokain miragarria bertzeri inspiratzeco debozione bera Saindu haren alderat. Hainbertzetarainoco confientzia zuen haren baithan, non ez beitzen graziarie haren artecotasunetic ardiesten etzuenic; hotaracotz ere conxeilu emaiten zioen mundu guziari ohorra zezaten Patriarkha lorios hura, segurutzen zuelarie ardiez daitazkela haren bidez galdegiten diren laguntza eta fagore guziac. San Joseperen bestaco eguna hurbiltzearekin, conxeilu eman zioten comentuco bi nausi gazteri inspira zezoten bere escolierei san Joseperen alderaco debozione bero bat, eta exorta zitzaten manera bereziago batez ohoratzera, Elizac saindu haren orhoitzapenetan egiten duen bestaren aintzineco egunac, agintzen ziotelarie bi nausi hekiei, ardiexico zutela Birjinaren esposa ganic desira zitzazketen

grazia guziac. Bi nausi hec hari izan ziren egin ahalac egiten, bero dizipulu- luen bihotzetan sustatzeco debozione hura, eta hain ongi erreusitu zuten non guziec kharxuki zecelebratu beitzu- ten san Joseperen besta, comuniatu zutelariac egun hantan. Gero joan ziren bi nausi hec aita Lalleman gana, eta hetariac baxhotchac erran zioen segre- tuan zer grazia desiratzen zuen. Batec (hura zen aita Jakes Nobet) galdegini- zuen : Jesu-Cristoz mintzo zenean ja- kin zezan ongi eta digne-ki arrazoina- tzeneta izkiribatzen. Bertzeaz bezen- batean, (aita Paulo Raguendo zen) ez da jakin egundeino zer grazia galdegini- zuen; eta khondatzen zuenean berac gauza hori, bere humilitateac atchiki arazi dio bethi gorderic. Aita Norbet, ethorri zenean san Joseperen besta, opinionez kharbiatu zen; joan zen aita Lalleman gana, erraitera hobeki erre- flexione egin zuela galdegini- zuen gra- ziaren gaincan, eta nahi zukela gal- degini bertze bat, hobeagoa zena per- feccioneco bidean aintzina arazteco. Aita Luise- c ihardexi zioen etzela ge-

hiago denbora, san Josepec ardiexi beitzioen lehena, haren galdera. Gorthatu zen gauzac frogatu du egia, eta ongi clarki erakhusterat emaiten duena da aita Nobeten izkiribuac, liburuac eta haren obra guziac Jesu Christoren handitasunareu gainean, be-theac beitera zeruticaco argi batez, eta capableac beitera ongi ekharriac diren bihotz guziac sutan ezartzeco caritateric kharxuenaz. Hoin miraculuzki ardiexia zuen fagoreac sustatu zuen khar berri batez eta amodioric subar-tenaz san Joseperen alderat, zeinac aintzina bethe beitzuen fagorez, bizi izan zeno. Heriotzeco mementoan, manatu zuen haren thonban ezar zezaten san Joseperen imachina bat. Zonbat grazia debozionezco seinale zinez eman batentzat! (*In ejus vitâ*)

Bihotz altchatzea.

Jesus, Maria eta Josepe emaiten derautzuet ene bihotza, ene izpiritua eta ene bizia.

J. M. J.

HOGOI ETA BIGARREN EGUNA

Familia Sainduaren penac eta chagrinac Echiptoco piajan.

- I. PHONDUA. Ikhus ditzagun familia Sainduaren lanac eta sofricarioae, Echiptorat joateco, egin izan behar zulen piaya luze eta nekharriari, eta enxeya gaiten heyen segitzera gure bihotzeco jaudura guziaz, piaya lanjeros hartan errecontratzen ditu mende chutac, erreca haintz beherac, desertu eta mortu izigarriac, harroca zilho barnac, larre idorrac, oihan latzgarriac, ur-errekac eta ur handiac. Palastinan gaindi pasatzean, behar zen erabili bide zehar eta oroz abandonatuac zirenetaric; eta baldin, Echiptoan, bideac aurkitzen baziren oinezcoentzat behar zitazken bezen onac, etzen hetan errecontratzen jende grosieric eta gogorric baizen. Sasoina hotza zen, ardura uria zen eta haize hotza. Gauetan norat biltzen othezen? Zer

atherpe causitzen othe zuen? Zer lekku causi zezaken egunaz, bideco nekhez, guti bat baizic ez bazen ere, errepausatzeco eta zerbeit jatecoric hartzeco? San Bonabentura da galde hauc guziac egiten dituena. (S. BONAV. *De vita Christi.*) Horiec dira segretu batzu zeruac gorde daizkiguna, bainan ongi errechac penxatzeco erlichione eta sendimendu duen bihotzarentzat.

Ez choilki girichtino grekec eta iatinec, bainan bai oraino Sarrasinec berec uste dute Birjioa Saindua, Bothlemetic burbil, harroca zilho batera bildu zela bere Jesus haurrari bulharra emaiteco, San Josepe joan zen artean ingurunetaco zonbeit etchetara bizi-tzeco behar zutenaren cherkha. Harroca zilho hura ikhusten da oraino, eta han causitzen da herraux churi bat harri batec emaiten duena, zein harrien gainera erori omen beitzen, segurtatzen dutenaren arabera, zonbeit esne chorta Birjinaren bulharretic. Oraino egungo egunean ere, egiten dituzte herraux hartaric bola ttipi batzu, erien sendatzeco baliatzen di-

renac, eta bereziki esneric ez daten emaztekientzat (1).

Baldin espos saindu hec, Palestinan, harroca zilhoetan bazauden, zer atherpe causitu ahal zuten beraz Echiptoco herri barbaroetan, eta desertuan? Zonbat aldiz gauaz (mortu eta desertu izigarri hetan ez aurkhituz, hiruetan hogoi lecoetan, ez etcheric, ez ostaturic), zonbat ez ahal dira borchatuac izan etzatera lurraren gainean, edo oihaneco zonbeit arbolen oinetan, pharatuac denbora gaichtoari, ohoinen escuetarat erortzeco irriscuan, animale salbai eta cruelez irexiac izaiteco meinean? Norbeitec errecontratzen zituenean piaya hartan, ez othe zituen hoin espos miragarriac hartzen jende errumes batzuentzat.

II. PHONDUA. Zer probetchu behar dugu Mariaren eta Joseperen Echiptoco piayatie atheratu guretzat? Orhoit gaiten arrotz batzu garela mundu huntaco

(1) Vid. Christ. Cartr. in historiâ Deiparæ. C. 20.

desertu tristean. Ez gare beraz batere estouatu behar hemen aurkhitzen ditigun errecontru gaichtoez. Ez da pelegriñaric ez bideantie zcinei ez beitzacote, bere piayetan, gerthatzen zontbeit aldiz sofritzea gosea, egarria, hotza, beroa, eta holaco bertze asco pena. Zorigaitz hainarentzat zeinac, dohalaric zeruraco bidean, gibelerat behatzen beitu, eta bihurtzen baita bere urhaxetan gibelerat, izitua, arrazoinic gabe, bidean aurkbitzen dituen penazco gerthacariez; ez da secular bere mugara helduco ! Hau, haiqbertzez gehiago egia da, ez beitoa guretzat lurreco piayabatez choilki, bainan bai zerurat daraman bideaz. *Oraico bizia, dio san Gregorioc, da guretzat egiazco erresumara deraman bide bat bezala; bada, izpiritu gaichtoec, ohoinac iduri, sethioan daucate gure bidea.* (*Hom, 21 In evang.*) Behar gare beraz ongi begiratu ohoin izpirital suerte hetaric, eta ihes egin behar dugu Mariaren eta Joseperen arartecotasun botherexura; behar gare, bereziki, egon ongi gordeac Jesu Cristoren bihotz

sacratuan, han aurkitzen da bakharie segurantzaz; han ikhasten da jasaiten pazientziarekin bizico lanac eta nekkeac; han hartzen da, egiazco ithurrian bezala Ebanjelioco egia hau: ez dela gibelarat behar behatu, nola nahicoac izan daitezken salbamendueo bidean aurkitzen diren trebesiac.

Binasco Beronikha doxaxu, san Augustinen ordenaco serorac, izan zuen bisione bat zeintan iduritzen beitzan gon Echiptoco piaya hartan lagun zohala familia sainduarekin, eta Birjina Sainduac erraiten zioela: *Ene haurra, ikhusi ditun Echiptora heldu artean jasaileco izan ditugun nekheac, penac eta lanjerac. Bada! jakin zan graziac ez direla secular emaiten pazientziarexin jasaiten diren sofricarioei baizen.*

Othoitza

Ene Jaincoa, flacoen egiazco indarra, sobera baizic ez ditut maitatu mundu huntaco desertu zorigaitzezcorren axegin falxuac! Sobera baizic ez diotet ihes egin zure amorea gatic sofrizeco ocasionci! Nolacoa ez lai-

teke izan behar ene ahalgea ! Ochala ! doloreric minenean sartzen banintz, ene Jesus guziz ona ! egizu bethicotz ihes egin dezadan zure bihotz maitagarrira ! helas ! errezibi nezazu, grazia hori galdegiten dautzut Maria, zure ama maitearekin eta san Joseperekin Echiptoratihes joan zinenean jasaiteo izan dituzun irriscu eta sofricario suerte guzien orhoitzapenetan. Birjina Saindua, san Josepe loriosa, defenda nezazue ene pasioneen contra, eta sustenga zazue ene flakezia, hartzen nauzuelaric zuen arartecotasun maitagarriaren azpian. Zuen laguntzaz hazcartua, esperantza dut garhaituco ditudala, aurkhitzen naizen desertu huntaco tentazione eta gerthacari gaichto guziac, eta hainbertze guduea enheagarrien ondotic, helduco naizela azkenecotz zorioneco egoitza hartara, zeintaric bethicotz casatuac beitira penac, guducac eta lanjer guziac. Halabiz.

Pratica.

Ez gaiten behin ere bara, ez dezagun seculan beha gibeterat salbamen-

duco bidean. Costuma gaiten egun oroz sofritzen zerbeit familia sainduaren ohoretan, ikhas dezagun zerbeitez pribatzen gure jan orduetan.

Exenplua.

Abizpa Zezila *Portaro* errespeta-
ria, Milanecoa, san Franxes Asise-
aren hirugerren ordreco serora, ezin
gehiago zen debota san Joseperen al-
derat, barur egiten zuen ogian eta
urean, haren ohoretan, artezken gu-
ziez. Saindu haren ganic errezibitu
izan dituen hainitz bertze grazien ar-
tean, behar da seinalatu bere piayeta-
ric batean izan zuena. Phartitu zen
bertze zonbeit serorekin joateco bei-
laz, Sizilan *Trapanico* andredena Ma-
riaren bisitatzeri. Etcherat bihurtzean,
abandonatu zuten mariñelec, eta utzi
ixas basterrean. gaiaz, bere lagunekin,
zeinac, uso inozent batzuen pare, he-
rabe eta izicor, latztuac eta ikhatuac
beitziren, etzakitelaric zer bide har
toki arrotz hartan. Penetan eta beldur-
rean zaudelaric, ikhusi zuten zahar
errespeta garri bat, makhila bat es-

cuan, prest zagola norapeit abiatzeco ;
ofritu zioten bere burua gidaritzat
gaueco ilhunbeen erdian ; eta nola
ikhusten beittut, erraiten diote, badu-
zuela norbeiten beharra zuen cargin
eremaiteco. huna ene ondoan gizon
gazte bat joanen dazkitzuen. Ongi
gogotic ophosten ditugu, ihardesten
diote serorec. bai zure ofrimen jene-
rosa, bai zure conpeinia maitagarria ;
bainan, urrun joaiteco izanen duzu, za-
har guziz ona, ezen gu gauden etchea
san Josepeco carrica da. Han egoiten
naiz neroni ere, ihardesten dio zahar-
rac : Goizin, arrebac, ez deusen beldu-
ric izan. Ereman zituen erran lekhura ;
eta gizon gazteac pausatu ondoan bor-
tha alhartzean ekhartzen zuen carga,
serorec burua itzatzarekin eskerrac
emaiteco, etzuten gehiago nihor ikhusi.
Gerthaeari miresteco hartaz espanti-
tuac, abiatu ziren elgarrekin solasean,
eta penxatu zuten heyen gidaria behar
zela izan san Josepe, dudarie gabe,
Sizileco patroina ; eta gizon gaztea, zei-
nac ekharri beitzozcaten beren arro-
pac, zaitekela heyen aingeru begirale-

taric bat. (*Légendaire franciscain, 19 juin.*)

Bihotz altchatzea

Jesus, Maria eta Josepe, emaiten daitzuet ene bihotza, ene izpiritua eta ene bizia.

J. M. J.

HOGOÏ ETA HIRUGARREN EGUNA

Familia Sainduaren egoitza Echiptoan.

I. PHONDUA. Gogoan ongi har dezagun zombat sofritu behar izan zuen familia sainduac Echiptoco herri barbaroetan, han egon zen, uzte komunaren arabera, zazpi urtheren inguruan. (*Vid. Trombel. in vita Deip.*) Onxa ezagutzeco populu baren gogortasuna, aski da choilki ikhustea Escriptura saindua, zeinac erraiten batu zoin gogorki ekharria izan den nazione haren erdian Israelgo populua, Pharaonen denboran, zeina ezin libratua izan bei-

izen baina esclabotasun gogorretic, Jaincoac obratu zituen inobreco miraculuen hidez baizen. Maria eta Josepe trabailatzen ziren, baxhotcha bere aldetic, bere biziaren irabazteco; Josepe botica batean, behar bada eguneari edo jornalier chinple bat bezala, eta Birjina bere etchean, zuelaric, dudu gabe, hainitz escas eta hainitz behar jasaiteco; bere conpeinian zuela bethi bere Jainco haurra, zeina continoki beitzaucan bere begien bichtan, eta zeinac egiten beitzuen amaren bozcarioa. *Nola pobreac beitziren, dio san Basilioc, bichtan da lan nekhatzecoetan hari behar zirela, bizitzeco behar zizuten gauzen cobratzeco.*

Zonbat injustizia izan ahal duten jasaiteco bai marchandisac saltzen ziozcatenen phartetic, bai erosten ziozcatenen aldetic, hala nola zeinentzat hartzen beitziren lanean eta hetaric! Ez bada deus comunagoric, oraico fidelen beren artean (eta ochala! hori hala ez balitz), zer ez dute beraz sofritzeco izan jende idolatren erdian. Ah! zertaco etzaucan emana Eseritura sainduac ichi-

lic daucanaren ezagutzea, eta ongi jakitea zer bizi ereman zuten populu abarizios, eta cruel baten erdian? Behar bada harrapa ginitzazke mila gertacari zeintan Jainco haur hura, haren ama saildua eta san Josepe causitu beitira jateco ogiric gabe! *Jesus haurrac, gosez hertchatua, galdatu dio zontbeit aldiz ogia bere amari, hunec izan gabe emaiteco, Saxeco Laudolphec izkiribatu duen bezala.* Zer martirio suertea, caritatez erretzen hari diren bihotz baizuentzat! Errumescac diren aita amec dute ongi senditzen zoin den bihotz erdiragarri ikhustea haurrac gosez, jatera emaitecoric izan gabe. Bizkitartean Birjina Sailduac eta san Josepec erresinazionerekin hartzen zuten Jaunaren escutic estatu doloragarri hori, jakin gabe oraino zontbat irau behar zuen desterru harec.

II. PHONDUA. Barbaro herri batean izan gabe. aurkhitzen gare Eliza, gure ama sailduaren galtzarrean, eta hunen haurren erdian, zeinac baitira gure aneyac eta arrebac; bizkitartean

plenitzen gare ardura gure zortheaz. Baldin zonbeit aldiz pena eta chagrin handitan aurkhitzen bagare, causitzen dogu bederen norbeit conxolatzaile; badin zonbeit aneyen aldetic gaizki erabiliac bagare, egiazco ginchtinoec ordainez ongi ekhartzen gaituzte; nola nahizcoac daitezken zure sofricarioac ala zure sor lekhuac, ala zure etchean, deus ezece dira familia sainduac herri arrotzean pairatu dituenen aldean. Bai, nola nahizcoac izan daitezken zure penac eta nahi gabeac, orhoit zaite hobendun zarela, eta baldin Jaincoac garrakki nabi bazinitu ekharri, etzinitake gai ifernuco surat aurdikia izaiteco baizen; aldiz, familia sacratuac, contrarat, urrun da merezi beitzuen, izan den bezala, affliitua izaitea gaitz suerte guziez, gai zen eta digne zeruco plazer eta bozcario guziez gozatzeco. Zer solemendu gozoa sofricarioetan diren arimentzat, jakitea baituztela Jesus, Maria eta Josepe laguntzat, lurreco desterru huntan jasaiten dituzten tribulazionetan.

Othoitza

Jesus Jauna! enetzat amodioz izan zare hoinbertze astitua zure haurtasunetic; noiz bada zaitut imitatuco zure penetan? Izan daiteke bada errefusa dezadan sofritzea, ez dezadan jasan memento bat baizen irauten ez duen tribulazionea, nic zeinac merezi beittitut gaztigu eternalac? Nolacoa ez da beraz ene bihotzeco ixumendua? Zer urguiluc ez nauea irexia? Biziki argitua ene gainerat bedatzen duzun argiphuru eta ezti hortaz. Jainco haurra, Jainco amulxua, deithoratzen ditut khireski ene ixumendua, ene urguilua eta ene higuintza sofricarioentzat. Ikhus othe ditzazket bada acholarie gabe Jainco baten, haren amaren eta haren aita ordearen penac, nekbeac, abidurac eta herxdurac, erreportchuric egin gabe ene buruari dudan uzcurtasunaz pobreziarentzat, nekhe eta afliczionentzat? Ez, ez da hola izanen, hartzen dut memento huntaric erresoluzionea zure imitatzeco eta zure urbaxen segitzeco, amoreagatic eta zure tribula-

zionetan partalier jarriz desterruco lekhu huntan, pharte izan dezadan uruski zure lorian eta zure zorion eternalean. Hala-biz.

Pratica

Leyalac izan gaiten othoitz huntan hartu erresoluzionen obretan emaiteco erran ditzagun zazpi *Gure Aita* eta zazpi *Agur Maria*, familia sainduac Echip-toan iragan dituen zazpi urthen orhoitzapenetan, galde gitecolzat behar ditzugun laguntzac gure pena eta gure malurretan, eta bereziki ardiestecotzat grazia heyen jasaiteco pazientziarekin eta erresinazione saindu batekin gaudelarie osoki Jaincoaren borondatera, zeinac ez beitauczu igortzen axecabeac baizic ere gure bekhatuetaric garbitzeco.

Exenplua

San Joseperen alderaco debozitionean saindu harri eman daiteken errespetuzco seinale gebienic agradatzen zayona da, haren ohoratzeco, haren bihotzeco dolore minetan, eta bozca-

rio loriagarrietan, bihotzez sartzea, batzu eta bertzeac zazpietara bihurtzen dira. Debozione suerte huni bere ethorkia heldu zaco, san Joseperen debozioneaz izkiribatu duten guziec ekhartzen duten gerthacari miraculuzco huntaric.

-Bi fraide franzizcanoac untzian zohazin Flandreco ixasoan. Eraunxia bat hain izigarria alchatu zen non untzia hondatu beitzen. Hiru ehun presuna baziren untzian. Bi fraideac aski urusac izan ziren lotzeco untzi phorrosca-tuco taula pusca bati. Hiru gau egunez, bere taulari lothuac zauden, tulu-bioac alde guzietarat botaca zabiltzala; neke da idea justu bat izaitea heyen izaiteco molde ikharagarriaz; batean auhinec alchatzen ziuzten, iduriz, hedoietaraino, bertzean iduri zuten sartzen zirela ixasoaren erayetaraino, bertze batzuetan mendiac bezala erortzen zainzcoten auhinac bere gainera eta lehertzen ziuzten. Indarrac ttipituac, doi doya zuten aski taula escutic espacatzera ez uzteco. Estatu desolagarri hartan, bere arimaren erditic,

oihu egiten diote san Joseperi zeinarentzat beitzuten bethi danic debozione kharxu bat, jaritzen dira confientziaric handienarekin haren arartecotasunaren azpian. Hirugarren egunean (zeina aperentzia guziaren arabera azkena izanen beitzen heyentzat) san Josepe agertu zitzayoten, edertasunez eta majestateg bezthericaco gizon gaste baten idurian; bere taularen gainean ikhusten dote, nihorc ezin erran bezenbat espantimendurekin. San Josepec egiten diote bere agurra aire arrai batekin; halaco agurrac almu emaiten diote eta curayastatzen ditu; izaiten dituste indar berriac; sainduac eremaiten ditu untzi gobernatzaille abilenac bezala lurrera. Han belhaunica emanic, bi fraidec eskerac bihurtu ziozcaten Jaincoari egitetie heldu zangoten ongi egin handiaz; eta gero itzultzen zirelaric gizon gaztearen alde rat, zeina ez beitzuten ezagutzen, othoiztu zuten ezagut araz zezoten bere burua : *Josepe naiz*, erran zioten; eta e-akhuxi ondoan mundu huntan izau zuten zazpi doloreac eta zazpi alegrian.

tziac, erran zioten continoki bere arar-tecotasunaren azpian atchikico zituela, beyen orhoitzapena eginen zuten gu-ziac lurraren gainean. Hori erran eta ixaasi zen uzten zituelarie bi fraideac betheac loriaz eta ezagutzaz (GRATIAN, *in vitâ S. Joseph* CAROL. STENGEL. *in hist. ejusdem, Cap. 15.*)

Bihotz altchatzea.

Jesus, Maria eta Josepe, emaiten dauzkitzuet ene bihotza, ene izpiritua eta ene bizia.

J. M. J.

HOGOI ETA LAUGARREN EGUNA

Jesusen bihurtzea bere herrirat
Echiptotic.

I. PHONDUA. Ikhus dezagun nola, familia saindua Echiptoan zenetic zaz-pigerren urthean, aingeru bat agertzen zayon Jaincoaren phartez Joseperi, eta nola manatzen dioen bihur dadin Isra-elgo lurrerat, zeren Herodes eta bertze

Jesus haurrari bizia khendu nahi zio-
tenac, bilac beitziren jadanic : *Altcha*
zaite, erran zioen, *har zazu haurra eta*
haren ama, eta zohaz Israelgo lurrera;
ezen haurraren hiltzea cherkhatzen zu-
tenac, ez dira gehiago. Horre!a bethe
zen Osee profetaren errana : *Ekhar*
arazi dut ene haurra Echiptotic. Norc
seculan erran dezake nolaco sendi-
mendua egin zuen holaco manuac Ma-
riaren eta Joseperen bihotzetan, ikhu-
siz desterrutic deithuac zirela bere er-
resumara zeina, nahi bezen esker-
gabea zen beyen alderat, halaric ore
maite betzuten eta gutiziatzen, bai Ju-
deaco populuarekin ziuzen lokharriac
zirela causa, bai zeren zakiten Jesus
mundura ethorria zela Israeltarren
santificatzeco bere exenpluez eta bere
dotrinaz. Ahuspez iarriac bere Jainco
haurrarekin, benedicatzen dute Jainco
Aitaren manua, eta preparatzen dira
phartitzera. Gerthacari huntaz min-
tatzean, san Bonabenturac gogoari
emaiten-zioen zer penac ahal zituzken
Birjina sainduac, ikhustiaz bere haur
maitea piaya berri bateco nekhera

pharatuá, etzuen denboran oraino zazpi urthe baizic, sobera handia amac besoetan erabiltzeco, eta oinez ibiltzeco ttipiegia (*Sic magnus est ut portari non valeat, et sic parvus quod per se ire non potest*). Judeala jenu direnean, non uste beitzuen san Josepec Salbatzaileac bere egoitza egin nahico zuela, hautatzen zuelarie Jerusalemeco hiria bere egon tokitzat, han aurkbitzen zirela-coan tenploa eta profeten orhoitzapena zakhartketen asco gauza (Penxamendu hau san Augustinarena da: *De consensu Evang. c. g.*) Josepe harritu zen, aditzearekin Herodesen semeac, Arkhelaus, gizon cruela zuela han erreginatzen (*audiens, quod Archelaus regnaret in Judeâ... timuit illo ire*, san Math. 2.); baman Jaunaren aingeruac abertitu zuen amexetan Galilearat bihur zadin, non erreginatzen beitzuen Herodes Antipatec. Josepec obeditzen du eta badoha Nazareth, bere herrira, Jesus haurrarekin conpli zadintzat profezia, zeinac beitzioen: deithua izanen da Nazarendarra; *quoniam Nazareus vocabitur*. Titulu hori

emana izan zangon, bere heriotzean, gurutzearen gainean. Hori gerthatu zen urtharilaren zazpian. Egun hartan ekhartzen du elizac horren orhoitzapena Martirolochia romanoan.

II. PHONDUA. Holacoa da zerurat ereman behar gaituen bidea, erran nahi da, bide gaitza, zeiharra, lanjerosa, eta zeintan beita bethi beldurtzeco. Bainan jaincoac begiratuco gaitu irrichu ete beldur guzietaric, baldin egiten badugu piaya hori Birjina sainduac eta san Josepec, Echiptotic bihurtzean Judeara, zituzten chedeac bezen sainduekin. San Josepe, abertitua Judearat joaiteco zen irrichuaz, beldurtu zen harat joaiteco : *timuit illo ire*. Etzuen deus nahi izan irrichuatu, nahiz berekin zuen munduaren Nausi soberanoa; beldur zen guzien gatic ere : *timuit*. Zonbat girichtino ez da, beren experientziaz jakinic ere halaco conpeinian, halaco etchean, hulaco edo halaco lekhan, aurkhitzen dela, ez Arkhelaus bat, bainan bai debrua bera, tirano maltzur eta cruel hura, holaric

ere beitohazi hau galtzeco lanjerera, *non timent illo ire*, izan gabe, san Josepec bezala, Jesus bere bezoetan? Bainan izan bedi ekhar dezaten bere barnean berean comunione sainduaren bidez; ez laiteke, balarik ere, temerario izaitca heyen phartetic, joaitca borondeski lanjerera, zeintan Jaincoac berac segurutzen beitu ez daitekela galbaizen? ez, ez da han segurantza egiazcota deraman bidea; eta baldin nahi badugu egiazki ona den bidea causitu, behar dugu san Josepec erakhaxia segitu, hau erretiratu zen Galileara, manua izan zuenbezen laster : *Admonitus in somnis, recessit in partes Galileæ*. Gure aingeru begiraleac ez du faltatzen secular gure abertitzea gure lanjeretan, eta bere ahalac egiten ditu gu hetaric urrun arazteco: Obedi dezagun bere abisu salbagarrietan. Horrela, uruski libratuac izanen gare irricheu eta beldur guzietaric; eta familia sacratua, Jesus, Maria eta Josepe heldu izan ziren bezala uruski bereo herrira, orobat helduco gare gu ere gurerat, zeina beita Parabisua.

Othoitza.

Jesus ezitia! ala urrun aurkhitzen beinaiz zorioneco toki hortaric, zeintarat deitzen beinaizu continoki. Ala zuhurtziariac gabe bizi beinaiz eta sobera khondatzen beitat ene indarretan, edo hobeki, ene flakezian! iduri du inguratzen nauten lanjerac ez ditudala aski, neroni nohanaz geroz lanjerketa. Ah! ene Jaincoa, urricai beinakitzu. Ez, ez naiz gehiago etche hartan agertuco, lekhu hartan, zeintan ene arimac irricherrie handienac causitzen baititu galtzeco bethicotz.

Nahi naiz zinez urrundu bekhatuan eror araz nezaketen lekhu, presona eta gauza guzietaric; eta hori zuri obeditezeco. Birjina Saindua eta san Josepe dohaxuac etzaitezela contenta irakhas-teaz zoin bidetaric behar naizen iragan, bainan ardiex diezadazuet oraino grazia bethi zuen urhaxen gainean ibiltzeco, nahi bezen nekhagarri iduritzen zaizkidan, hel nadin orai zuec zareten lekhu, eta goza nadin Jaunac bere zerbitzariantzat dauzan loria eta zori on eternalaz. Hala-biz.

Pratica

Ihes egin dezagun bekhatuco irrichcu guzietaric, eta goaziu san Joseperen gana aurkhi gaitezken lanjeretan.

Exenplua

San Augustinen ordeco, Anversen dīren calonjesen comentuan, bazen serora bat Elisabeth deitzen zena, zeinac, hiru urthe eta erdi hartan beitzituen sofricario handiac harriaren phartetic; doloreac hain biziac zituen non bethi sukharra hartua beitzaucan. Flacazan hain lanjeroski erortzen zen non miricuec jujatu beitzuten gaitza ezin sendatuazela, zeren harria hainitz handitua beitzen eta ez beitzitaken egin gehiago operazioneric. Serora gaicho harec, ikhusiz gizonec exitua zutela, oihu egin zuen zerurat. Eta nōla hainitz debozione beitzuen san Joseperen alderat, haren beithan eman zuen bere confientzia guzia, Jaincoaren ondotic. Ezarri zuen gerrico bat benedicatua saindu haren izenean; egin ziozcan othoitziac kharxuenac, mortificatu zen

ardiestea gatic sendatzeco grazia. Hain confientzia bizia hartu zuen etzangola errefusatua izanen, non bere priorari atchiki beitzioen lengoya hau : *Zaude seguratu, ene ama maitea, san Joseperen laguntzarekin batean, ekharrico dautzudala, ene escuz, hain cruelki tormenta-tzen nauen harri hau.*

Ereiaroaren hamarrean 1659 urthean, sofricarioic izigarrienenetan aurkbitzen zen mementoan, sustengatua bere ahizpez, zeinac bigarretan beitzauden, ezarri zen belhaunica san Joseperen potretaren aintziñean, othoizten zuelarioic lagun zezan. Memento berean, zaurthu gabe, eta doloreric den mendrena senditu gabe, causitu zen libratua harri hainitz larria zen batetarioic, eta erran bezala, joan zioen bere ama superiorari, zeina berehala, bere serorekin, abiatu beitzen eskerrac bihurtzen san Joseperi

Ereiaroaren hirurean, bertze urthean, egin zuten acta publico bat notariaren escuz gerthacari miresteco horren gainean.

Harri harrec pisu zuen hiru untza,

eta ezarri zuten agerian san Joseperen aldarean, izan zadin hain miraculu sandiaren orhoitzapeneco gauza bat bezala.

Harri harren ikhustera joan ziren miricuetaric bat hereticoa zen, zeina, atentzionerekin examinatu ondoan bai harria, bai hartaric sendatzeco gertatu molde guziac, bortchatua izan beitzen aithortzera horrela sendatzea egiazko miraculua zela. (*Apud Bolland. act. S. Joseph. paragr. 10*)

Bihotz altchatzea

Jesus, Maria eta Josepe, emaiten daitzuet ene bihotza, ene izpiritua eta ene bizia.

J. M. J.

HOGOI ETA BORTZGARREN EGUNA.

Familia Sainduaren urthe guzietao piaja tenplora.

I. PHONDUA. Ongi har dezagun go-goan nola Mariac eta Josepec eremai-

ten zuten Jesus haurra Jerusalemeco tenplora, urthe guziez Pazeo denboran. *Et ibant parentes ejus per omnes annos in Jerusalem in die solemni Paschæ.* Bizkitartean, etziren oraino beldurric gabe Arkhelausen phartetic, zeinac erreginatzen beitzuen bere aitaren orde. Jendezco ospearen artean gorde zitazken, dio san Augustinec : *Eta hain laster bihurtuz, aintzinean egoiteco beldur ziren lekhuetarat, leyalac agertzen ziren legearen manuei obeditzeco, irrichuz canpo emaiten ziren denboran, egoitza luzeago batec ekhar zezoketen lanjerean ez erortzeco.* (Lib. 2. *De consensu Evang.*) Ageri da hortie beldurra etzela traba bat beyen erlichionezco sendimenduentzat. eta aurkhitzen zutela bere prudentzian gordeperic segurena. Hemen dio san Eucheree espos saindu hec etzirela baratzen urthe guziez Jerusalemera joaitetic, nahiz etziren obligatuac lege comun hari obeditzera, zutenaz geroz berekin lege egilea bera, zeina ez beitzen bortchaturia bere legearen begiratzera. Bazohazin legearen ikhastera, sacrificioetan

pharte hartzera, aurkhitzera Pazcoco solenitatean, begiratzen zutelariciduria edo figura, nahiz bazaucoten berekin egia eta errealitatea bere Jainco haur-raren presunan. *Et ejus adhuc umbræ serviebant cujus jam tenebant veritatem.* (In cap. 2. Luc.)

Solenitate hartan iragaiten ziren guzic figuratzen zuten Jesu-Cristoren pasionea, heriotzea, biztea, eta hartaz testament zaharrean izkiribatua zen guzia. Jesus aurkhitzen zen beraz besta batean, zeinaren begico bakharra eta akhabantza bera beitzen. Bai Jesus figuratzen zoten bildox hil eta larrutuec, imolatzen zituzten zezenec, eta ofritzen ziren sacrificioec: *Ipse jugulabatur in agnis, immolabatur in vitulis, et in omnibus sacrificiis offerebatur.* Haren ama sainduac ere aditzen zituen asco gauza berari behatzen zainzconac bai legean, bai profetetan, zakitzanac jadanic, eta zoinctaric zenbeit izanac beitziren betheac haren beithan. Penxatzeco dugu san Josepez ere gauza bera uste izaiteco dela. Hortic, nolacoac etziren behar izan heyen bi-

hotzeco sendimenduac hoin gauza miragarrien bichtan?

II. PHONDUA. Egin ditzagun erre-
flexione seriosac holaco exenpluen
gainean, eta examina gaiten ongi eya
igande bestetaco solenitatean, agertzen
garen elizetan holaco debozionearekin,
eta chede berekin. O Jainco handia!
oihu egiteu zuen Errege profetae, ni-
garra begietan : Paganoac ethorri-
dira, eta profanatu dute zure tenplu-
saindoa : *Deus! venerunt gentes, pol-
luerunt templum sanctum tuum.* Zer
ez laiteke erran behar girichtinoec
berec egiten duten profanazioneaz
Jaunaren etcheaz? Zonbat arrazoin
gehiago ezlukete khire-ki nigar egiteco
egiazko girichtino leyalec, eta Jaincoa-
ren etchearentzat khar eta errespetu
datenecc, ikhustearekin othoitzeco et-
cheaz ascoec egiten duten profanazio-
neaz. Dezagun erran bihotz minekin,
oraico denboran, gure elizac gutiago
direla errespetatuac bertze asco mun-
dutarren bilkhuetaco lekhu beino; iduri
dute hainitzec ez direla heldu Jaincoa-

ren adoratzerá, bere huxez humiliatze-
ra, escas diuzten grazien galdegitera
mezaco sacrificio sainduan, bainan bai
hobeki denboraren iragaitera, bere
buruen erákhustera edo bere curiosta-
sunaren bethetzera. Nor dira egun
fede bizi batekin Escriptura sacratuco
hitz hauc adituric : *Quam terribilis
est locus iste!* Zoin terriblea den lekhu
hau ! hauda Jaincoaren etchea : nor
dira, diot, egungo egunean, elzetan
ikhara saindu batekin sartzen direnac,
hetan ikhara sainduarekin daudenac,
hetaric ikhara sainduarekin atheratzen
direnac? Paganoec errespetu gehiago
agertzen dute bere Jainco falxuen
tenpluetan, ezinez asco girichtinoec
bere Jainco egiazcoaren etchetan ; hor-
taeotz nigarrekin erran dezakegu :
*Jainco handia ! Paganoac ethorri dira,
eta profanatu dute zure templu saindua.*
Bai, Jauna, zure girichtinoac pagano
bilhacatu dira.

Othoitza.

Jesus ezlia, kharrez bethea zarena
zure etche sainduaren ohoretaco, ocha-

la! imitatzen bazinu eman daucuzun
exemplua, zure elizentzat behar ginu-
ken errespetuaren gainean. Egundeino
etzaituzte ikhusi atheratzen (hunela
mintzatzea zilhegi bada), ez-titasuneco
carater hortarie, salbu bizitasunekin
erreportebatu dituzunean zure tenpla
sainduaren profanatzailcac, eta handie
hasarradurarekin casatu dituzunean.
Nola ekharrieco nauzu nihoroni, hain-
bertze aldiz desohoratu dudanean zure
etchea, ez naizenaz geroz gebienetan
han sartu costumaz bezala baizen,
izpiritu bildu bat gabe, debozioneric
ez federic zure presentzia sainduaren-
tzat erakhuxi gabe. O ene Jaincoa! o
ene juyea! latzten naiz ene profana-
zionen orhoitzapenean! Birjina sain-
dua, san Josepe loriosa galda zozue
barkhamendua enetzat zueu Seme ado-
ragarriari! ezti zazue haren ene alde-
raco hasarredura, eta ardiex dieza-
dazue creatura guzien Nausi soberano
horren gatic, zuec Jaunaren tenpluan
agertu duzuen izpiritu eta errespetu
bera, errepara ditzadan amorea gatic,
hil beino lehen, elizetan egin abal di-

tuzkedan profanazione, errespetu escas eta eman ahal ditudan escandala guziac. Hala-biz.

Pratica.

Ager gaiten elizetan, erakhusterat emaiten dugun bezala barat ethorriac garelá Jaunaren ohoratzerá, eta haren amodioaren eta haren grazien galdegi-tera. Gehazin egun elizara, ahal badaugu, Jesus Jaunari gure adorazio-nezco eta errespetuzco seiualearen emaitera, eta Ama Birjinac eta san Josep-ec tenpluan agertzen zuten debo- zionea imitatuzco graziaren galdegi-tera.

Exenplua.

Hiru nobiza Jesuistac zabiltzan, pe- legrin bezala, piayan, apostolu bizirat eta ministerioco nekhe, pena eta es- casetarat costumatzeco, ordena hor- tacio membroec duten zorthearen ara- bera. Bere piayan, causitu ziren aldi- batez larre hedadura handico baten erdian, akhituac eta gosez hertchatuac, izan gabe ogi pusca bat ere jateco, ez

ur chorta bat edateco, nahiz egarriac hagoan zauzcan. Pausatu ziuzten beren paketac, eta jarri ziren apher bat descaxatzeco. Hoinbertzenarekin, ikhusi ziuzten beren ganat heldu zainzcotela gizon bat eta emazteki bat haur bat bere besoetan zakharkela. Nobizen ondora zireneco, egin zioten agur arrai bat, eta presentatu ziozeaten gostuco jatecoetan zaiteken hoberenetaric; jastatu zutenean, sendituric bere buruac hazcartuac, espantituac zauden, nahico zuketen eskerrac eman bere ongi egilei eta jakin nor ziren, bere ezagutza seinalatzeco; baina ikhustatez eta modestiaz galdegitera ezin menturatu ziren. Heyen ikhustatea ongi saristatua izan zen hitz miresteco hautaz : *guc egina da Jesu-ten ordena: Nos fundavimus societatem Jesu.* Hori erran eta ixaazi ziren hirurac nobizen bichtatic; hauec errechki ezagutu zuten arrotz, bere ongi egile hec, zirela Jesus, Maria eta Josepe, ahaspez eman ziren hekiei eskerrac emateco; batec bertzea exortatzen zutelaric ez seculan galzeaz ongi egin miragarri

horren orhoitzapena, eta gai bilhacatzeaz familia sailduaren arartecotasun puchantaren ardiesteco.

Pelegrin ibil ez ditazken girichtinoec, behar dute ordainez debozione berezi bat izan Jesusen, Mariaren eta Joseperen alderat, seguratuac lagunduac izanen direla hetaz bere behar orđu guzietan. (Vid. Nadasi, *Hist. dier. mem., die 4 martii.*)

Bihotz Alchatzea

Jesus, Maria eta Josepe emaiten daizkitzuet ene bihotza, ene izpiritua eta ene bizia.

J. M. J.

HOGOI ETA SEIGARREN EGUNA

Jesus haurra baratzen da Jerusalem

I. PHONDUA. Ekhar dezagun gogora Mariac eta Josepec nola galdu zuten Jesus Jerusalemeco tenpluan, eta zer changrinekin bilhatu zuten bere haur

maitea. Bi espos saindu hec usayan ziren, aintzineco meditazionean ikhusi den bezala; Jesusen eremaiteco, urthe oroz, tenplara. Joan zirenean beraz Jerusalemera Pazco besten zelebra- tzeco (Jesusen orduan hamabi urthe zituen), bada, gerthatu zen, probiden- tziaren zeroticaco arrimuz, haurra gel- ditu beitzangoten tenpluan. Ama sain- dua, eta Josepe bere aita ordea batere ohartu gabe, ustez bideco zonbeit la- gunekin zuten bere haurra, phartitu ziren Nazaretherat, utziric Jesus Jeru- salemeco hirian; ohartu zirenean haurra escas zutela, guziei abiatu zi- ren galdez eya ikhusi zuten nihore? Bainan bat etzen satisfatzeco moldean ihardesten ziotenic. Gizonen lengoayac ez du hitzeuntzaric erraiteco aita ama heyen dolorea eta bihotz mina zoin desolagarria izan zen. Etzezaketen deus gal hain maiteric, sorthuz geroz bethi bere begien aintzinean izana zuten haur maitagarri hura. Zeru justua? zer dolorea, zer zauria, Mariarena eta Jo- seperena bezalaco bihotzentzat!

Zer hax beherapenac, zer nigar kbi-

rexac! berehala badohazi gibelerat haurra cherkhatzeco, curritzen dute hiri guzia. Etzen carrica bat, ez plaza bat, ibili etzirenic bere tresoraren bilha. Bere tenpluan zen, dio Ebanjelioac; eta han aurkhitu zuten, biru egunen buruan. Jainco handia! ala denbora hura luzea beitzen hain ongi bēre caltea prezatzen zakiten arimentzat! Zer khirestasun, zer pena etzuten sofritu, dio Origenec. Bi espos sainduen humilitate handiac beldurtzerat emaiten zioten Jesusec utzi eta abandonatu ahal zituela. *Quærebunt eum ne forte reliquisset eos.* (hom. in Cap. 2. Luc.) Autor berac Epifaniaco octabaco homelian, dio: Birjinac holaco occasionean gehiago sofritu zuela bertze martir guziac beino, eta gauza bera dio san Josepez.

II. PHONDUA. Zeru justua! Zonbat arimec ez dute galdu bere bekhatuez bere Jaincoaren amodioa; eta ez dira bizi urrun haren ganic! Hori hala izan agatic ere, badaramate bere denbora libertimendu banoetan, bozcario zo-

roetan, erreflexioneric chumeena egin gabe, ez desplazeric den mendrena senditu gabe, heyentzat hain caltecor den Jaincoaren ganicaco urruntasunaz! Zori gaitz hori heldu da edo zeren geroi sepharatzen beicare Jaincoa ganic, edo zeren Jaincoa bera gutaric sepharatzen beita; lehen sepharazio-nea ez da secular heldu gure faltaz baizen, eta da edo osoa, eta orduan bekhatu mortalaz: *Peccata vestra dividerunt inter vos et Deum vestrum*; edo ez da osoa, eta orduan datza urruntasun suerte batean, egina ezagutza oso-arekin egiten diren bekhatu benialez, zeinec gabetzen beicaituzte Jaincoaren ganicaco conxolazionez, eta harekiaco familiertasun gozoaz. Sepharazione horietaric bata nola bertzea ongi beldurtzeacoac dira. Bekhatu benialetaric heldu denac laster osoki sephara araz gaitzazke, eror araziz bekhatu mortalean, hortaracotz ere bethi beldurtzeacoa da; bainan lehen sepharazioneac merezi ditu gure nigar guziac, denaz geroz bizian gertha dakikegun zori gaitzie izigarriena. Jaincoa iduriz ur-

run daiteke gu ganic, gure faltarie izan gabe, edo hobeki erraiteco, Jaincoac iduri du zenbeit aldiz sepharutzen dela gutarie, sepharatu nahi izan zen bezala lere dizipuluetarie Emausco bidean : *Finxit se longius ire.* Horrec ez gaitu behar izitu^g; Jaunac, gure haren alde-râco amodioaren frogatzeco, egiten duenaz geroz alegiazco sepharazione hori. Jaincoa aurkhitzen dugunean gutarie urrundua, goardia eman dezagun nola garen ekharriac haren alderat; gure falta bada, egin dezagun nigar, deith dezagun bihotzeco dolorerie minenaz. Ez bada gure faltarie, ez gaiten nahas ez trubla, erran dezogun cantica sacratuetaco esposarekin : bihur zaite ene guziz bihotzeco Jaincoa, bihur zaite : *Revertere, revertere.*

Othoitza

Zertaco, o Jainco guziz ezta, ene biziaren Jaincoa! Zertaco, erranen derautzut Jacobekin, zertaco gordetzen dautazu zure beithartea? Zertaco narabilazu exai bat bezala? Gordetzen zauzkidanean, erortzen naiz ordu be-

rean trubleric handienera. Helas ! sobera baizic ez dut ezagutzen zer dela cauza zaren urruntzen ene ganic, ene hobenac dira zure urruntzearen causac. Urrical beinakizu, Jauna, hurbil zaizkit eta egidazu misericordia. Ene Jesusen ama samurra, san Josepe loriosa, ardiex diezadazuet ene Jaincoaren bihurtzea ene arimara ; galdegiten dautzuet grazia hori zuen bihotzec Jesus haurra, zuen faltarie gabe, galdu zintutenean, senditu zuten dolore khirexaren bidez. Bihur diezadazuet Jainco amodioz bethe hori, eta ez beitezat secular gal ene bekhatuez.

Pratica

Beldur izan gaiten gal gure bekhatuez Jesu-Cristoren amodioa, zeinac egin behar beitu mundu huntaco eta bertzeco gure zoriona. Egin ditzagun egun bereziki zonbeit contrizionezco acta, eta enxeya gaiten gure bihotzetan egiazko bekhatuen urrikia soraraztera. Jesusen izenean galda dezagun grazia hori, ararteco ezartzen ditugularic Maria saindua eta san Josepe.

Bxenplua

Parisan aurkhitzen zen eliza gizon bat galdua, haren aneyetarie batec, zeina fraide beitzen, etzuen deusic espreiniatu haren bihur arazteco berthuteraco biderat : exortac, othoitzac, melhatchuac Jaincoaren gaztiguez, ahal guziac obretan eman zituen, bainan oro alferretan. Azkenecotz, fraide on eta egiazco aneya harrec, hartu zuen erresoluzioea, azken erresurxat bezala, san Joseperen escuetarat emaiteco bere egitecoa. Egin arazi zituen bi bederatzi urrun haren oboretan, bat mezazcoa eta bertzea comunionezcoa. Ardiexi zioten hainbertze lehia- rekin galdegiten zuen grazia. Eliza gizon hura eritasun handi batec hartu zuen, eta jarri zen azken hagoan. Ezaguturic zer estatu lanjerosean aurkhitzen zen, ikhosi zuen bere bizi moldearen izigarrikeria, higuindu zuen eta aborritu doloreric minenaz, eta egin zuen cofesio jeneral bat. San Josepe etzen hortan baratu, eratchiki zioen arimaren sendatzeari gorphutzeco osa-

suná. Causitu zenean hain uruski sa-
jatua, eta hain perfekí sendatua, hartu
zuen eta atchiki, bizi guzian, erreso-
luzione saindua ez gehiago bizitzeco
bere huxen erreparatzeco baizen,
eramanez bizi molde bat haren carater
sacratuac eta estatu sainduac galdegi-
ten zuten bezalacoa; eta osoki emanez,
eta bakharric, bere salbamendu eter-
nalaren egiteco handiaren obraitzeari,
eta Jaincoaren loriari behatzen zazco-
ten gauzei choilki behatzeari. Nahi
duenac beraz Jainco Jauna aurkhitu,
haren galtzeco zori gaitza izan due-
nean, badu bide bat guziz errecha,
hura da san Joseperen arartecotasu-
nera ihes egitea. (*Barry apud Patri-
gnani, libr. 2. cap. 3. parag. 4.*)

Bihotz altchatzea

Jesus, Maria eta Josepe, emaiten
daizkitzuet ene bihotza, ene izpiritua
eta ene bizia.

J. M. J.

HOGOI ETA ZAZPIGARREN EGUNA.

Jesus ekharria Nazarethera.

I. PHONDUA. Ongi eman ditzagun go-
goan san Luc, Ebanjelistaren hitz la-
buñ, bainan senxu handitaco hauc,
zeinec beitaucate Jesusen, Mariaren
eta Joseperen bizi guzia, bere baithan
zerratua, Jainco gizona pedericatzen
abiatu artean, erran nahi da, Jesus
heldu arteraino hogoi eta hamar urthe-
tara. Ebanjelio sainduac, mintzatu on-
doan haren bihurtzeaz Nazaretherat,
non egin beitzuen bere egoitza, erat-
chikitzen du : eta goziz obediencia zu-
ten, *et erat subditus illis*; erran nahi
da, obeditzen zuen Mariari eta Jose-
peri. San Bernat espantitua hitz horiez,
oihu egiten du : Norc obeditzen du?
quis? nori obeditaen du? *quibus?* Jainco
batec obeditzen du bere creaturei,
Deus hominibus. Jainco hura bera, zei-
nac bere azpico beittu aingeruac, zei-
nari obeditzen beitiote Serafinec, Khe-

rubinec, Tronuec, hitz batez erralteco, zeruco Puchantzia guziec, Jainco hura bera jartzen zayo bere azpico, ez choilki Maria, bere ama sainduari, bainan oraino san Joseperi. (*Deus cui angeli subditi sunt... subditus erat Mariæ, et nec tantum Mariæ, sed etiam Joseph.* (S. Bernard.))

Mirex ditzagun bata nola bertzea, eta cherkha dezagun ezagutzea zer den gehienic espantitu behar gaituena, ala Jainco Semearen aphaltze ezin contzebituzcoa, ala amaren dignitatearen gorotasuna. Alde batetic nola bertzelic gauzetan den mirexgarriena da; egiazki miraculu bat da, Jainco batec obedi dezon emazteki bati; eta bertze bat, ezin gehiago amiratzecoa, emazteki batec mana dezon Jainco bati. Izpiritu sainduac egiten du Birjinez laudorioetan gorena, erraitean segitzen dutela Bildoxa dohan lekhu guzietara. Zer laudorio eginen da beraz Ama Birjinari, zeinac ez beitu segitzen, bainan bai aintzinatzen bildoxa *In laudibus virginum canitur singulariter quod sequantur agnum quocumque ierit. Quibus*

ergo laudibus judicas dignam quæ etiam præit. (Hom 1. sup. Missus est) laudorio hori bigualki comuna dute elgarrentzat Mariac eta Josepec.

II. PHONDUA. Bainan ez da aski mirestea, ez da guzia espantitua izaitea; juduec berec ere amiratzten zituzten Jesu-Cristoren erranac eta obrac, bainan, horren gatic, etziren hetaz hobeki baliatzen : *Admirabantur, sed non convertebantur.* Erreflexione hau san Augustinena da. Bainan humilitatezco miraculu bat, hoin espantagarria, egon othe ditake pasatu gabe girichtinoaren izpiritutic bihotzera, hunen humil, amulxu eta obediencia bihurtzeco? Nor gare? Nori diogu zor gure obediencia? Ez gare creatura osoki mesprechagarri bat baizic, hainbertze aldiz jarri garenaz geroz gu bezen mesprechagarri diren creaturen esclabo, bai eta oraino debruaren beraren esclabo; eta gehiago mesprechagarri ezartzen gaituena, da errefusatu beitugu obeditzea gure Creatzaileari, bai eta lurraren gainean haren izenean mabatzen dau-

cun autoritateari. Eraman dugu behar bada gure ausartzia haren mesprethazeraino, eta haren, Jaincoa ganic dauean autoritatea, ez ezagutzeraino. Mesprechio horrec ez ditu choilki atacatzen gizonac, atacatzen du Jaincoa bera, zeinaren ministroac baitire gizonac : *Qui vos spernit, me spernit.* Huna dio Jaincoac : zuec mesprethazten zaituztenac ni mesprethazten nau. Enxeya gaiten ongi aditzera, zeruetarat daraman bidea, da obedientziazcoa eta apha gunceoa. Hori da Jaincoaren Semeac erakusterat eman deraucuna hogoi eta hamar urheren ichiltasunaz, eta ichiltasun miragarri harrec bezenbat iraun duen obedientziaz. Zer erakhuspena ! Ala mirestecoa beita eta hunkigarria ! Ez othe dugu bada seculan ongi ikhasico ? Zori on bizkitartean, heriotzeco orenean, erranen ahalco duenarentzat : itili naiz constaki Jaunac erakhusi urhaxetan, haren hatzac segitu ditut, eta oruski imitatu dut atchiki duen obedientzian heriotzeraino, eta heriotzeric ahalgegarriaraino, zeina beita gurutzeco he-

riotzea. *Factus obediens usque ad mortem, mortem autem Crucis.*

Othoitzza

Ene bihotzeco Jaincoa, humilitatez-
co Jaincoa, humilen Jaincoa, zeina
enetzat amodioz, egin beitzare hain
obedienta eta hain humila! Zure Jain-
cozco exenpluaren ondoan, zilhegi othe
zaut bada urguilos izaitea? Zilhegi othe
zaut ene azpicoen mesprechatzea?
Ahantz othe dezaket behin ere ez nai-
zela herrauxa eta bekhatua baizic?
Ikhusten zaitut creatura chinplen az-
pico jarria, eta oldartzen naiz zure
contra, zu zeina beitzare ene izaitea-
ren printzipio adoragarria! Izan othe
da egundeino munstrokeria hunen
pareric? Helas! Jauna, urrical beina-
kizu, eta barkha diezkidatzu ene hoben
guziac! Bai, chedea hartzen dut he-
mendic barat zure urhaxac segitzeco,
zu bezala humila eta obedienta izaite-
co. *Factus obediens usque ad mortem.*
Eta zu Ama Birjina, zu san Josepe lo-
riosa, zeinec izan beitzue zori ona
Jesu-Cristoren egintza guzietan agertu

diren berthute guzien lekhuco izaitecotzat, ardiex diezadazue grazia berthute heyen imitatzeco, amorea gatic eta, humila eta obediencia izan ondoan lurraren gainean, izan nadin partalier egun batez zeruco lorian, agindua den bezala Jaincoaz humilitateari eta obedientziari. Hala-biz.

Pratica

Izan gaiten bethi humil eta obedient gauza guzietan eta mundu guziaren alderat. Gauden orai beretic osoki Jaincoaren borondatera, eginez bethi harrec nahi duen guzia, desiratzen duen guzia, eta seculan ez geronec nahi dugunic, geronec desiratzen dugunic. Dezagun erran ardura Jaunari, gure bihotzaren erditic : *Egin bedi zure borondatea, eta ez enea.*

Exenplua

San Joseperen alderat gehienic debotac izan direnenetoric bat izatu da san Augustinetaco Ama Catharina ohoragarria, zeina Jaincoac deithu beitzuen Canadara han, Norteco Ameriketan,

Kebeco ospitalean zerbitzatzeco buru zagi gisa. Confirmatua izan zen egunean, hartu zituen izentzat Maria-Catharina-Josefina, zuelacotz debozione berezi bat Birjina sainduaren eta san Joseperen alderat, hauc dira arartecopuchantac, Patrointzat hartuac herrietaco, zeinec, ez duela hainitz denbora, besarcatua beitate girichtinotasuna. Andredena buruilecoaren egunean, izan zuen ikhuste bat, zeintan erakhuxia izan beitzangon sainduen profesione bat, zoinen erdian aurkhitzen beitzen loriaco Erregea; profesionea zohan Parabisuco borthen alderat: ikhusi zuen san Josepe guzien buruan, eta bortha eternaletaric hurbilena. Corte lorios hura sarthu zenean Parabisuan, eta Jesu Cristoren gizontasun sacratua jarri zenean harentzat berezia zagon tronuaren gainean, bere Aitaren escuinean, san Josepe izan zen lehena mintzatu zangona Trinitate guziz adoragarriari, eta bereziki Aita eternalari; eta hulacoac ziren haren hitzac: *Bethi danic zaren eta bethiereco Aita, huna lurraren gainean confiatu*

dautazudan thalendua, bihurtzen derautzut, eta bihurtzen hoinbertzetaraino emendatua eta handitua, zombetctaraino beita handia arima saindu hauyen nonbrea, eta emaiten daizkitzut escuetara bai thalendu confiatua, bai ekharri derautan irabazia. Aita eternalac ihardezi zioen san Joseperi hitz hautan: Zerbitzari fidela nola izan beitzare lur-raren gainean ene etchecho gidaria, nahidut zeruan izan zaiten, ez zerbitzari chinple bat, bainan bai Buruzagi bat zeinari plazer beitut emaita puchantzia estraordinario bat. Jainco Berboac berac, nahiz den loriaco Erregea, erakhusterat eman zioen zombat ohoratzen zuen. Orduan, dio sainduac, itzuli nintzen san Joseperen alderat, eta erran nioen: Patriarkha amiragarria, galdegiozu Errege soberano horri ez dakidan gertha secular haren amodioaren galtzea; ez du ezen densic zuri errefusatzeco. Othoitz hau entzuna izan zen, condizionerekin atchikic nuen jadanic egin agintza: bethi bizico nintzela Jaincoaren nahiaren arabera, eta erakhuxi ere bazaun datean

zerruan izanen nuen plaza, han bethicotz gozatzeco Jesusen, Mariaren eta Joseperen presentzia loriagarriaz. (*Paul Ragueneran, in ejus vita, gallice scripta, cap. 5.*) Hemendic ikhas dezagun Jau-naren borondate sainduaren arabera bizitzen eta ardiexico dugu gutizia ahal ditzazkegun guziac san Joseperen laguntza botherexutic.

Bihotz altchatzea.

Jesus, Maria eta Josepe, emaiten dauzkitzuet ene bihotza, ene izpiritua eta ene bizia.

J. M J.

HOGOI ETA ZORTZIGARREN EGUNA.

Zer hartzen zen Jesus Nazaretheco botican.

I. PHONDUA. Ikhas dezagun estonamendurekin nola Jesus Nazarethen bizi izan den denbora guzian, hari izan den zerbitzatzen san Josepe, bere

aita ordea, zeinaren ofizioa beitzen, uste comunaren arabera, zurgingoa; haren lanetan parte hartzen zuen, eta laguntzen zuen bere behar guzietan, gauza bera egiten zuen bere ama dohaxuaren alderat. Ebanjelioac, zeintan Jesus deithua beita zurgina, ezagutzerat emaiten deraucu egia hori. (Marc. chap. 6. 6. 3) Norc erran dezake nolacoac zaitezken Mariaren eta Joseperen sendimenduac, ikhustearrekin iguzkia eta izarrac creatu dituzten escu heyec, zabilatela zerra, arlota, zizaila eta bertze zurgintzaco erremendac; ikhustearrekin Jaincozco belar hura izerdia dariola, zerutar belarra, zeinaren distiradurari behatzetic ezin bara beittitazke aingeruac? Zer artha etziztuzken hartu san Josepec haur amiragarri hari ahalaz penen ezestatzeaco? Jesusec berac ere nola ez ahal zituen prezatu artha hec hain zuzenac, egia da, bainan denbora berean hain bibotzonez hartuac zirenac? Zer ikhustegarri mirestecoa! Jainco bat zeinac plazer beitu obeditzea, eta gizon bat zeinari luen tituluac dretcho emaiten beittio

manatzeco Jaincoari, zeinaren penac eta lanac nahi beittituzke bizkitartean bere ahalaz arindu! Mariaz den bezen batean, ser penxatuco dugu? Ikhuz zazu bere etche-barneco egin bidez guzia hartua, ama arthaxu eta amodioz bethe bat bezala, deus negliatzen ez duela, eta sacrificatzen ere duela bere Jainco Semearekin ardura aurkhitzeco zuken axegina. Maite zuen bezala amodioric beroenaz eta bizienaz, nahi zuken secular ez haren ganic sepharatu, bainan Birjina sainduac sacrificatzen ditu bere axeginac, bere eginbideen bethetzeco. O zerua! zer mortificazionea Maria sainduarena bezalaco bihotzarentzat! Lurrean ikhusi den bere buruari nkho egiteric perfetena da.

II. PHONDUA Maria sainduaren exempluac erakhusten daucu perfeziona datzala egitean Jaincoaren borondatea gauza guzietan. San Josepec emaiten deraucu bertze bat, casic molde berecoa. Manatzen dio Jaincoaren Semeari, lagun arazten dio bere burua bere la-

netan; eta ez da hola hari Jesusen alderat, baizic ere zeruco manuen bethetzeco, Aita eternalari obeditzeco. Bere lanec zilhegi uzten diotenean, Maria gozaten da bere Seme Jaincoaren presentzia adoragarriaz, eta badaki errenonziatzen zorion hari, bere eginbidec gibelatzen dutenean, gauza guzietan ez du bertze erregelaric, bai-zen ere Jaincoaren borondatera egoitea, nahi bezen doloregarri izan dadin. Holacoa othe da gure erregela? Ah! zonbat arima zoro ez da, hori ezagutzen ere ez dutenac! Bertze zonbat, zoinen ixumendu deithoragarria beitatza bere fantesien, bere nahien gogorki segitzea, Jaincozco erregela horren orde! Debozione falxua, enganio liluragarria. Bertze hainitzec badute uste Jaunaren borondatea egiten dutela, eta ez dakite zertan datzan borondate hura. Goardia eman dezagun eya egundeino serioski errefleczioneric egin dugun holaco ixumendua- ren eta enganioaren gainean? Cherkhatu othe dugu behin ere ongi ezagutzea. Zeruac zer galdegiten duen

gure zori onarentzat, eta gure salbamenduarentzat? Deus ez da bizkitartean errechagoric ezagutzeco. Aurdic ditzagun berriz ere gure begiac Maria-ren eta Joseperen gainëra, hec dira guretzat egiazeo modelac, eta modelic perfetenac. Nola conplitu zuten bere Jaincoaren borondatea? Leyalki betheric bere estatuco eginbideac. Bada, Aita zerucoaren borondatea osoki zer-ratua da, ezarri gaituen estatuac gutaric galdegiten dituen eginbide guzien perfeki bethetzean. Eginbide hec negliatzen dituenac, balitz ere egun osoac eremaiteco belhaunica aldare sainduen onetan, hobendun jartzen da; haren debozionea falxua da, eta Jaincoaz ez onhexia; seculan ez dezokegu Jaincoari plazer egin, haren borondatea eginez baizen eta ez gurea.

Othoitza.

Ene Jaincoaren ama guziz ona, eta san Josepe loriosa, ala urundu beinaiz zuec eman exenpluetaric, zeinec erakhusten beitzaunderatean hain ongi perfezioneraco bidea, erakhusiz be-

thetzen perfeki zeruco borondatea! Bai, Jauna, ezagutzen dut ene errebelamenduen handitasuna, senditzen dut bere surx galgarria hartzen dutela guzietan ene borondatean, zeina hartu beitu erregelatzat, segitu behar bidean Jaincoaren borondatea, zeinac beitarama egiazco zorionerat, eta zeina malurski mesprechatu beitu! Nore emanen daut nigarric aski, hetan garbitzeco ene hoben izigarri guziac? Zu izanen zare, ama urricalmenduz betha, dohacabe direnen ihes lekhu segura; zu Patriarkha urricalmenduxua, zu zeinaren borondateaz zerbitzatu beita gidatzeco lurraren gainean Jainco eternalaren Semea; bai, Maria eta zu izanen zarete ardiexico dautazuena behar dudan laguntza, osoki egoiteco Jaunac ni ganic galdeginen dituen guzietara.

Pratica.

Bethe ditzagun ahal bezen ongi gure estatuco eginbideac. Bara gaiten gure estatuac emaiten daizcan mugarrietan, eta egin ditzagun egun eta bethi san Joseperen ohoretan oro.

Exenplua.

Ahizpa Margerita ohoragarria, deithua Jesusen carmelita, oraino haur haurra zelaric, interrogatua izan zen san Joseperi behatzen zainzcon asco gauza diferenten gainean; egin zituen arrapostuac ezin goragoco senxucoac ziren, eta hainbertzez mirexgarriagoac, causitzen zirenaz geroz theologoric handienec egin dituzten izkiribuen araberacoac; jakitate hori hartua zuen saindu handi haren calitate ederrez penxatzen continoki gogoa atchikiz. Haren costuma laudagarrietaric bat, egun guzietaco lanen erdian, zen bere confientziaco serora bati, letra batean, har araztera enxeyatzen zena. « Lo-
« riatzen naiz, erraiten zioen (lib. 5.
« c. 5) zure ikhustiaz duzun enple-
« guan, exoriatzen zaitut ahal bezen
« herxiki junta zaiten Jesus haur mai-
« tagarriari, zeina ez baitzen Nausi
« gisa hari bere aita, san Joseperen
« botigan, iduri zuelaric etzela han
« baizen ere haren zerbitzuc. Junta
« zazu zure lana Jainco haur haren

« lanari. Zerbitza zazu zure laguntzeco
« eman dautzuten serora, Jesusec zer-
« bitzaitzen zuen bezala san Josepe.
« Nic ere, nihoronec zerbitzaitzen dut
« ene laguna, eta eginen dut bethi ene
« ahala, leyalki jarakitzeco hoin lauda-
« garria den praticari. » Serora saindu
hura hil zenean, causitu ziuzten haren
bihotzean hiru harri preziatu; lehenac
zakharken Birjinaren potreta urrezco
khorobat buruaren gainean; bigerre-
nac, Jesus haurra, bi arimaleren er-
dian; hirugerrenac, san Josepe urrez-
co capa batekin, eta usobat buruaren
gainean. Margerita ahuspezzagon haren
oinetan, seinalatzeco bere bizian ha-
rentzat ekharri zuen amodio handia.
Bihotz dohaxua, izana haiz Jesusen,
Mariaren eta Joseperen egoitza saindua.

Balia gaiten Jaunaren zerbitzari leyal
horren exemplu preziatuaz, baldin er-
rezibitzea baditugu gure debozione-
aren araberaco grazia. (*Kazzini in
ejus vita, et P. Barry.*)

Bihotz altchatzea.

Jesus, Maria eta Josepe, emaiten

daitzuet ene bihotza, ene izpiritua eta ene bizia.

J. M. J.

HOGOI ETA BEDERATZIGARREN EGUNA

Nazaretheco etchean erreginatzen duen ordre miragarriaz.

I. PHONDUA. Adamen haur dohacabeen artean ez da egundeino ikhusi etche bat hain Saindua eta hain ongi erregelatua nola izan beita Berbo eternala egon Jena. Parabisua iduri zuen perfekti. Han, etzen ikhusten bertzeric, baizen ere ordre ederra, bakca, unione perfeta eta caritatea. Denbora hau ongi erregelatua zen, orenac behar bezala guziac hartuac, nekheac eta soleimenduac, escasac eta izanac, oro, on amorialean, elgarrekin phartitzen zuzten borondateric hoberenarekin. Han etzen aditu behin ere plenitzeric den mendrena, etzen ikhusi umore gaitzie carateretan; han etzen sarthu

egun deino huxaren iduriric. Dohaxn ikhusi zituzkena burbil danic familia saindu haren egintzac, othoitzac, Es-criptura sainduaren iracurtzea, othu-runtzac! Zer etzuen ikhusico! Lagun gaiten gure imachinazioneaz ikhusteco lekhu adoragarri hartan Jesus abuspez emana, halaco moldean non haren modestia gai beitzen estonatzero ain-geruac betac. Nolacoac etziren beraz izan behar Mariaren eta Joseperen sen-dimenduac, zeinac harekin beitzauden bethi zorionezco lagun eta lekhuco! haren Jaincozco beitbarteac distiratzen zuen iguzkiac bere eguerdian bezala, eta sutan ezartzen zituen bere arrayoez bere aita amen bihotz samurrac. Nolaco othoitzac! zer indarrac etziuzten! No-laco Escriptura sacratuaren iracurtzea! Zer eseola Birjinarentzat eta Josepe- rentzat! Jesus, zuburtzia eternala, zen nauzia, chehatzen zituen pasayo guziac, argitzen ilhumbeac. Nolaco atentziona entzuteco arima eder heyen aldetic! Emausco dizipulac, Escripturac espli- eatzen aditzearekin, oihu egin zuten: Gure bihotzac nola zauden sutan mintzo

zaungularic bidean? *Nonne cor nostrum ardens erat in viâ?* Zer penxatuco dugu beraz Mariarena eta Joseperena ziren bezalaco bihotz garbi eta nobleez, zeinac beitziuen hat bere aita ordea eta bertzea bere ama loriosa? Heyen mahainaz den bezenbatean, ala beitzen chinplea eta sobrezia handitacoa! Lo egiteco mementoac khondatuac ziren eta ongi laburrac. Zer Jaincozco ordrea gauza guzietan! hori jakinen dugu eta ezagutuco munduaren azken egunean. Etche zerutarra, hitz batez oro erraiteco; etchea zeintan pobrezia, lana, nekhea beitziren usayaco ber/huteac, eta zeinac arima saindu heyec khandia arazi beitzizuten plareric gozonenetarat.

II. PHONDUA. Itzul ditzagun orai gure behatzeac gure etchetarat, gure fami-lietarat, bai eta comenturetarat bere-tarat, eta baldin erretiratuac bizi ba-gare. dezagun ikhus eya aurkhituco dugun gauzetaco ordre bera, unione bera, bake bera zeina ikhusi beitu gu erreginatzen Nazaretheco etchean. Ez dugubehar bada ikhusten nahasturacic,

huscarric, liscarric, despitic, jasan gaitzic baizen; eta oraino zori gaitz handiagoa dena, gure etchea aurkhitzen da egiazco ifernuaren iduria, zeintan beitago desordreric izigarriena. *Ubi nullus ordo, sed sempiternus horror inhabitat.* Zer daiteke beraz hoinbeste gauza gaichtoen ithurburua? Buruzagien negligencia euala, eta obeditzeco eginac direnen desobedientzia. Hortic heldu dira desordre guziac, etheco gerlac, haurren gaizki alchatzea; hortic elgarrekilaco liscarrac, elgar ezin jasana, elgar ezin aditzea.

Egin ditzagun errefletzioneric serio-senac, eta ez dezagun deusic guphidex etchetie casatzeco zori gaitzetan ikhusten ditugun desordre guziac. Nazaretheco etche saindua har dezagun modelatzat; hortic, baliatuco gare ongi meditacione huntan erraitetic heldu garenez.

Othoitza

Jesus Jauna, lurrera ethorri zarena, erakhasteco ordre miragarri bat zeina atchiki beitzu zure lurreco etche

chumean; egizu erregina dezan ordre on eta eder harrec girichtinoen etche guzietan; nitaz den bezen batean, ahuspez emaiten naiz zure oinetan, khirestasunekin deithoratzen ditut ene desordre guziac eta ene familiarenac, zeina hainbertze aldiz izan beitut zori gaitza escandalisatzeco. Barkha diezki datzu ene hobenac. Egidazu grazia guzien erreparatzeco, eta osoki egoiteco zure borondate adoragarrira. Birjina guzien gainecoa, eta san Josepe mirestecoa, zuen ganat heldu naiz, zuen bidez ardiesteco ene etchea bilhaca dadin ordre onaren, bakearen eta unionearen egoitza, eta iduri izan dezan Berbo gizon eginarekin zucc zinaudeten Nazaretheco etchea.

Pratica.

Enxeya gaiten correitzera familian dituzkegun desordreac, meditazione buntan hartu ditugun argien arabera; eta baldin adinetan aintzinatuae bagare, erregela ditzagun etheco egiteco guziac, gure izanetan ez dezagun utz makhurric hil ondoco. Ororen gai-

getic, zuzen zaitzu zure arimaco egitecoac, etzitzan harrapa herioac, prest etzarelaric Jaincoari zure khonduen bihurtzeco.

Exenplua.

Aita Allosac, egin duen liburuan (*Affection et amour envers S. Joseph*), dio ezagutu duela Augustinetaco ordreco fraide bat zeina, hil zenetic zenbeit bilabeteren ondoan, agertu beitzangon ordre bereco bertze fraide bati; ezagutzerat eman zioen sofritzen zituela Purgaterioetan tormentaric izigarrienac, bere erregelac begiratzeco izan zuen artha gutia zela causa, eta irrichcu handian izan zela damnatua izaiteco, bainan Jaunac salbatu zuela ifernuco penetaric constanki san Joseperen alderat ekharri zueu debozionaegatic, zeina, Jesu Christoren aita ordecalitatean, osoki puchanta beita haren aldean. (*Apud Franc. Gorzia, paragr. 17*)

Bihotz altchatzea

Jesus, Maria eta Josepe, urricai beitzizkatet heriotzeco orencan.

J. M. J.

HOGOI ETA HAMARGARREN EGUNA

San Joseperen heriotze baliosa.

Aintzineco meditazionean ikhusi dugun bezalaco molde amiratzecoa zaucan Jaincozco familia sacratuac, noiz ere nahi izan beitzioen Jaunac eman san Josepe, zahar guziz errespeta garriari errepausu eternala, zeina ongi merechitua beitzuen meditatze tic heldu garen obra saindu guziez. Iduriz, uste hoberenaren arabera, haren heriotzea gerthatu zen Jesu-Cristoc hogoi eta bederatzi urthe zituelaric (Paulo ante baptismum Joannis, mortuus est Joseph) hola dio san Jeromec, eta Ama Birjina haren esposac zituelaric berrogoi eta bortz urthe; Tibereren erreinuaren hamalagarren urthea zen. Saindu handi harrec bazituen orduan hiru hogoi eta hamar urtheren inguruna.

1. PHONDUA. Penxa dezagun zoin dohaxua behar zen izan san Joseperen

heriotzea, hainbertze artha hartu izan duenean biziaren autorraz eta hau hazi ondoan. Gure imachinazioneac eraklux dezagula bere pobreziaco ohearen gainean, bere aldean dituelaric Jesus, hartzen dioela escu escuina, eta Maria, bere esposac, atchikitzen dioela escu ezkerra, emaiteco bezala bere fidelitatearen azken seinaleac. Zoin loriagari etzen izanen ikhustea zahar saindu hura bazabiltzala bere begiac, erdi hilac, eta landatuac zauzkitzala batean Jainco Berbo, bere Seme ordearen gainean, bertzean bere espos, aingeruen Erreginaren gainean!

Zerua berada bakharric dakitzana Jesusen eta Mariaren ahotic atheratu ziren hitzac sainduetan handienaren curayastatzeco, eta nolacoac izan ziren halaber patriarkha guziz oheragarri haren hitzac : *Josepe dohaxua ene esposa eta ene Jauna, errezibi zaitzu ene esker onac nitaz hartu duzun artha jenerosarentzat, munduaren Nausi soberanoac elgarrekin batasunean ezarriginituen mementotic hunat. Bihur ditzaitezula orai zure obra onen balioac, zure*

ene alderaco amodio garbiarenac, ene Seme Jainco adoragarriaren alderat izan dituzun artha berezienac, eta ekharri diozun samurtasun jenerosarenac. Arima guziez goragocoa, arima zerutarra, zohaz zori on eternalaz gozatzeraz! Horrela minizatu ahal zayon zeruco erregiñā. Zahar dohaxua, maitatu nauzu aita bihotzic hoberenecoac eta samurrenac bezala, eta nic ere maitatu zaitut nahiz zure Jaincoa naizen. Zure Seme bezala, musu emaiten diot zure escuari ene aitarenari bezala. Zure Jainco calitatean, emaiten derautzut ene benedictionea; eta zure juje soberanoa bezala, emaiten dut zure gainean sententzia bat, zeinae ezartzen beitzaitu akhabantzari gabeco loria baten gozamenean. Eta marcatzen dut zure tokia Parahisuan, zure espos birjina, eta ene ama denaren aldean; denbora laburric artean, zeruac bilduco gaitu elgarren gana. Izan zaite arte huntan, ene mezutzaile, zohaz Abramēn gantzarrera, eta zure urhaxetan zohalaric errozute arima dohaxu eta justu guziei ez dudala hainitz luzatueo enekin heyen eremaita trionfan

zeruco erresumara. O Josepe! o ene aita! emazu zure azken haxa bakezco loriaric gozoenean. Hola mintzatu ahal zangon Jesus dudaric gabe. Nolacoac ez ahal ziren izan orduan saindu handi haren amodiozco sendimenduac.

Doidoya dabila mibia bihotzean darrkazken izen maitagarriac aiphatzeco *Jesus eta Maria* zeinez beita besarcata, eta zeinac besarcutzen beittu azken aldico, eta hilizen da. O heriotze dohaxua! heriotze urusa! zorion gurezat horren iduricoa izaiten balitz gurea!

II. PHONDUA. Ez da nihor zorthe bera nahi ez lukenic bere biziaren azken orenean. Ez, ez da bat nahi ez lukenic, azken haxa emaitetan, aiphatu eta bihotzez erran *Jesusen eta Mariaren* izen maitagarriac. Baina non aurkhitzen dute bada esperantzaren zimenduric Jesu-Christoren legea ezagutu datenec, behin ere hau begiratu gabe, eta ikkusi dituztenec Birjinaren eta Joseperen exenplu miragarriac, heyeu imitatze penetan jarri gabe? Inpioaren

esperantzac haizeac eremaiten ditu,
dio Izpiritu sainduac, luma arin bat
bezala. *Spes impiii tanquam lanugo tol-
litur.* (*Sap., cap. 5, v. 17.*) Esteca gai-
ten beraz Jesusi, Mariari eta Joseperi,
eta segurki ez gaituzte abandonatuco
azken mementoan, zeintaric beitoha
gure eternitateco zori ona edo zorigai-
tza. Entzun dezagun Jesu-Cristoren bo-
za, ibil gaiten Birjinaren eta san Jose-
peren urhaxen gainean, eta gauden se-
guratuac helduco garela uruski lur hu-
nen gaineco pasayaren azken mugara.
Urrun dezagun gu ganic, biziaren az-
ken mementoan, contzientziaco barra
altcha araz dezaguken guzia ; ez gaiten
seculan bara galdegitetic Jaunari per-
xeberantzia sainduaren dohain prezia-
tua ; eta galda dezogun Mariaren eta
Joseperen merezimenduen berthutez,
eta gauden seguratuac ez daucutela
errefusatuco beren laguntza gure zor-
the eternalaz dohan heriotzeco ore-
nean.

Othoitza.

Terribleco mementoa zoitaric bei-

toha eternitate! gerla izigarria ene zortheaz bethecofz egin behar duena! Ikharatzen naiz urrundanic behatzen dautzudanean, nabiz nic uste beino hurbilago zaitudan. Helas! nore ezti-tuco daut istant lanjeros eta latzgarri baren khirestasuna? Norc ereman arazico deraut garbaitzia ene exai barbaroen gainean? Zuc bakharric, o ene Jainco botherexua! zure besoa da bakharra zeinari nihorc egundeino ezin ibardoki beitu. Zu choilki beraz, Jauna, zare egin dezakezuna, nahi baduzu; baidan nahico othe duzu ordean? Bai ausartatzen naiz esperantza izaitera, nabiz ez dudan ene aldetic merezimenduric batere, osoki emaiten dudalaric ene fidantzia zure ontasunean eta zure misericordia mugairi gabecoan ez dezazula beha ene bekhatuetarat, baidan itzul zaitzu zure begiac Birjina zerutar hartara, zeintaz nahi izan beitzu egin graziazco ama bat, eta zeina eman beitautzut ene amatzat, noiz eta ere gurutzearen gainean, hagoniaric cruelenaren tormentetan, biltzen hari beitzinen. Beha zozu oraino gizon justu

hari, zeina, errespetatu beitugu mundu huntan zure lurreco aita bezala, eta zeina haur on eta samur batec bezala, legundu baituzu heriotzeco orenean, begiac bersten ziniozcalaric zeruetan izar-rac ezarri dituen escu hortaz beraz. Errefusa otbe dezakezu, o Jainco guziz ona ! bumilki galdatzen dautzudan grazia, zure Aita-amen merezimendu balio guziez goragocoaren berthutez, eta heyen izenean ? Ez, dudaric gabe ; ez, amodiozco Jaincoac, niri bizia emaiteco hil den Jaincoac, ez duke nahi ene galtzea ! egizu beraz, o Jesus urri-calmenduxua ! eman dezadan ene azken haxa zure galtzarrera, eta Mariaren eta Joseperen escuetara.

Pratica.

Gure egin eta obra guzietan ekhar dezagun gogoan Jesus, Maria eta Josepe, hautaz lagunduac izan gaiten gure heriotzean, begiratzen dugularic, bizi guzian, gaineco meditazionearen bigarren partean errana den guzia. Egun hantaz egin dezagun erretretaco egun bat bezala, heriotzera prepara-

tzeco balia dakignn, cofesatzen gare-
laric eta comuniatzen dugularic balitz
bezala gure bizian azken aldico. Penxa
dezagun alontzio saindua emaiten dau-
cutela, eta erraiten diotela gure ari-
mari pbariti dadin mundu huntaric.
Hainitz balia laiteke salbamenduaren-
tzat, ilbabethe guziez, bederen bi ilba-
bethetaric, egun batez horrelaco erre-
tret bat egitea, batere bere eguneco
eginbidei gibelamenduric ekharri gabe.

Exenplua.

San Augustinetaco ahizpa Anna er-
respetagarria, carmelita, izan da se-
rora hetaric bat zeinac, san Joseperen
alderaco debozitionean, izan beitira ge-
hienic santa Theresaren idurico. Ari-
ma guziz saindu hura heriotzearekin
borroca hari zen denboran, haren la-
guntzeco hautatuac ziren zonbeit se-
rorec izan zuten zorion handia ikhus-
teco zeruco cortea, Jaunaz igorria,
Jesusen espos leyal haren lagun izai-
teco haren trionfan. Corte hartaco
sainduen artean, aurkhitzen ziren san
Josepe eta santa Theresa.

Khanbaran ziren serorac obartu ziren eriac, ikhusiz bere khanbara lur-reco zeru baten pare bilhacatua, emaiten zituela bozearioric handienaren seinaleac; iduri zuen errezibitzeric agradagarriena egiten ziotela, bisitara ethorri zainzcon zerutar arrotzei; eta ezin gordez bere alegrantziaren gaindia, oihuea abiatu zen hiru aldiz, ziotela : *Ene aitac! ene aitac! ene aitac!* Abertitzeco bezala ingurunetau zituen fraide bere laguntzera ethorriac zainzconac, ongi hunkitzerat utz zitan hain ikhusgarri eder eta loriagarriaz, eta errespeta zitzazten san Josepe eta santa Theresa, jenac zirenac haren zeruetarat eremaiteco. Hala zen ere, bertze serora batec, san Clemanteco comentuan, othoitzean zagolaric bizia luza zezon Anna abizpa ohoragarriari, ikhusi zuen haren arima zohala zeruetan goia san Joseperen, santa Theresaren eta bertze hainitz sainduen erdian, aingeruzco oste handi batez inguratua.

Santa Theresac manatu zioten serora hekiei ezagut arazteaz mundu girich-

tinuari zoin den botherexua san Jose-
peren arartecotasuna. Nic ere nahi
izan dut imitatu Carmeletaco serafina
den, santa Theresa, obra chume hau
conxecratzen dudalaric Patriarkha lo-
rios hari, erakbusteco nolaco lagun-
tzac ardiex ditazken haren alderaco
debozionearen bidez. Aiphatzetic heldu
naizen sainduac gonbidatzen zituen,
hunen hitzari fede eman nahi etzioten
guziac, berec egitera experientzia uru-
sa. Birjina miragarri hura phartalier
da orai zeruan Patriarkha sainduaren
zori onean, zeinarentzat izan beitzuen
lurrean zen denboran debozione bat
berezia. Zorthe bera dago guretzat,
baldin praticatzen baitugu berthute
berac, eta ikhasten badugu imitatzen
harrec saindu lorios hunentzat zuen
debozione kharxua. (*In hist. Reform.
Carm. excalc.*)

Bihotz altchatzea.

Jesus, Maria eta Josepe, emaiten
daitzuet ene bihotza, ene izpiritua eta
ene bizia.

HOGOI ETA HAMEICAGARREN EGUNA.

San Joseperen loria eta haren
puchantzia.

Josepe hil zenean, Birjina haren esposac, eta Jesus haren seme orde Jaincoac, etzuten saltatu, dudaric gabe, bihurtzea azken eginbideac saindu mirexgarri haren alderat, ohorezki ezar araziric gai zen bezalaco hobian. Bede ohoragarriaren arabera. (Part. 3. op. Alhab.) Ehortzia izan zen Josaphuco planuan, Simeon zahar sainduaren hobiaren aldean, planu hartan berean izan zuen Birjina Sainduac memento batetaco hobia. Hobian egon zen san Joseperen gorphutz sacratua Jesusen heriotzeraino. Dotorrec penxatzen dute arruntean Patriarkha lorios hura biztu zela Jesusekin batean, agertu zitzaizola bere espos maiteari, eta azkenecotz, izan zela zeruetarat gorphutzarekin eta arimarekin altchatua Jainco Berboaren

trionfa ohoratzeco. Gauza bera penxatzen du Sieneco Bernardinec, seguratzen duelaric san Josepe biztu zela Jesusekin eta Jesusec eta Mariac bezala, baduela zori ona gozatzeco zeruco loriaz gorphutzarekin eta arimarekin, zuzen denaz geroz lurrean elgarrekin batasunean bizi ondoan, eta ereman ondoan bizi bat nekhatua eta penagarria, batasunean aurkhi ditan, eta partalier jar ditan bethiereco bizian. Quod sicut in illâ familiâ in laboriosâ vitâ vixerunt, sic in amorosâ gloriâ, et corpore et animâ simul regnant in cœlis. Gauza bera erraiten du (tom. 5, chap. 1, chap. 2.) saindu harrec pedericatzen zuelaric egun batez egia hortaz jende oste handi bati, ikhusi zuten oroc haren buruaren gainean gurutze bat urrezcoa, zeinac iduri beitzuen bihurtu nahi zuela lekucotasuna sainduac populari aditzerat emaiten zioen egiari. San Franxes Salesecoac, ekharri ondoan hainitz arrazoin frogatzat zerbitzatzeco egia horri berari, akhabatzen du dioelaric : Josepe zeruan da beraz bere gorphutzarekin eta arimarekin, eta ez daiteke hortaz

dudarie izan (19^e entretien). *Hori bera erakhusen dute Osoriusec, serm. 2. l'Isalano, part. 4. chap. 20; Bernardin ohoragarriac, in Bastis. p. 4. mer. Serm. 15. Suaresec eta bertze hainitz autorec. Azkenaz goiti, san Franxes Salesecoac eta bertze ascoc erakhuseteco Josepe zeruan dela gorphutzarekin eta arimarekin, emaiten dute arrazointzat ez dela aurkhitzen lurrean Patriarkha saindu haren gorphutzeco erlekiric.*

1. PHONDUA. Ikhus dezagun 1^o aita guzien artean handienaren loria; 2^o haren botherea casie mugarri gabecoa zeruan eta lurrean, eta lehenbizicoric, haren gorphutzeco loriaz bezenbatean, norc egin dezake idea bat justua haren begietarie atheratzen den argiaren distiradoraz, begi hetarie zeinac hainbertze aldiz beha egonac beitura Berbo gizon eginaren gainean? norc erran dezake zoin ederra daiteken beitharte mirexgarri hura zeinaren gainean Jesusen amodioac hainbertze Jaincozco besarcate egin beitu; beitharte majestalez bethe hura, hain amodiezki

caresatua izana Jainco haurraren es-
cuez, bereziki piayetan ekhartzen zue-
nean bere besoetan haurra, eta hunc
bere escu maitagarriez lephotic hartua
besarcatzen zuenean? Zer ornamenten
izaiteco ez da gai, lepho hura, hain
ardura tincatua munduaren Sa'batzai-
tearen haurtasuneco beso sacratuez?
Pharaon erregeac lehengo Joseperi
dobaintzat eman zioen urrezco lephoco
manificoa, diamantez estalia, etzen
itzala eta iluria baizen, zeruan Patri-
arkha saindu haren lephoa inguratzen
duenaren aldean.

Zer graziec ezdute distiratzen czpain
heyen gainean, zeinac, hainbertze al-
diz, izan beitira gizonen haurretan zen
ederrenaren beithartera ekharriac!
Zer argizco arrayoc ez ditu inguratzen
escu hec, zeinac hainbertze nekhatu
beitira irabazteco biziaren autorra haz-
teco behar zena; escu hec, zeinec hain
maiz hunkitu beitate berbo eternala :
Contrectaverunt de Verbo vitæ!

Patriarkha haren erbi bat choila,
erakhuxia santa Theresari, aski izan
zen saindu hau bere beitharic athera-

tua loriaz, extasan luzeki egoiteco.

Nolacoa ez da beraz izanen gor-
phutz haren loria, lurrean santificatua,
eta orai zeruan majestategaz distiraduran
dagona? Bizkitartean loria hori gor-
phutzecoa ez da itzala baizen azken ju-
jamenduan ikhusico denaren-alderan.
Nolacoa ezen ez da izanen haren arima
ederraren loria? juja dezagun, ahal
badugu, lurrean zenean gozatu dena-
rekin, eta zeina gorderic atchiki beiti-
zuen humilitateric handienarekin, zeina.
Ebanjelioaren arabera, beita egiazco
goratasunaren erregea eta prezioa;
bainan nore seculan contzebituco ahal
du loria haren edertasuna? Birjinen
loria distiraduraz inguratua da, erakhu-
xia izan zitzayon bezala Jaundoni
Joani apostoluari berac dioen bezala
Apocalipsean. Nolacoa ez da beraz iza-
nen birjinen Erreginaren espos sacra-
tuarena? Eman dezogun gogoari ikhus-
ten dugula, alde batetic Birjina guziz
saindua ekhartzen duela birjinitatea-
ren bandera loriosa, eta segitua bir-
jina guziez, dabilzala Bildoxaren urba-
xetan, hau dohan lekhu guzietara; eta

bertze aldetic, zan Josepe, ekhartzen duela gisa berean bandera bat distiratzzen duena eta orobat segitua lege ber-rico birjina guzicz, eta haren garbita-suna imitatu duten espos guzicz. O Jainco handia! zer loria! zer erran bertze alde haren zoriongarrizco eza-gutzez? ikhusten du bekhoz bekho lur-rean bere azpico izatu duen Jainco bera. Ez da deus loriagarriagoric aita batentzat lurraren gainean nola ikhus-tea bere haurrac ohoretan altchatuac. Nolacoa ez da beraz san Joseperen boscarioa, behatzean Jainco bati zeina izan beita haren haurra mundu huntan, zeina bere besoetan ekharri beitu Echip-torat ihes joaitean, zeina hazi beitu bere lanaren gostuz? Bai, dezagun er-ran berriz ere mirexcunderekin, zer bozcarioz ez da gozaten ikhustean altchatua zeruetaric gorenera, eta jar-ria bere Aita eternalaren escuinean, zeina beita erregen Errege, jaunen Jaun, eta zcinaren tronua inguratua beita aingeruzco corte eta orde guzicz? ikhusten du clarki mandilletan toro-chatua ikhusi Jainco beraren majestate

infinítua, behatzen dio alegrantzia-
kin : horrelaco ikhusgarri miresteco-
aren bichtan, nolacoa ez da behar izan
arima eder haren bozcarioa ? Nori dai-
teke emana horren ongi contzebitzea ?

San Josepec Jaincoaren ikhuste hor-
taric duen bozcarioac ihardesten du
miragarriki saindu haren bihotza erre-
tzen hari den amodio ezin conpreni-
tuzcoari.

Dohaxu egiten duen amodioa, zein-
taz Jaincoac saristatzen beítitu sain-
duac Parabisuan, hauyec bizi hilcor-
rean ekharri dioten amodioaren ara-
beracoa da. Hori hola denaz geroz,
nola erran zombateco amodioaren su-
lamec daucaten errea san Joseperen
bihotza zeruan ? Han behar laíteke
zana lekhuco, hemen crakhusteco hil-
cor flacoeci nolacoa eta zombatetacoa
den Serafinec maite dute bere baitan
ou soberanoa, zeina beita Jaincoa bera ;
bainan Joseperen amodioa lurrean no-
bleagoa zen oraino, garbiagocoa eta
handiagoa serafinena beino ; beraz
gehiagocoa da zeruan ere.

Aita eternalac ezarri zuen Patriarkha

saindu haren bihotzean aitazco amodio bat berearen iduricoa, bere ordaintzat igorri zuenaz geroz lurrera. (*Viro huic p. ternum..... qui nascebatur infantis infudit amorem.* Rupert.)

Bada, ez du egundeino galdu, ez flacatzerat utzi holaco amodioa, eta ezin erran bezenbat emendatu zayo zerruan; Josepec maite du beraz bere Jaincoa ez choilki hunen haur bezala, baina bai oraino aitazco amodio batez, iduri duelaric hortan, Maria bere esposa, zeinac maite beitu bere semea amazco amodioaz eta ezin erran beino handiagoaz.

Beraz amodio hori ezin bertzeri comparatuzcoa da, eta ez dezakegu izan hortaz idea bat justua.

II. PHONDUA. Hortic behar da jujatu zerruan saindu hori gozátzen den loriaz, eta Jainco guziz goza denaren aldean duen bothereaz. Tabernacle eternal betan lorificatua da familia sacratuco Buruzagi dignoa bezala; hura da lurraren gainean Jesusen eta Mariaren ganic hurbilena zagona; hura izan da

heyen lanen eta sofriarioen lagun le-
yala, bizi izan zirena. Nola izan daiteke
Parabisuan ez hala izaita? zer zori
ona! zer majestatearen eta loriaren
gaindia! ekhar daila berriz ere gogorat
bertze orduco Josepe haren orhoitza-
pena, ohoratua errespetu handirekin
bere aneyez. Orobat girichtino guziec,
zeinac beitira Birjinaren espos loriosa-
ren aneyac, ohoratzen dute calitate
huntan lorraren gainean, imitatzen
dutelaric hortan Jesus, Maria eta Sain-
duac zeinec ohoreric handienac bi-
hurtzen beitziozte bethiereco zori ona
dagon egoitzan.

« Ez da dudaric izaiteco, dio san
• Bernardin Sieneoac, Jesu Christo
« gure Jaunac ez diotzala errefusatzen
« zeruan familiaritate eta errespetu
« samur hec, zeinekin ohoratu bei-
« tzuen mundu huntan, bere aitaren
« alderat errespetuz bethea den haur
« batec bezala, eta hori gozatzeco duen
« ahalaren arabera, zeina conplia beita
« san Joseperen baithan. » (Serm de
S. Joseph.)

Hortie heldu da hainitz autorrec

ongi aiphatuac direnac bere jakitatez eta bere berthute arradoez, ez beitate beldurric izan segurtatzeco san Josepec zeruan manutzen duela galdatzean. *Dum pater orat natum velut imperium reputatur.* Ez du othoizten, bainan manutzen du : *Non impetrat, sed imperat, non orat, sed ordinat.*

Zer graziac ez ditugu beraz idorikitzeo haren arartecotasunetic? esperantza izan dezakegu galdegiten ditugun grazien ardieste, dio santa Theresac, segurtatzen duelarie berac egin zuela esperientzia urusa; othoizten duelarie nor berac egin dezon Esperientzia bera. Galdegiten dut, Jaincoaren amoreagatic, eratchikitzen du, ni sinhexi nahi ez naunenac huntan, egin beza berac froga.

Nolacoac dira gure sendimenduac saildu hunen loriaren bichtan, zeina ilhabethe hunen hastetic hautatu beituugu gure aitatzat eta gure gidatzat? Nolacoa ez da izanen gure zori ona, baldin constanki bagaude debozione huntan! ikhusi dugu zeruan duken guzia. Nahi dugu ongi hiltzeo grazia?

Grazia balios hori ezarria da bere Jauna eta bere Jaincoa duen Nausiaren es-
cuetan. Nahi gare salbatu? Saindu lo-
rios hora da biziaren esperantza, eta
Eliza bera da hortaz segurtatzen gai-
tuena : *Nostræ certa spes vitæ, columen-
que mundi.* Nahi gare sarthu zeruan?
begira zazu nor den hango gakhoac
dauzcana. Jesus, dio Bernardin de Bas-
tis ohoragarriac, delaric gakho balios
heyen nausi baxharra, confiatu dioz-
cate bat Maria, bere amari. eta bertzea
san Josepe bere aitari. *Cum Christus
claves haberet Paradisi, unam dedit
Matri suæ Mariæ, alteram Patri suo
Joseph.* (In vitâ a se scriptâ. Cap. 6.)

Othoitza

Birjina saindua, eta zu Patriarkha
loriosa, zuec zarete ene esperantza eta
ene laguntza ene penetan, ene nahi
gabetan eta ene beldur guzietan. Zer
euplegu ederra eginen dudan ene egun
guziez, baldin ohoratzen bazaituztet,
eta imitatzen bazaituztet ene bizi gu-
zian! Zer zori ona ez da izanen ene-
tzat, baldin ene azken haxa emaiten

badut eztiki eta contzentiaco erregretic gabe zuen escuetara eta zuen begien aintzinean? Hartzen dut beraz ahal dukedan borondateric fermuena, osoki ene eginbide guzien bethetzeco, leyal izaiteco Jaincoaren legeari eta haren graziari; berrelacoa da zuen bizi loriosean eman derautazuen exemplu ederra. Nahi naiz, zer nahi gostadakidan, erabili zuen urhaxen gainean; nahi zaituztet oboratu, maitatu eta errespetatu, zuec, hoin maitatuac izan zaretenac Jesu-Cristoz. Ardiex diezadazuet zuec berec grazia preziatu hori, eta egizue irau dezadan erresoluzione hortan heriotzeraino, sar nadin amorea gatic zuen laguntzarekia batean akhabantzaric izanen ez duen lorian. Hala-biz.

Pratica

Izan gaitan leyal ilhabethe hontan hartu ditugun chede onen obretan emaiteco; eta ezagut araz dezagun eta heda san Joseperen alderaco deboziona. Ardura galda dezagun Patriarkha saindu hari lagun gaitzan heriotzeco orenean

Exenplua

Bertze orduco Josepec etzuen ezagut arazi bere burua, ethorri artean hortaco behar zen mementoa. Orobaxu izan da Birjinaren espos, Patriarkha sañduaz; zeruaren segretuzco chede batez, saindu hori gordoa bezala egon denaz geroz Jaincoaren Elizan hamabortz mendiren inguruan, erran nahi da, Mariaren birjinitate notharic gabecoa, eta Berboaren Incarnazioneco misterioa Izpiritu Sainduaren berthutez, orotan ongi ezagutuac, eta guzietan perfeki sinhexiac izan artean. Eta, noiz ere ez beita gauza horien gainean enganioaren lanjeric den mendrena gelditu, san Josepe agertu da munduari izar eder eta majestatez bethebat bezala; erran nahi dut hainitz autor omen handitacoec, bere izkiri-buez, eta hainitz sainduc bere hitzez artharic handiena hartu dutela haren ezagut arazteco. Nihor ez da bizkitartean hortaco egin duenic santa Theresac bezenbat, zeina Jaunac, iduri beitu, hautatu zuela obra handi horren conplitzeco.

Zer ez du egin? Zer ez du erran? Zer ez du izkiribatu san Josepe eza- gutua izan dadin eta ohoratua bere merezimenduaren araberan? Hari da zor baldin Eliza guzian ze ebratzen bada san Joseperen besta. Etzuen se- cular deus obrarie abiatzen saindu ha- ren laguntza galdegin gabe, zeina bere aita eta bere Jauna deitzen beitzuen. Conxecratu zituen hamahiru comentu, berac egin zituenac Patriarkha saindu haren ohoretan, eta guziac ezarri zi- tuen haren arartecotasunaren azpian. Saindu haren alderaco kharra oraino hobeki seinalatu zuen hil ondoan. Zonbeit comentue, loriatuac bere fon- datzaile eta bere amaren canonisa- zionean, nahi izan zuten saindu hunen izena eman bere Elizei, khentzen zio- telarie bere Probentzialaren manuz, aintzinean zuten titulua, erran nahi da san Joseperen titulua. Horrec hainitz desplazer egin zioen erreformatzaile saindu hari; eta Abilaco hirian ager- tzen zitayolarie san Dominicaco Iza- bella ama oboagarriari, eman zioen manu hau : *Erranen diozu aita Pro-*

*bentzialari khen dezan ene izena comen-
tuetaric, eta ezar dezoten berriz ere san
Joseperena aintzinean zuten bezala.*
(*Carm. reform., l. 5, n. 5.*) Santa The-
resa, huncela mintza nadin, izan dela
san Joseperen fagoratuetic, juja
daiteke ardura ohoratu duen agertzeez,
eta inobrezca egin diozcan graziez,
ikhus daiteken bezala Patriarkha sain-
duaren bizian, zeina izkiribatua izan
beita santa Theresaz beraz, hunen bi-
ziaren seigarren capituluan erranac
dira bere heriotzean errezibitu zituen
fagoreac; ikhusi zuten zerurat igaiten
usobaten idurian; eta haren etchola-
ren ondoan zen arbola ihartu batec
ekharri zituen hostoac, eta loratu zen
san Joseperen makhila bezala. *Arbor
arida cellæ proxima statim effloruit.* (In
lect. 6. offic. S. Ther.)

Balia gaiten beraz saindu hunen
exortazionez eta exenpluez, nahi ba-
dugu ardiexi san Joseperen ararteco-
tasuna, gohazin santa Theresaren gana
ere, eta har dezagun arartecotzat Bir-
jinaren espos loriosaren aldean. Chede
hortan nahi izan ditut ekharri, azke-

neco egun huntan, fondatzaile dohaxu huneu hitzac eta exenplua.

Bihotz altchatzea

Jesus, Maria eta Josepe emaiten daizkitzuet ene bihotza, ene izpiritua eta ene bizia.

Jesus, Maria eta Josepe, lagun nezazue ene hagonian.

Jesus, Maria eta Josepe, ene arima ethor bedi bakean zuen galtzar adorgarrira.

CONXECRAZIONEZCO ACTA

San Josepe loriosa, saindu guzien artean guziz gai zarena ohoratua, maitatua eta othoiztua izaiteco, zure bertute miragarriac, zure loriaren handitasuna eta zure arartecotasuaren botherea direla causa; Trinitate adoragarriaren, Jesus, zure ordearen, Maria zure espos garbi eta ene ama onaren aintzinean, hartzen zaitut egun ene abocatatz baten nola bertzearen aldean, ene arartecotzat eta ene aitatzat; chede zinezcoa hartzen

dut zu secular ez ahantzteco, ene bi-
zico egun guzietan zure ohoratzeco,
ene ganic dohan guzia egiteco ene ar-
thari confiatuae diren guziei inspira-
tzeco zure alderaco deboziona. Othoiz-
ten zaitut, o ene aita bihotzeco, eman
diezadazu zure arartecotasun berezia,
eta har nezazu zure zerbitzariric
kharxuenen conbreco ! Lagun nezazu
ene egun guzietan, izan zaite ene alde
Jesusen eta Mariaren aintzinean, eta
ez nezazula abandona ene heriotzeco
orenean. Hala-biz

J. M J.

AKHABANTZA

TABLA



	Plaman
Premiazco abisua	III
Jaincoac eman diozcan pribilio diferentac san Joseperi	VII
San Joseperi conxcratua zayon Martchoco ilhabethean egiteco praticac	VIII
Othoitzac san Joseperen ilhabetheco exer- zizioetan	XII
Himnoa san Joseperen ohoretan	XIV
Lithaniac san Josepe loriösaren ohoratzeco,	XVI
1. EGUNA. Jesus gure lehen Buruzagia eta lehen modela, san Joseperi bihurtu dioen ohorean	1
2. — Maria, Birjina guziz Saindua, gure Ama eta gure bigarren modela San Josepe, bere es- posari, bihurtu dioen oho- rean	8

3.	EGUNA.	San Josepe hautatua izan da Maria Birjinaren Espostzat, zeren Saindutasunean gehienic beitzen haren idurico.	17
4.	—	San Joseperen gainean conplitu izan da Isaias profetaren errana.	23
5.	—	Zonbat benediczione ichuri diren zerutic Mariaren eta Joseperen ezcontzaren gainerat.	30
6.	—	Maria eta Josepe espos sainduen batasuna.	36
7.	—	Maria eta Josepe, bi esposen othoitzetaco batasuna, munduaren erospenarentzat.	42
8.	—	San Joseperen trublea, ikhusiz Maria esperantzetan.	49
9.	—	San Josepe lotzen da bideari Mariarekin, Bethlemera joaiteco.	58
10.	—	Josepe eta Maria Bethlemen.	65
11.	—	Josepe, Maria eta Jesus haurra othelacoan.	70
12.	—	Artzainac badohaxi Bethlemengo establiara.	76
13.	—	San Josepec izan zuen bihotzmina Salbatzailearen Zirconzizionea ikhustean.	82


14.	EGUNA.	San Joseperen bozcarioa, errege Magoac ethortzearekin...	88
15.	—	Mariac eta Josepec presentatzen dute Jesus haurra tenpluan	94
16.	—	Mariac eta Josepec Aita eternalari Jesus haurraz egiten dioten ofrenda tenploan.....	99
17.	—	San Josepec izan zuen bihotz mina, aditu zuenean Simeon zahar Sainduaren profezia...	106
18.	—	San Joseperen bihurtzea Nazarethara bere esposarekin eta Jesus haurrarekin.....	112
19.	—	San Josepe Jesus haurraren Begirailea eta hunen zeruco tresoren zaintzailea.....	118
20.	—	San Joseperen fede chinplea eta bizia, segitzean Aingeruaren abertimendua, ihes Echiptorat joaiteco.....	126
21.	—	Jesus badohate ihes Echiptorat Mariac eta Josepec.....	133
22.	—	Familia Sainduaren penac eta chagrinac Echiptoco pijaian..	142
23.	—	Familia Sainduaren egoitza Echiptoan.....	150
24.	—	Jesusen bihurtzea bere herrirat Echiptotic.....	158


25.	EGUNA.	Familia Sainduaren urthe gu- zietaco piaya tenplora.....	166
26.	—	Jesus haurra baratzen da Jeru- salem	174
27.	—	Jesus ekharria Nazarethera.	182
28.	—	Zer hartzen zen Jesus Nazare- theco botican.	190
29.	—	Nazaretheco etchean erregina- tzen duen ordro miragarriaz,	198
30.	—	San Joseperen heriotz ebaliosa,	204
1.	—	San Joseperen loria eta haren puchantzia	214
		Conxecrazionezco Acta.	129

Imprimatur :

FRANCHISTEGUY,

V. g.







Handwritten text in blue ink, oriented vertically on aged paper. The text is written in a cursive script and appears to be a signature or name, possibly "J. H. ...".

Handwritten text in blue ink, possibly a name or address, oriented vertically.

Handwritten squiggle or symbol.

Handwritten squiggle or symbol.

Handwritten squiggle or symbol.

Handwritten squiggle or symbol.

